

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-12-17
ASTELEHENA
390. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Musika tresnak, erakusketan

Lorentzo Altuberen lana, Harresin | 12



Lorentzo Altube artisaua. | L.K.

Taldeko lidergoa sendotu du Natra Oñatik, Valladoliden irabazita | 26



Ederto jokatu arren, galdu egin zuen Bergarak (0-2) | 22



Elkartasun azoka eta salmentek erantzun ona izan dute | 14



'Lurgorri' eta Aramaioko gudari guztiak, gogoan

Zapatuan bete ziren 75 urte frankistek Jose Mari Azkarraga gudaria hil zutela, eta omenaldia egin zieten hari eta herriko mugimenduari | 4

Santamas lasterketa jendetsuena: ia 400 lagun

- ▶ Krosaren 35. edizioan, 205 heldu eta 185 ume eta gaztetxo ibili dira
- ▶ Arrasate Atletiko taldea, antolatzailea, "gaindituta baina oso pozik" dago | 24

"Etxebizitzak zenbat energia behar duen jakinarazi beharko da"



Aitor Axpe | Energia eta eraikuntza irakaslea | 6

Maidar Arregi bertsolariak ipini du txapela Oñatin | 29



Arrasateko sarrera nagusia asteon zabalduko dute berriz | 5

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Abenduko sariak
Eta zuretako badira?

▶ Zoaz 21. orrialdera.

Carrefour GORBEIA

Urtarrilaren 12ra arte

DZATOZ DOAN*

Carrefour

ARRASATE
ARETXABALETA
ESKORIATZA

ETXABARRI-IBIÑA

*60 € baino gehiagoko erosketa eginda, Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarletan ordainduko da.



Adela Ibabe, Euskal Jaian. | GOIO ARANA



Arrasateko ikastolako umeak, plazan, Olentzeroren zain (1970. urte)

Adela, geurea

LEIRE KORTABARRIA | ARAMAIO

Adela Ibabe (1945-1973) aramioarra zen. Andereñoa izan zen eta abortu baten ondorioz hil zen. Haren heriotzak oihartzun handia izan zuen orduko Euskal Herrian. 40 urte betetzera doazen honetan, Goio Aranak historia hori kontatu du bere blogean. Hemen duzue berak idatzitakoa.

Ez nuen Adela Ibabe aurrez aurre ezagutu. Hura hil zenean, nik 10 urte besterik ez nituen, gainera, Ikastolan ikastearen kontuak gurea baino belaunaldi berriagorekin hasi zen. Mutiko koskor bat nintzen Adela hil zenean, baina, oso barruan geratu zitzaidan Ikastolako andereñoari gertatutakoa: hain zen dena iluna eta ulergaitza! Adelaren istorioa kontatuta, bete dut nire buruari aspaldi jarritako eginbeharra. Azpian dago, pare bat ukitu txiki eginda gero, Sustatu-n argitaratutako artikulua.

Adela Ibabe 1973ko otsailaren 11n hil zen. Urte haietako beste ehunka emakume moduan, aramioarra zendu zen abortu klandestino baten ondorioz. Franco hil aurreko garai gogor eta nahasi haietan, gazte arabarraren heriotzak sekulako lurrikara eragin zuen Euskal Herrian: Adela ezkongabea zen, ikastolako andereño kaleratua, baserritarra, "gorria"... Gabriel Arestik gordintasun osoz islatu zuen gertaera hura Adela izeneko omenezko olerkian. Hitzok abesti bilakatuta, Oskorri taldeak eraman zuen haren lekukotasuna plazarik plaza. Laster, 40 urte beteko dira.

Adela Ibabe Ortueta 1945eko azaroaren 23an jaio zen Zubietagainea baserrian. Bostgarrena zen 8 anai-arrebako familia batean. Bere jaiotetxea Aramaion dago, Araban, oso gertu

Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba batzen diren tokitik.

Adelak jaso zituen lehenengo eskolak Uribarri baserri-azuneko eskolan. Geroago, eta behin herrian ikasketak amaituta, Gasteizera joan zen Jesusen Ama Ursulinen ikastetxera barmeko ikasle moduan. Batxilergoa bukatzerakoan, Gasteizen bertan egin zituen Irakasle-ikasketak Magisteritza eskolan.

Bere bizitza laburrean, urte ilusiogarrri bezain gogorak bizitzea tokatu zitzaion. Batetik, sentitu zituen kanpoko aldetik zetozen garai berrien aireak: Parisko Maizta, Pragako Udaberria, Vietnamgo gerraren aurkako giroa, emakumearen eta sexu askapenaren aldeko mugimenduak... Etxe barruan ere bizi izan zituen Euskal Herrian gertatzen ari ziren zenbait aldaketa garrantzitsu, esaterako, sekularizazioaren azkartzea, erlijioaren zokoratzea, giro politikoa-ren pil-pila, euskara batuaren hastapenak, eta euskal kulturaren pizte eta modernizatzea. Baina, beste alde batetik, Adelak bertatik bertara sufritu zituen urte haietan Euskal Herrian zegoen errepresio politiko, sozial, kultural eta erlijio-soa. Esaterako, eta errepresio politikoari erreparatuta, 1968an, -alegia, bera Arrasateko ikastolan lanean hasi zen urtean- Gipuzkoa Salbuespen egoeran zegoen, eta Euskal Herrian, bakarrik urte hartan, egon

ziren 434 atxilotu, 189 espetxeratu, 75 deportatu eta 38 erbestera.

Arrasateko ikastola sortu, eta bertatik kaleratu

Gasteizen Hezkunzan diploma lortu eta segituan hasi zen Adela andereño lanetan. Lehenengo, hilabete batzuk egin zituen Oñatiko eskoletan, baina, berehala, 1968. urtean, Debagoieneko beste bi lagunekin batera, proiektu handi batean murgildu zen: Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolaren sorrera (2003an, egungo Arizmendi Ikastolan bilduko zena). Ikastola gauzatzea egitasmo zaila, baina erakargarria zen: eraikitzea euskara ardatz zuen egitasmo herrikoia, praktikan jar-tzea eredu pedagogiko berriak...

Arrasateko ikastola jaioberrian andereño hasi eta urte gutxira, bete-betean harrapatu zuen Adela ikastolen instituzionalizazio prozesuan sortutako barne liskarrak. Orduan izandako borroken tamainaren adierazle dira ikastola askotan izandako kaleratze masiboak. Lehenengo kanporatzeak Urretxuko ikastolan izan ziren, Gipuzkoan. Han, 1970-71 ikasturtean, hamar maisu-maistra kanporatu zituzten. Hurrengo hilabeteetan, irakasle gehiago bota zituzten, besteak beste, Andoainen, Ondarroan, Barakaldon, Algortan, Leioan, Deustun, Oñatin eta Arrasaten. Kaleratze horiek guztiak ez ziren gertatu

arrazoi berberengatik, baina, Idoia Fernandezek Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975 ikerketan jaso duen moduan, kasu gehienetan, zergatien artean zeuden erlijioaren auzia, politika, maisu-maistren bizitza pribatuaren zuzentasuna eta, kasuren batean, eredu pedagogikoa.

Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolako auzia, zuzendari-koordinatzailearen aukeraketa prozesuan gaiztotu zen bereziki. Ondorioz, 1972an, alegia, ikastola sortu eta lau urte eskasera, 17 lagunek osatutako klausotrik, 15 kide bota egin zituzten. Adela Ibabe kaleratutako irakasleen artean zegoen. Geroago, maisu-maistra haien artetik asko berriro itzuli ziren lanera, baina, Adelak ez zuen izan ikastolara bueltatzeko aukerarik, eta langabezian geratu zen.

Protagonistek bizi izandako buruhaustek baino harago, Arrasateko ikastolakoak sekulako zatiketa eragin zuen herrian. Adelarekin batera kanporatutako irakasle baten hitzetan, "tentsio une eta liskar handiak egon ziren Arrasaten. Kaleratzeak gertatu eta berehala, herrian egin ziren gure aldeko manifestazio handi samarrak. Ageraldi haietan, jatorri ideologiko desberdinetako herritarrak elkar-tu ziren, baina, handik gutxira, "komunistak" eta "espainolistak" ginela zabaldua, asko gutxitu ziren gure aldeko elkartasun erakustaldiak. Azkenera, geratu ginen bakar-tuta eta gaizki ikusiak".

Adiskideen esanetan, Adela oso neska alai eta maitagarri zen. Gustukoen zituen gauzen artean zegoen lagunekin egotea, haiekin mendira joatea eta kantuan egitea. Izan ere, mendi tontorretara igotzea izan ohi zen lagun-kuadrila haren aisaldi planik maizkoena. Gertukoenen hitzetan, sortzerako hainbeste buruhauste emandako ikastolatik bota izana, oso latza izan zen Adelarentzat, baina, orduan ere, aramioarrak jarraitu zuen izaten oso emakume jator eta atsegina. Haurdun geratu zen arte...

Arazoak, abortua egin eta gero

Modu klandestinoan eta erabateko isilpean egiten ziren orduan abortuak. Abortatzea debekatua, ilegala eta gogor zigortua izateaz gain, zen oso eginkizun arriskutsu eta garestia.

Espainiako Auzitegi Gorenaren datuen arabera, 1976. urtean, 200 eta 400 arteko emakumezko hil ziren Espainian ezkutuan egindako abortuen ondorioz, alegia, eguneroko kontua zen emakumeen heriotzak abortuen ondorioz. Gainera, ez ziren makalak abortuekin lotutako auzietako inplikatuak jasotzen zituzten zigorrak: 1973an indarrean zegoen Kode Penalak zigortzen zituen 6 hilabete eta 6 urte arteko espetxe zigorrarekin emakumea eta abortuaren egilea. Prezioari dagokionez, urte berean, Gipuzkoan abortu egiteak balio zuen 20.000 pezeta (120 euro). Kontuan hartu behar da, urte hartan, oinarriko soldata zela 4.680 pezetakoa (28 euro) eta, andereño baten soldata, beti ere, LurHastapenak 18. zenbakian argitaratutakoaren arabera, irits zitekeela izatera 8.000 pezetakoa (48 euro).

Adelaren ebakuntza Frantziatik etorritako mediku batek egin zuen Irungo etxebizitza batean, Ventas auzoan. Bertan gaua igaro eta gero itzuli zen Adela Debagoienara. Baina, txarto sentitzen zenez, eraman zuten Arrasateko ospitalera: eskualdeko medikuek baieztatu zuten emakumeak barne odoljariora zuela eta larri zegoela. Anbulantzian bidali zuten Gurutzetako ospitalera. Ordu gutxira hil zen Adela, Barakaldoko eritegian. 1973ko otsailaren 11 zen, Adelak 28 urte egin berri zituen.

Kolpe itzela izan zen familia-erentzat, laguntzat eta, garai hartan derrigorrezko soldadutza Gasteizen egiten ari zen bere bikotekidearentzat, hura ere ikastolatik kaleratutako irakaslea. Heriotzaren azalpen ofiziala peritonitisa izan bazen ere, Arrasaten lehenengo, eta Euskal Herri osoan geroago, laster zabaldu zen tabu



(ingurua). Adela Ibabe, goiko ilaran, besoa luzatuta. | GOIO ARANA



Arrasateko Musakolako ikastolan (1969-1970 ikasturtea). | GOIO ARANA

hitza: abortua. Izena ezkutuan gorde nahi duen Adelaren lankide eta lagun minaren hitzetan: "Sekulako zartada izan zen. Ikastolan gertatutakoa pasa berri eta gero, jende askorentzat Adelaren heriotza izan zen gure kontra erabilitako argudioen balioen baieztapen moduko bat: deabruak ginen".

Heriotzak eragindako kalte afektibo eta pertsonal handiak ez ezik, Adelaren heriotzak ekarri zituen bestelako zehar kalteak ere: Arrasateko ospitalera eraman zuten bi lagunek epailearen aurrean deklaratu behar izan zuten heriotzaren inguruan irekitako prozesu judizialean. Bi urte luze iraun zuen Adelaren auziak. Debagoienarren izan zuten Miguel Castells abokatuaren laguntza. Adelaren lagunen esanetan, abokatu busturiarrak lortu zuen eurak auziperatuak ez izatea. Bestalde, mediku frantziarraren defentsaz arduratu zen Juan Mari Bandres abokatu. Prozesuaren amaieran, medikua kartzelaratu egin zuten, baina, denbora gutxira, libre ateratu zen.

Gabriel Aresti eta Natxo de Felipe

Oskorriren kantuak lortu zuen Adela Ibabe ezagun bilakatzea Euskal Herriko txoko askotan. Abestiaren egilearen hitzetan, "emoziotik, elkartasunetik eta tristuratik sortutako kantua" izan zen Adelarena.

Arrasaten egindako kantu-afari batean ezagutu zituen Natxo de Felipek bertako ikastolatik kaleratutako maisu-maistrak, tartean Adela: "Ni sasoi hartan, bakarka ibiltzen nintzen gitarrarekin kantuan, batera eta bestera". Arrasateko koadrila hura, hasiera-hasieratik iruditu zitzaion Natxo de Feliperi "jatorra eta maitagarria". Horregatik, talde hura ezagutu eta hilabete gutxira Adelaren heriotzaren berri izan zuenean, lur jota geratu zen

Bilboko musikaria: "Ikaragarria izan zen. Oso hunkituta geratu nintzen. Berehala hasi nintzen kantua egiten: musika, hitzak... negar malkotan idatzi nuen kantuaren lehengo bertsoia". Baina, ikusita hasierako testuak ez zuela berak nahi zuen maila, Gabriel Aresti poetari eskatu zion kantuarekin laguntzeko, izan ere, garai hartan, ia egunero elkartzen ziren lagun biak kantuak sortzeko. Natxo de Feliperen ahotan, "Arestik izugarri ederki borobildu zituen hitzok. Geroago, kantua erregistratzerakoan, adostu genuen Arestik hitzak sinatzea eta nik musika". Hain zuzen ere, arrazoi horregatik ez dago jasota olerki hori Arestiren poema liburuetan: Arestik Natxo de Feliperekin batera sortutakoak edo Oskorrirentzat propio egindako poema gehienak bezala, kantatzeko idatzita zegoelako.

Adela kantuaren lehengo grabazioa argitaratu zen Oskorri izeneko diskoan, 1979ko abenduan. Baina, abestia grabatu zutenerako, makina bat aldiz jota zeukaten kantua zuzenean. Batzuetan, traba eta guzti jo ere, urte haietan talde bizkaitarraren kontrako boikot handia zegoen-eta hainbat sektore albartzaleen aldetik. Geroago, zuzeneko bertsoia ere grabatu zuten, hain zuzen ere, 1987an, Bilboko Arriaga antzokian, 15 urte eta gero hau! diskorako. Gainera, kantua egin berritan, Oskorrikoek abestia aurkeztu zuten Larzabalen antolatutako kantu txapelketa batean, Nafarroa Beherean, eta bertan, lehenengo saria irabazi zuten.

Oskorri ez du kantua aspaldian jo, baina, Natxo de Feliperen hitzetan, laster gauzatuko duten proiektu batean litekeena da kantu esanguratsu hori berreskuratzea.

Musika alde batera utzita, euskal letretan ere Adela Ibabek izan du txokotxo. Hasteko, 1980an, *Muskaria* musika aldizkari aitzindariaren 2. zenbakian, Oskorriren kantuaren gaineko

kronika idatzi zuen Edorta Aranak. Geroago, hildako andereñoari omenaldi eginez, 2005ean, Juan Kruz Igerabidek Adela izena jarri zion *Hauts bihurtu zineten* bere lehengo eleberriaren protagonista bati, hain zuzen ere, "Adela, auzoko maistra aurrerakoia"-ri. Beste alde batek, eta 30 urte lehenago, 1975ean, Xabier Gereño idazleak jorratu zuen ikastoletako maisu-maistren kaleratzeak *Andereño* eleberrian. Nobela motz hori 2011n hildako Bilboko idazle emankorraren laugarren lana izan zen.

"Hire memorian"

Oso garesti ordaindu zituen Adela bizitzan hartutako zenbait erabaki. Galdu zuen lehenengo lana eta geroago bizia, "herria", "berria" eta "gorria" izateagatik. Baina, emakume izateagatik ere izan zen biktima: errepresio sozial eta sexualaren biktima. Bera moduan, milaka emakume hil zen antzeko egoeratan hamarkada haietan. Gaur egun ere, munduan barrena, emakume asko eta asko hiltzen da legez kanpo eta modu txarrean egindako abortuengatik.

Adela geurea da, besteak beste, bere bizitzan -eta bere heriotzan- bildu zirelako egun ere oso sentiberak zaizkigun kontuak: askatasun pertsonala, langileen borrorak, euskaldunon kontraesanak, ezkertiarren arteko konponezinak, estigmatizazioa soziala, laizismoa, abortua, sexualitatea, emakumeen burujabetza... 40 urte igaro dira Adela hil zenetik, eta oraindik ere gaitza suertatzen zaigu berari buruz normaltasunez berba egitea. Lau hamarkada geroago ere, Adela gogoratuta, eta kantaren hitzak ekarriz, gogorrenoi ere, elur maluta bat pausatzen zaigu begiaren ertzean.



GOIO ARANA | BLOGARIA

"Orduko kontuez ez da nahikorik berba egin"

Goio Arana arrasatearrak <http://ilaket.com> webgunean egin du Adela Ibaberen historiaren kontakizuna.

Noiztik datorkizu Adela Ibaberen historia kontatzeko gogo?


Aspalditik. Hura gertatu zenean, 10 urte nituen eta ez nintzen askotaz jabetu, baina oso gauza larriak gertatu zirela entzuten nuen, gertaera latz haiek oso barruan gertatu zitzaizkidan. Ez nuen Adela Ibabe ezagutu, baina, ez dut inoiz ahaztu izan. Beti izan dut historia hura hobeto ezagutzeko eta kontatzeko gogo. Lehenago ere saiatu nintzen idazten, baina, konturatu nintzen ez zela oraindik unea...

Ikerketa-lana egin duzu, beraz.

Bai, apur bat. Gauza gutxi nekien: izena, abizena, andereñoa zela, garai berdintsuan izan zirela ikastolako kalera-tzeak eta bere heriotza... Lehenengo, ikastolen gainean irakurri nuen, geroago, bildu nuen Adelarekin zerikusia zuen materiala, elkarrizketatu kantuaren egile... eta batez ere, egon bere lagun minekin eta Adelaren anai batekin. Guztiei, mila esker.

Zein izan da zure helburua?

Kontatzea Adela Ibaberen heriotzaren historia errespetuz, maitasunez, baina, zurikeria barik. Kokatzea Adela Ibaberen heriotza testuinguru sozialean: Franco hil aurreko sasoi zail eta nahasi haietan. Urte ilusio-nagarriak baina, aldi berean, kontraesan ez eta errepresioz josita: politikoa, soziala, erlijiosoa, sexuala... Adelaren pertsonan, eta oso den-



GOIENA

bora tarte txikian, bildu ziren bi faktore dramatiko: ikastolako kaleratzeak eta, batez ere, abortuaren ondorengo heriotza. Ulegarria denez, historia horren atzetik sufrimendu handia dago, eta min horren tamaina erakusten du gaur egun oraindik

horri buruz hitz egitea hain zaila izateak.

Garai hartako kontuez eta, zehazki, Adela Ibaberen historiari

berba gutxi egin dela diozu...

Bai; urte haietan ez da nahikorik berba egin, eta egin izan denean, barrena edo etxe barrura barik, beti egin izan da Espainiara begira, Trantsizioari begira. Memoria historikoarekin gertatzen den moduan, urte asko behar izan dira halako gauzatuz normaltasunez aritzeko. Jende nagusia gaur dago gertu gerra denboran bisitakoaz hitz egiteko; bada, Adelarekin gauza bera gertatzen da, orain hasi da jendea gertatutakoaz gainean berba egin ahal izaten. Zentzu horretan, espero dut lan hau aukera bat izatea eta erraztea gai horietaz modu naturalago baten hitz egiten.



Nafarrete, Zabala, Unzueta, Aiastui, Azkarraga eta Velez de Mendizabal, omenaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

'Lurgorri' eta Aramaio mugimendua omendu dute

Atzo bete ziren 75 urte frankistek 'Lurgorri' gudari jeltzalea hil zutela, eta familiak omenaldia egin zion

OIHANA ELORTZA | ARAMAIO

Atzo, domeka, bete ziren 75 urte frankistek Jose Mari Azkarraga Mozo *Lurgorri* erail zutela eta senideek omenaldia egin zioten Aramaion. "Omenaldi honekin, *Lurgorri* bakarrik ez, Aramaion eta inguru honetan gorpuztu zen mugimenduan ibili ziren gazteak eta ez hain gazteak omendu gura izan ditugu. Beraiek defendatu zuten gure herria", azaldu zuen *Lurgorri*-ren iloba Josemari Velez de Mendizabalek omenaldian, eta minutu erdiko isilunea eskatu zien bertaratu zirenei.

Etxeko omenaldia

Derioko kanposantuko hormaren kontra erail zuten *Lurgorri*

frankistek, 1937ko abenduaren 16an, 21 urte zituela, eta familiak omenaldia egin dio. *Lurgorri*-ren ilobak eta birbilobak elkartu ziren, besteak beste, atzoko ekitaldian.

Omenaldia bere izena darman kalean dagoen oroitarrarian egin zuten, ordu batean. Oroitarriaren bueltan, ikurrina jarri zuten lehenengo. Oier Azkarraga birbilobak *Lurgorri*-ren bizi-modua nolakoa izan zen irakurri zuen ondoren, eta segidan, aureskua dantzatu zuen Gotzon Azkarraga ilobak, txistulari batek lagunduta. Bukatzeko, krabelin gorriak banatu zituzten omenaldira joan zirenen artean, eta oroitarraren ondoan utzi

zituzten haiek lorak, banan-banan.

Gudari jeltzalearen senideak ez ezik, hainbat aramaioar ere egon ziren omenaldian; tartean, Julian Unzueta demokraziako Aramaio lehenengo alkatea, Iñaki Nafarrate alkate ohi jeltzalea eta egun zinegotzia dena Aramaio Udalean, eta baita Aramaio zenbait jeltzale ere, Jesus Zabala tartean.

Abertzale eta euskalduna

Oier Azkarragak omenaldian kontatu zuen moduan, "familia abertzale eta euskaldun batean jaio zen *Lurgorri*, eta gazte zela sortu zitzaion bere herriaren kulturarekiko grina. EAJko

afiliatua zen, eta Madril zegoela zuzenbide ikasketak egiten, euskal prentsan idazten hasi zen, artikuluak *Lurgorri* ezizenaz izenpetzen zituelarik. Frankisten altxamenduak, 1936ko uztailaren 18an, Aramaion harapatu zuen, eta alderdiaren esanetara jarri zen. Honela, Aramaion eta Leintz bailaran gorpuztu zen Amaieur batailoilaren hastapena izango zena lantzen hasi zen. *Euzkadi* aldizkariarendako idatzi zituen gerrako kronikak. Santoñako El Dueso kartzelan sartu zuten, eta heriotzera kondenatu. Preso zegoela, *Espetxean* izeneko aldizkari klandestinoan idatzi zuen. Azken artikulua 1937ko abenduaren 8an idatzi zuen, urte bereko ekainean erail zuten Esteban Urkiaga *Lauaxeta*-ri buruz".

Aramaioko jertsea soinean

Lurgorri Errenterian jaio zen, baina lotura estua zuen Aramaioarekin. "Errenterian jaio zen, ama hangoa zelako. Gazte zela, gurasoek Aramaion egin zuten etxe bat eta hemen denbora asko pasatzen zuen. Madril zegoen garaian ere, hemen pasatzen zituen udako oporraldiak eta baita asteburu asko ere. Aramaioar zuen bere burua. Hil baino minutu batzuk lehenago, berarekin ziegan zegoen Zirilo Mondragon aramaioarri eskatu zion bere jertsea uzteko, Aramaioko jertsearekin hil gura zuelako", argitu zuen Josemari Velez de Mendizabalek.

"Amaieur izango zenaren hastapen lanak egin zituen"

"Aramaioko jertsea soinean zuela erail zuten 'Lurgorri'"

Jakiunde atek zabalduko ditu herritarrendako

Jakiunde bere egoitza erakutsi nahi die bergarrei, eta horretarako, ate irekien jardunaldia antolatu du Olaso dorrean. Abenduaren 20an izango da hori, datorren eguean, 19:00etan. Horren aurretik, Udalak harrera egingo dio Jakiunde Akademiari udaletxean. Jesus Elortzak, Bergarako alkateak; Jose Luis Elkorok, Olaso dorreko presidenteak; eta Jesus Mari Ugaldek, Jakiunde presidentek, berba egingo dute. Eta udaletxe ekitaldiaren ostean egingo dute Jakiunderen egoitzara bisita. Bukatutakoan, luntxa egongo da guztiendako.

Zabor poltsak ipini dituzte protesta gisa Bergaran

O.E. | BERGARA

Zabor poltsak zintzilik jarri dituzte Bergarako kaleetako hainbat balkoitan. Modu horretara, atez ateko zabor bilketa sistemaren aurka daudela adierazi gura izan dute herritar horiek. Arrasaten ere, zabor poltsak agertu ziren zapatu gauean lekuz kanpo, Iturriotz kaleko kanalo bati lotuta, adibidez.

Bergara Garbiak deituta

Atez ateko hiri hondakin bilketa moduaren kontrako Bergarako herri plataformak, Bergara Garbiak, egindako deiari erantzunez, Bergarako hainbat etxeko balkoietan agertu ziren zapatu goizean paperez betetako zabor poltsak, adibidez, Ibargarai kaleko hainbat balkoietan. Modu honetan, protesta egin nahi izan dute herritarrek, hondakin atez ate jasotzeko sistemaren ondorioz, herrian barrena jarriko dituzten zintzilikarioek herria itsusitu eta zikindu egingo dutelako.

Bergara Garbia izeneko plataformak 4.790 sinadura jaso ditu atez ateko hiri hondakin bilketaren aurka. Bergaran ez ezik, beste herri batzuetan ere batu dituzte sinadurak sistema horren kontra: Arrasaten, 6.686 batu dituzte Arrasate Garbi eta Stop Atez Ate plataformek; Oñatiko PaP Ez izeneko plataformak 2.416 sinadura aurkeztu ditu notaritzan; Aretxabaletan, berriz, 1.704 batu dituzte bosgarren edukiontzien alde.



Zabor poltsak balkoietan. | IS.

Sorturen ildo politikoa landu dute herri batzarretan

Sorturen ildo politikoa landu eta ekarpenak egiteko herri batzarrak egin zituzten zapatu goizean bailarako herri gehienetan. Argazkian, Arrasateko Kulturaren egindako batzarra ageri da. Hurrengo batzarra urtarrilaren 26an izango da, barne antolaketa eta funtzionamendu ereduak hausnartzeko.



ANDER MONEDERO

ZUZENKETA

Joan den asteleheneko GOIENAKO 2. eta 3. orrietan, familia ugari mota bat gurasoa eta bi seme-alaba zirela idatzi genuen. Hori ez da zehatza; familia ugaria da gurasoa banandua, dibortziatua edo alarguna denean.



San Isidro zubia, bukatuta. | ANDER MONEDERO

Asteon zabalduko dute Arrasateko lehen sarrera

Uda ezkeron egon da itxita, zubi berria eraikitzeko

J.D./U.M. | ARRASATE

Oraingo aste amaieran atzera ere erabilgarri izango da Arrasaterako lehen sarrera, Eroskiko biribilgunearen ostekoa. Berez eta epe aldetik, lanak bide onetik doaz, eta horixe da Arrasateko Udalaren aurreikuspena.

Hala ere, eguraldiaren araberatik datok aldatzea posible dela ere esan dute Udaleko ordezkariak, oraindik lan batzuk bukatzea beharrezkoa dutelako.

Azkeneko lanak

Hain justu ere, joan den astean, zubi berriko errepidean galipota botatzen ibili dira, eta beste hainbat lan egiten ere bai. Adibidez, San Isidro ermita aldetik oinezkoentzako baranda jarri dute (berritasunetako bat du, gainera, Arrasateko armarraria jarri diotela); espaloian hormigoia bota dute, argiztapen berria martxan jarri, zubian bertan tenperatura aldaketek ekar lezaketen kalteak saihe-

teko loturak jarri dituzte eta oinezkoentzako eta zirkulazio-errepidean seinaleak margotu dituzte. Eta horrez gainera, Eroskiti hipermerkatutik Musakolara doan espaloizati bat elbarrituendako egokitu behar dute.

Edozelan ere, esandakoa: aurreikuspenak betez gero, oraingo asteko eguen edo egubakoitzean zabalduko dute Axerikoa zubia.

Horrek esan gura du, besteak beste, garraio publikoa zubia itxi aurreko funtzionamendura bueltatuko dela. Eta Aretxabaletatik Arrasaterako noranzkoan, ospitalerako sarrera berri ere zabaldu egingo dute la zirkulaziorako.

Uholde arriskua, konponduta

Uztailean hasi ziren Arrasate sarrerako zubia botatzen. Zubi berria egitearen arrazoia izan da zaharraren arkuak uholde arriskua eragiten zuela ur handiak datozenean.

Miren Arzak eta Iñaki Arana | 'Non eteten da nire bizitza?' liburuaren egileak

"Gorputz eta bizipenekin ulertzen dugu pertsona"

Kontsultan bizi izandako kasuen bitartez, osteopatiaren emaitza onuragarriak azaltzen saiatzen dira 'Non eteten den bizitza' liburuaren egileak

A.TXINTXURRETA / Z.V.D.M. | ARRASATE

Miren Arzak fisioterapeuta eta osteopata eta Iñaki Arana aholkulari sistemiko eta familia konstelazioetan espezializatua. Osteopatiari buruzko liburu bat argitaratu dute Miren Arzakek eta Iñaki Aranak. *Non eteten da nire bizitza?* da izenburua, eta bertan, kontsultan izandako hainbat kasuren bitartez osteopatiaren emaitza onuragarriak azaltzen dira.

Zer da osteopatia?

Andrew Taylor Stillek sortu zuen kontzeptua da eta bizitza dauka oinarria. Gure kontsultara datorren pertsonaren bizitza gorputzean nola mugitzen den igartzen dugu eskuekin. Pertsona bere osotasunean ulertzeko, bizipen eta guzti kontsideratzen dugu guk.

Esango zenukete geroz eta jende gehiagok hautatzen duela osteopatia?

Betidanik etorri da jende ugari kontsultara. Baina egia da osasuna beste ikuspuntu batetik lantzea bilatzen dugula. Osasuna pertsonaren osotasuna da, gaixo gaudenean *osatu* esaten dugu; hau da, gorputzak, egoera emozionalak, bizi dituen eta bere sistemak bizi izan diren egoerek bat egitea.

Zer da zehazki liburuan azaltzen duzuen?

Alde batetik, osteopatia oso modu errazean azaltzen saiatzen gara, kasu zehatzekin. Bestalde, osasunarekiko gure ikuspegia azaltzen dugu, gorputzaren osasuna eta alde emozionala batera landuz. Gorputza ez blokeatzeko ikuspegi sistemikoaren beharra daukagu, gorputza eta bere sistema



Miren Arzak eta Iñaki Arana. | IÑAKI ARANA

"Gure arbasoen zailtasunek eragina dute hurrengo belaunaldietan"

osotasunean ulertzea.

Pertsonak zailtasun bat bizi duenean, ikuspegi orokorra hartzen saiatzen gara: zein den bizi duen egoera, eta zer-nolako bizi-

penak eduki dituen... horrek guztiak eragiten baitigu.

Ez gara kontziente, baina bakoitzaren izaeran familian bizi izandako esperientziak ere badaude, gure zeluletan informazio guztia grabatuta geratzen da. Gure arbasoen zailtasunek eta konpondu gabeko egoerek eragina daukate hurrengo belaunaldietan, eta, moduren batean edo bestean, azalduko dira.

Liburuan, gorputzaren bidez informazio hori lortzera nola heltzen garen azaltzen dugu.

Tasen legearen aurka, magistratuak protestan Bergaran

Bergarako abokatu eta prokuradoreek kale agerraldia egin zuten joan den astean Bergarako epaitegiaren aurrean. *Justizia arlo guztietan* izan da aldarrikatu gura izan dutena. Hain zuzen ere, Raxoiren gobernuak indarrean jarri duen tasen legearen aurka protesta egitea izan da euren helburua.



BEGO LASAGABASTER

Aitor Axpe | Energia eta eraikuntza arloko irakaslea

"Etxebizitzak zenbat kontsumitzen duen jakinarazi beharko du jabeak"

- ▶ Etxebizitza saltzeko edo alokatzeko, energia ziurtagiria beharko da
- ▶ Axperen esanetan, gastu bakarra izango da: teknikari bati ordaintzea

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Espainiako Gobernuak eraginkortasunaren gaineko dekretua prestatzen dihardu. Arizmendiko energia eta eraikuntza arloko irakasle Aitor Axperen esanetan, "helburua da 2020rako etxebizitzek ia energiari ez kontsumitzea". **Etxebizitzen energia eraginkortasunaren gaineko gero eta betebeharrak gehiago eskatzen ditu Europak.** Lehenengo eta behin, esan behar da energia aldetik mendekotasun handia duela Europak, energiaren %46 kanpotik ekartzen delako. EAEren kasuan, energiaren %95 dator kanpotik. Sortzen duguna %5 da eta energia berriztagarriak dira. Energia primarioa da hori dena.

Bestalde, bai: eraikuntzak energiaren %40 kontsumitzen du, eta lege batzuk atera dira hori murrizteko. Horren barruan, ziurtagiri energetikoaren gaineko arau berria dator. Europaren helburua da, 2020rako, etxebizitzek energiari ez kontsumitzea. **Urruti dago hori oraindik...**

Bai, nahiko urruti dago, baina pauso batzuk ematen ari dira. Ziurtagiri energetikoaren lege bat sartu zen indarrean 2007an, baina etxebizitza berriei edo 1.000 metro koadrokoei eta fatxadaren %25 baino gehiago birgaitzen zutenei bakarrik eragiten zien, horiendako bakarrik zen derri-gorrezkoa.



Aitor Axpe. | ENKO AZKARATE

"Eginda dauden etxebizitza guztiei ziurtagiria eskatuko diete laster"

Espainiako Gobernuak dekretua prestatzen dabil. Zer ekarriko du horrek?

Bai, ateratzeko dago dekretu hori. Orain arte etxebizitza asko egin dira, baina aurrerantzean gutxiago egingo dira. Hasierako araua

etxebizitza berriendako zen bakarrik, eta aurrerapauso handik ez zen ematen. Orain, eginda dauden etxebizitza guztiei ziurtagiri energetikoa eskatzea da helburua. **Ze dago indarrean gaur egun, ze betebeharrak eta arauak?**

Eraikuntzako Kode Teknikoa, 2006koa, eta ziurtagiria, 2007koa, horiek daude indarrean. Badau-de arautegi municipalak eta beste batzuk, baina garrantzitsuenak horiek biak dira.

Bestalde, Eraikuntzen Azterketa Teknikoa (ITE) dago. Ze betebeharrak ezartzen ditu etxebizitzendako?

50 urte baino gehiago duten etxebizitzek bakarrik eragiten die. Segurtasun eta osasungarritasun minimoak betetzen dituztela ziurtatzen da. Teknikariak azterketa bisuala bakarrik egiten du, ez da agresiboa. Gero, informea egiten du, eta ze akats duen zehazten du. Akatsak handiak badira, segurtasuna ez badu bermatzen, konponketa-obra egiteko epe labur bat ematen du Udalak. Ziurtagiri horrek 10 urterako balio du.

Eta 50 urtetik beherako etxeen kasuan?

Egitura aldetik, ez dute inongo konpromisorik. Lege berri horrekin, alokairuan eman edo saldu nahi badu jabeak, ziurtagiri energetikoa hori izatea eskatuko zaie, hau da, informazio hori ematea maizterrak.

Krisiarekin, gero eta eraginkorragoak izatea helburu errealista da?

Arau horrek ez dio inolako obrarik egin behar denik; bere erai-kinak eraginkortasun handia edo txikia duen esango du bakarrik, eta, txikia baldin bada, gomen-dioak emango dizkio jabeak. Saltzerakoan, erosleak jakingo du ze gastu energetiko duen etxebizitza. Antzeko zerbait egiten da autoa erosten denean: ze kontsumo daukan, eta abar.

Beraz, jendeak ez du zertan kezkatu, arau berriak ez dizkiolako gastu handiak ekarriko...

Ez; teknikariari ordaindu beharko dio bakarrik, informe hori egiteko.

2020an energiari ez gastatzea da helburua. Aurtengo negua bertan dagoela kontuan izanda, nola aurreztu dezakegu?

Hiru pauso daude: lehenengoa, ohitura onak hartzea; bigarrena, erabiltzen ditugun etxetresnak ahalik eta eraginkorrenak izatea; eta azkena, garestiena, etxebizitzako sistemak aldatzea.



Ander Errasti. | LEIRE KORTABARRIA

Enpresendako liburua argitaratu du Ander Errastik

L.K. | BERGARA

Gestión de Compras en la Empresa delako liburua argitaratu berri du Ander Errasti irakasle eta Natra Taldeko zuzendaritzako kidea. Ediciones Pirámide-Grupo Anaya argitaletxeak atera du, Economía y Empresa sortan. Errastiren aurreko liburua, *Logística de almacenaje: diseño y gestión de almacenes y plataformas logísticas* delakoa, arrakasta handiz saldu da Espainian eta Hego Amerikan, eta horregatik argitaletxeak liburu berria argitaratzeko aukera eman dio.

Liburu teknikoak da honako ere. Enpresetako zuzendariendako eta erosketen arduradunendako kontsulta-dokumentua izan nahi du, eta erosketak kudeatzeko kompetentziak ikasteko balio duten ariketetarako kasu praktikoak ere eskaini nahi die graduondoko eta Ingeniaritzako irakasleei eta ikasleei.

Benetako 50 kasu

Egilearen esanetan, "liburuan 50 enpresako kasu erreal baino gehiagoren ekarpenak jaso dira, eta enpresako erosketen arduradun diren Ivan Yarzak eta Jose Mari Arronizek parte hartu dute".

Bigarren liburu horrek kudeaketa industrialaren beste arlo bat jorratzen du: aurrekoak logistikarena lantzen bazuen, oraingoak erosketen arduradun diren.

Argitaletxearen esanetan, liburua "erdarazko literatura teknikoan dagoen hutsune bat betetzera dator, eta gaur egungo enpresetan prezio, kalitate eta zerbitzuan erosketen industria hobetzeko dago bideratuta".

Liburua espainolez dago idatzita, baina euskarara itzultzeko asmoa du Errastik.

Bergaran bizi da

Natra Taldeko zuzendaritzakoa eta Tecnun unibertsitateko irakasle atxikitua da Ander Errasti. Elgoibartarra da baina Bergaran bizi da aspalditik.

Komertzioen %40k larregiko argiztapena dute

Gipuzkoako Merkataritza Elkar-teak eman ditu datuok, FNeNergia adituen eskutik

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako Merkataritza Elkar-teak bere bazkideen artean energiaren inguruko ohitura onak zabaltzeko hainbat ekintza egiten dihardu. Orain azkeneko, joan den astelehenean izan zuten tailer bat, FNeNergia erakundeko teknikariek, eta merkataritzak normalean dituen energia-gastuak aztertu zituzten.

24 orduan isiotuta

Argie dagokienez, FNeNergia esan zuen "benetako tresna" dela merkataritza, baina energia-kontsumoaren hiru laurdenak hartzen dituela. "Lokalen %40k larregiko argitasuna dute, eta neurritz kanpo kontsumitzen dute".

Baina energiaren zatirik handiena ekipamenduak egiten du, erakunde horren esanetan. "Gan-

berak, beira-arak, arkoiak, haizagailuak, kafe-makinak... 24 orduetan edo ordu askoan daude martxan, eta, normalean, desgaste handiko ekipamenduak dira". Berritzea gako dela diote adituek: 10 urtekoa edo zaharragoa den ekipamenduak prozesu bera egiteko %10 eta %15 arteko gain-kontsumoa egin dezake.

DATUA
10
URTEKO EKIPAMENDUA
10 urteko ekipo elektrikoak berriagoak baino %15 energia gehiago behar du.

Onartu da 700.000 eurotik gorako ondasunen zerga

Gipuzkoako zergadunen artean ondare handienak dituzten %1,7ei eragingo die

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako zerga-sistemaren erreformak aurrera jarraitzen du, eguaztenean Batzar Nagusietan Gipuzkoako Foru Aldundiak bi proiektu onartu eta gero.

Batetik, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga onartu dute Batzar Nagusiek. Horren bidez, 700.000 eurotik gorako ondasunak eta 300.000 eurotik gorako etxebizitza dutenek gehiago ordaindu beharko dute; denetara, zergadunen goiko aldeko %1,7 dira. Salbuespen berriak ezarri dira, gizarte osoari zein ingurumenari mesede egiten dieten ondasunen edo jabetzen kasuan, esaterako.

Bestetik, Arrisku Bereziko Zergadunen Errolda indarrean

jartzea erabaki dute, aurrerantzean iruzurraren kontrako lan-tresna "garrantzitsua" izango dena, Foru Aldundiaren esanetan. Helena Franco Ogasuneko diputatuak zorianak eman dizkie gipuzkoarrei eta erabakiaren garrantzia nabarmendu du.

"Zirrikituak itxi dira"

Helena Francok eguaztenean esan zuenez, 700.000 eurotik gorakoendako zerga berriaren bidez, "aberastasuna modu eraginkorragoan zergapetu ahal izango da, zergak saihesteko hainbat zirrikitu itxi direlako. Muga edo ezkutu fiskala desagertu egingo da, eta aberatsen euren ondarearen arabera ordaindu beharko dute".

Iñigo Aldasoro | Su Eskolako zuzendaria

"Zentzua erabilia jokatzuz gero, ezbeharrak asko murriztuko lirateke"

- ▶ Su Eskolak 500 ikastaro eman ditu eta 10.000 laguni formazio zuzena eskaini die
- ▶ Berogailuak ganbaratik jaisten ditugunean, askotan ez ditugu zuzen erabiltzen

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Su Eskola Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak kanpaina bat jarri dute martxan, neguan suak eragindako ezbeharrak murrizteko helburuarekin; Gipuzkoan, neguan, ehunetik gora ezbehar gertatzen dira etxeetan. Kanpaina horren helburua da ehunetik behera jaitea. Iñigo Aldasorok, Su Eskola Fundazioko zuzendariak, eman dizkigu aholkuak ezbeharrak gerta ez dadin.

Etxean suterik ez izateko zein aholku jarraitu beharko genituzke?

Praktika errazak dira jarraitzeko. Estufen erabilera okerren artean, bat da nagusia: arropak estufa gainean jartzea, azkar lehor daitezzen. Gainera, estufak gortinei, altzariei edota oheari itsatsita jartzeko ohitura daukagu, eta horrek arriskua sortzen du.

Egurrezko eta ikatzezko sutontzien kasuan, hauek isurtzen dituzten gasek gure arnas aparatuan arazoak eragin dezakete. Gainera, gas isuria detektatzen badugu, etengailurik ez ukitu, -argia, ez piztu eta ezta itzali ere- gasaren pasoa moztu eta etxea aireztatu.

Azken bi hauekin lotuta, etxeetako sukaldeetan leihatilatxoak egoten dira gas isuria badago aireeratzeke; baina hotz egiten duenean, batzuek leihatilatxo ixten dute sukaldean ez hozteko. Baina horrek, gas isuria egonez gero, prebentzio neurri bat ezabatzen du.


Tximiniak, udazkeneko, garbitu egin beharko genituzke. Beheko su eta ekonomiko guztiak garbitu behar dira urtero.

Sukaldean ere neurriak hartu behar dira, ezta?

Zentzuzko gomendioak dira. Sukaldean, zartagina ez genuke inoiz zaindu gabe utzi beharko. Ke-kanpaia garbitu behar da: olio edo koipe itsatsia kenduta. Izan ere, zartaginak su hartuko balu, goialdean pilotutako koipearekin areagotu egingo litzateke ezbeharrak, eta horrek ez dauka soluziorik.

Gainera, ohean ez litzateke erre beharko. Istripu asko gertatzen dira erretzen ari garela lo hartu ondoren. Hautsontzian ondo itzali eta zaborrontzira bota aurretik ondo busti, berriro surik har ez dezan.

Neguan areagotu egiten diren ezbeharrak. Gipuzkoan 153 sute iaizko neguan; asko dira?



Iñigo Aldasoro, Su Eskolako zuzendaria. | SU ESKOLA

Bai, sute asko dira; bakarra ere asko izango litzateke. Kontuan hartu behar dugu azken best urteetan 138 ingururen bueltan egon dela ezbeharren kopurua; beti ehuneko kopurua gaintzen dela, alegia. Iaz ezbehar asko gertatu ziren; otsaila oso hotza izan zen eta suteek gora egin zuten. Batez beste, 40 sutetik gora eragiten dute tximiniak, eta sukaldeetan, ke-kanpaiek eraginda, 30etik gora. Tapaki elektrikoak direla eta urtean hiru bat sute gertatzen dira. Lo hartu aurretik itzali egin behar ditugu. Istripu kopurua asko jaitsiko litzateke zentzuz jokatzuz gero. Beste

"Arropak estufa gainean jartzeak sute arriskua sortzen du"

"Gazteen lokaletara bideratutako kanpaina berezia jarri dugu martxan"

lurralde batzuetan -Arabian eta Bizkaian- ere antzeko zifren bueltan dabilta.

Zer motatako etxeetan gertatzen dira suteak? Ezaugarri jakinen bat duten etxeetan gertatzen dira?

Suteak, orokorrean, etxe mota guztietan gertatzen dira. Sute hauen barnean, ordea, arrazoi bat edo beste dago. Tximiniak baserrietan edo atikoetan ere badaude, eta sutea berdin-berdin gerta daiteke.

Zergatik gertatzen dira sute horiek, beraz?

Hotz egiten hasten denean, Ganbaran eduki ditugun berogailuak jaitsi eta hauen erabilera okerra egiten dugu: arropa lehortzen jartzen dugu berogailuen gainean, edo gortinen ondoan jartzen ditugu; tximiniak pizteko sasoian, arriskua hor dago. Eta usain ona botatzen duten kandelak ere martxan jartzen ditugu; baina arriskua dutela ere kontuan izan behar dugu.

Gas instalazioa duten etxeetan ere gerta daiteke ezbeharra?

Bai. Gas isuria gerta daiteke. Gas metaketa izanez gero, eta bero puntu batek harrapatuz gero, eztanda gerta daiteke. Elektrizitate sistema zaharkituan eta gainkargatuan ere arriskua dago

gertatzeko.

Gazteen lokaletan kanpaina berezia abiatu duzue aurten.

Otsailean gazte lokaletara bideratutako kanpaina jarri dugu abian. Aireztapen ona, kandela eta estufekin kontuz ibili eta etxebizitzetako aholkuak aplikatu behar dituzte.

2009an eratu zen fundazioa. Zer da Su Eskola?

Helburu nagusia suteen kalteak mugatzea da. Sentsibilizazio eta formakuntzaren bidez

"Gipuzkoan, iaizko neguan, etxeetan 153 ezbehar gertatu ziren"

"Tximiniak urtero garbitzea komeni da sustorik ez izateko hauek piztean"

trolatu nahi dugu. Formakuntzari dagokionez, enpresei, partikularrei eta larrialditako zerbitzuei eskaintzen diegu.

500 ikastaro eman dituzue dagoeneko.

2010ean hasi ginenetik 500 ikastaro eta 10.000 ikasle izan ditugu. Ordizian eta Ispasterko maniobra parkean eskaintzen ditugu formazio ikastaroak. Pixkanaka jendea ohartu da formakuntza honen beharraz. Eskerrak ere jaso ditugu istripu bat gertatu zen enpresa batetik, langile horiek ondo erantzun zutelako.

Fundazioaren patronatua Osalan eta Gipuzkoako Aldundia daude.

Fundazio bat gara eta sentsibilizazio lana ahalik eta jende gehienarengana iristea nahi dugu, eta hor daude gure babesleak, helburu hori lortzen laguntzen dituztenak.

Osalanek eta Gipuzkoako Aldundiak osatzen dute patronatua; Lore Martinez aretxabaletarra, esaterako, Patronatua Gipuzkoako Foru Aldundiak duen ordezkarietako bat da. Informazio Gizartearen zuzendari gisa dihardu bertan lanean.

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
http://goiena.net/iritzia/

Lotsagabeak eta ganorabakoak?

Dena libre dute; lo gaude eta ezertaz ere ez gara konturatzen. Lapiko barruan dagoen igelaren ipuinean bezala, ura epel-tzen jarri ziguten, aspaldi, eta apurka gehiegi berotzen ari dela konturatu ere ez. Gradutxo bat gehiago jasango dugu, ezta? Noiz demontre egingo dugu, baina, salto? Noiz tontoalditik irten, kiskaldu ez gaitezen?

Arazoz bete digute, poliki-poliki, burua; komunikabideetan krisiarena besterik ez dugu entzuten; ekonomia txarto dagoela. Eta, orain, bestelakoak arazo txikiak iruditzen zaizkigu, jakina!

Hizkuntzen inguruko gatazka, gainera, beti jarri digute bigarren mailan. Batzuetan erdi konponduta dagoen itxura eman eta lasai egoteko esaten digute: "Eskubideak hor dituzue; bide onetik goaz; eskolan gehienak D erudian ikasten ari dira...". Beste batzuetan, gehiegi ere dugula: "Zer nahi duzue, ba; erabilera da gako, zuena da errua...".

Oraingoan, baina, Wert ministroak langa guztiak apurtu ditu, gidari gabeko tren zoroaren itxuran. Bost axola bidean zer dagoen, edota semaforo gorri-rik dagoen. Oraingoan topera jarri du sua, eta kiskali nahi gaitu. Lehendik gabeziak izan hezkuntzako curriculum erabakitzeko, euskalduntasuna lantzeko eta *maila oneko euskaldun* ikasleak lortzeko, eta orain kitto egin nahi digute: katalanak eta euskaldunak espainolizatu; espainola eta espainolez ikasteari lekua gehitu. Minorizatua dagoen hizkuntzari, berezkoari, ez diote lehentasunezko ezer utzi nahi; euskara erlijioaren pare, edo atzetik!

Orain, freno hezkuntzan; normalizazio linguistikoak aurrerapauso gehien eman duen arloan! Identitate asuntua? Bai ba! Jada, mozorrorik ere ez, berdin zaie; eta haien eredu monoideologikoa inplantatzera doaz, benetan gustukoa dutena!

Eta guk, sentitu al dugu ura irakiten dagoela? Haiek lotsagabeak; eta gu, ganorabakoak?

"Bost axola bidean zer dagoen, edota semaforo gorri-rik dagoen"

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

"Etxeko ateari buelta, beti"

Autoko kristala hautsi eta baliotsua den edozer ostu. Lapurreta modu horren biktima izan diren herritarrak ezagutuko dituzue, ziur. Arrasaten asko dira, behintzat. Inaki Arriaga udaltzainburua aurrez aurre ezagutzeko aukera izan dut oraintsu, eta bai, metodo hori da azkenaldian ohikoen bihurtu dena. Baina ez dago asaldatzeko motiborik; Arriagaren arabera, Arrasaten delinkuentzia-maila ez da beste herrietan baino kezkarriagoa. Hori bai, Gabonetan lapurretak hazi egiten dira, batez ere etxebizitzetan. Bada, opariak hartzen dituen *Olentzero* gura ez duenari aholku zehatza ekarri dio gogora: "Etxeko atearen sarrailarri buelta bat eman behar zaio, beti".

KALE INKESTA

Nola ospatzen dituzu Gabonak?

ANGELINES MUÑOZ
ARRASATE

"Etxean, familiarekin, seme-alabekin eta aitaita-amamekin elkartzen gara, eta umeekin jolastu".

JOSE OÑATE
ARRASATE

"Urteberri egunean eta Urteaharretan ondo jaten ahalegintzen gara, baina, hori bai, gehiegikeriarik egin gabe".

ANGELINES CASTELLANO
ARRASATE

"Gabonetan familia guztia elkartzen gara, elkarrekin afaldu, jolastu eta mahatsak jaten ditugu".

GORKA MULÁS
ARRASATE

"Familiarekin egon, guztiok batera abestu eta mahatsak jaten ditugu, baina karta jokoan ez gara ibiltzen, normalean".

HANDIK ETA HEMENDIK

Zer preziotan dirua

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Honekin ez pentsatu, mesedez, sentimendu gabeko tipo bat naizenik, makurra, izotza baino hotzagoa. Batak ez du bestea kentzen, nik ere badut bihozñoa. Nik ere nahi dut fermuki minbiziaren inguruko jakintza areagotzea, zer esanik ez haurrengan ematen den minbizia. Iker dezatela, sosak bidera daitezela, izan dadila oro har osasunarena gure jendarteak lehen lerroan jarriko duen borroka bat. Baina gisa horretako gaiak, haragi gorritan, telebistan hala haiztzeak erreparatu bat baino gehiago sortzen dit. Izen-abizenak jartzen dizkiete minbiziadun haurrei, pertsonalizatu egiten dute mina, jende bestela pasibo artera hedatu, hartara. Oso hunkigarria da minbiziadun haurrak ikustea, haien bizikizunak, gorabeherak, ahaleginak ikustea, ezagutzea, bizitzea. Baina izan gaitezen serioak. Twitterren irakurri bezala: Bizkaiko Diputazioak dirua eman zion EITBko asteazkeneko Maratoiarri; Supersur autobideko 3 metroren baliokidea.

[...] Jendearen borondatearen arabera ikertuko dira minbiziaren ingurukoak, edo ikertuko dira gutxiago, edo ez dira ikertuko? Ez al dagokio beste estamenturen bati horiekiko bitarteko-baliabideak jartzea? [...] Nork erabakitzen du Maratoi bakoitzean zer kausa diruz lagundu? Kausek eurek egiten ote dute zer edo zer EITBko lagunduak izateko? Ze, azken batean zer da Maratoiarekin bilatzen dena, problematika bat ezagutaraztea edota problematika horren parte batentzat dirua biltzea? Lehena bada, zergatik eskatzen da dirua? Bigarrena bada, zergatik ez dira gauzak azaltzen modu txukun, serioago, ez hain hori batean, eta ez bigarrena gauzatzeko modu argiro bideratuan? Eta biak badira helburu, bada ez dakit diruak ez ote duen dena ziprizzintzen, ez ote den tendenziosoa inondik ere diruak beste ezerekin osatzen duen binomioa. 676.743 euro bildu ziren EITBko Maratoia-n, egun bateko solidario izan ziren telebistako aurpegi ezagunekin, akaso diru biltzeko egunik onena ez den asteazken buruzuri batean. Ez dakit, ordea, zer preziotan lortu zen diru hori.

Eta Ruperrek, zer dio Ruperrek?

Mikel Iturria
http://eibar.org/blogak/iturri/

ETBk 19 legebiltzarkide jarri ditu kantuan Gabon gauean emitituko duen *Euskal Kantuen Gaua* saioan. Hautatutako abestia: *Zaindu maite duzun hori*.

Oso minduta idatzi zuen *Berria*-n Jon Eskisabelek *Gorrotu duzun Hori* artikulua. "*Euskaldunon Egunkaria*-ren itxierarekin lotuta dagoen kantua" baita *Zaindu maite duzun hori*, Eskisabelek dioen bezala. Eta ez da ahaztu behar bertako langilea izan zela Jon. Arrazoi guztia dauka.

Aritz Galarragak *Hori suertia* zutabea sinatu zuen aipatu periodikuan. *Come back, Natxo* egin du oihu Oier Aranzabalek *Zuzen*-n.

Parlamentari horietako batek, Xabier Isasik, *Euskaldun izatea zein gogorra den* apuntea argitaratu du bere blogean.

Niri, berriz, gustatuko litzaidake jakitea Ruper Ordorikaren iritzia, kantuaren egilearena, hain zuzen ere. Inon ez baitut irakurri zer dioten oñatiarrak. [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarría
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martín, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karme Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Maria Maria Oihana Kris Pruden Jon Juan Joakina



Amaia Patxi Juan Andoni Judith M.Angeles Naiara Dionisio Itziar Jesus Meri Idoia Edurne Jesus Jon Eugenio Javier Aitor Tomas Jesus Antonio Jorge Eneko Guillermo Jose Itziar Enrique Karlos Gorka Jose Isidora Begoña Herrixte Juan Mertxe Tomas Maite Fernando Angel Alizia Alaitz Miren M.Luisa Eba Sonia Juan Maite Elena Etxea Gorka Aitor Ramon Inmaculada Jabier Vicente Ignacio Manuel Laurentino Iñaki Nuria Jabier Luis Gotzon Eñaut Joxe Olaia Antonio Amaia Olatz Milagros Felix Miren Dani Begoña Iñaki Iñaki Edurne Iñigo Ion Fernando Garbiñe Jose Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar



Amaia Gabriel Alejandro Rosa Kontxi Juan Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karme Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Maria Maria



Antonio Mari Izaskun Carlos Jesus Mikaela Ibai Amaia Gabriel Alejandro Rosa Kontxi Juan Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karme Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze

Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena Dorleta Etor Amaia Asier Miguel Bixente Mikel Rexu Arantza Maria Juli Maria Maria Xabier Axier Montse Ubane Antonio Mari Izaskun Carlos Jesus Mikaela Ibai

Oihana Kris Pruden Jon Juan Joakina Amaia Patxi Juan Andoni Judith M.Angeles Naiara Dionisio Itziar Jesus Meri Idoia Edurne Jesus Jon Eugenio Javier Aitor Tomas Jesus Antonio Jorge Eneko Guillermo Jose Itziar Enrique Karlos Gorka Jose Isidora Begoña Herrixte Juan Mertxe Tomas Maite Fernando Angel Alizia Alaitz Miren M.Luisa Eba Sonia Juan Maite Elena Etxea Gorka Aitor Ramon Inmaculada Jabier Vicente Ignacio Manuel Laurentino Iñaki Nuria Jabier Luis Gotzon Eñaut Joxe Olaia Antonio Amaia Olatz Milagros Felix Miren Dani Begoña Iñaki Iñaki Edurne Iñigo Ion Fernando Garbiñe Jose Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel

Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena Dorleta Etor Amaia Asier Miguel Bixente Mikel Rexu Arantza Maria Juli Maria Maria Xabier Axier Montse Ubane



Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena

2012an GOIENA KLUBeko bazkide zareten guztioi, eskerrik asko!

Adi egon! Zure fidelotasuna eskertzeko, GAUR, Goiena telebistako Magazinea-n, 20:15ean, honakoa zozketatuko dugu:

Aisia Deba hotelean:

- 2 pertsonarentzako ostatua eta buffet-gosaria (2 gau) eta zirkuitu termala (2 bonu)**
- 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (2 bonu)**
- 2 pertsonarentzako gosaria eta relax termala (2 bonu)**

Zorte on!



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Matilde Martin | Alderdi sozialistako zinegotzia (1999-2007)

- ▶ Udal ordezkari izan aurretik lau urte egin zituen auzo alkate moduan, Makatzenan
- ▶ Gizarte zerbitzuen arloan egin zuen lan, eta Hirigintzan
- ▶ Bere alderdiarekin Polmetasa auzian bat ez etortzeagatik utzi zion politikan jarduteari

"Politikan egindako urte gogorrek erakutsi zidaten nor zen benetako laguna, eta nor ez"

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Matilde Martinek (1952) 2007an utzi zion alderdi sozialistako zinegotzi izateari. Baina, duela urtebetera arte bizkartzainekin egin du eguneroko bizimodua. Ez du udaletxean egindako urteez oroitzapen onik: "Mehatxuak jaso nituelako, eta etxekoek ere asko sufritu zutelako". Eta ez du gortzen bi legegintzaldiren ostean txarto amaitu zuela bere alderdiarekin, edo hobe esanda, ardura-dunarekin: "Pasatu nituen guztiak ez zuen merezi izan, garbi daukat hori. Egungo egoeran, oster, posible da politika egitea".

Zelan gogoratzen duzu udaletxera sartu zinen lehen eguna?

Ez dut aparteko oroitzapenik, lehenago ere ohituta nengoelako udaletxera joaten, *Distrito 33* delakoan, auzo alkate moduan. Gogoan dut uda zela, ekainean izan ziren hauteskundeak, eta gogoan dut, baita ere, momentuan jabetu nintzela aurrerantzean ardura handiagoak izango nituela.

Zerk animatu zintuen politikan jardutera?

Herritarren arazoak konpontzeko aukera izatea gauza handia iruditzen zitzaidan. Auzo alkate moduan horretan jardun nuen lau urtez, eta zinegotzi izateko eskaini zidatenean pentsatu nuen udaletxean aukera handiagoak izango nituela lan hori egiteko. Izan ere, horixe da politikatik gustatzen zaidana. Eta uste dut aitona zena-rengatik hartu dudala politikarako zaletasuna.

Eta, amestutako lan hori egiteko aukera izan zenuen?

Ez nahi moduan. Gogoan dut lehenengo urtean normaltasunaz egin genuela lan, baina 2000 urtetik aurrera gauzak okertzen hasi ziren.



Martilde Martin, egubakoitzean, Biteri plazan. | XU.

Giroa gaiztotzen hasi zen, ETaren mehatxuak jaso genituen, mehatxuak kalean, telefono deiak etxera, gure kontrako pintadak herrian, eta etxekoengatik sufritzen nuen gehien. Sasoi hartan jazarpen handia izan nuen, eta gogorra da ikustea hainbat lagunek zelan ematen dizuten bizkarra. Orduan ikusi nuen zeintzuk ziren benetako lagunak. Orohar, bizitza erabat aldatu zitzaigun.

Gainontzeko zinegotziekin ze harreman zenuen?

Denetik zegoen. Ezker abertzale-

"Ez dut oroitzapen onik, herrian jazarpen handia izan nuen"

"Oraingo egoeran posible da politika egitea; gure sasoian, ez"

koekin ez nuen harremanik. Pentsa dezakezun moduan, egoera hartan ezin nuen eurekin inongo harremanik izan. Bigarren legegintzaldian Inazio Laguntza egon zen alkate, eta harekin hainbat gauza elkarlanean egin genituen, errazagoa zen.

Autokritika eginez gero, hartutako ze erabakirekin ez zaude gustura?

Polmetasa auzian hartutakoaz, nik parte hartu nuen azken bilkuran izan zen. Polmetasako promotoreak exijitu zigun Garagar-tzako lantegi berria berak egin

ahal izateko onartu behar geniola San Andresen garaje mordoia egiteko baimena. Ni Polmetasako langileen egoeratik nengoan kezkatuta, enpresa kanpora eramateko zuten arriskua zegoelako. Baina, nire alderdiak ez zuen existentzia hori onartu nahi izan, eta langileekin egon ostean ere, neuk alderdiaren boto berbera eman behar izan nuen, alderdiaren diziplina. Erabaki haren kontra nengoelako gutun bat irakurri nuen, eta alderdi sozialistarekin izandako hartu-emanak hor amaitu ziren.

Eta harro zauden erabakiaz?

Parlamentuan alderdi sozialistak EAJren aurrekontuak onartu zituen Debagoieneko Ospitale berria egiteko baldintzarekin, eta gauza oso positiboa izan zen bailara honendako. Ordura arte ospitalean egindako obra guztiak *partxeak* baino ez ziren izan, eta halako ospitale baten beharra zegoen. Horrekin batera, arlo sozialean aurrerapen handiak egin genituen. Besteak beste, tratatu txarrak jasandako emakumeei laguntzeko araudiak onartu ziren, eta mekanismoak ezarri: etxebizitzak emakume horiendako, abokatuak...

Isasias Carrascoren hilketa inflexio puntua izan zen askorendako.

Guretzako kolpe gogorra izan zen, sekulakoa. Ordurako ez genuden udaletxean, baina hil baino aste-bete lehenago berak bizkartzain barik ibiltzeko hartutako erabakiaz berba egin genuen biok. Ez zuen beharrik ikusten. Uste dut hilketa hura ezker abertzaleko askorendako ere onartezina izan zela. Orain politika egiteko dagoen giroak ematen dit inbidia, lan egin daitekeelako.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak



HERRIAK



Eskoriatzako etxeetako teilatuetan ez da antenarik ikusten; izan ere, seinalea jasotzeko garaian ez dago inongo antenarik. | A.T.

ESKORIATZA

Teleskoren banaketa sarearen erabilera neurtuko du Udalak

- ▶ Helburua da jakitea zenbat eskoriatzarri interesatzen zaien telebanaketa sare hori
- ▶ Hobekuntzak behar ditu udal telebanaketa sareak eta inbertsioak egin beharko dira

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Eskoriatzan gaur egun telebista bi modutara ikus daiteke: Telesko udal telebanaketa sarearen bitartez edo operadore pribatu baten bitartez (Euskaltel, Image-
nio, Canal+...).

Udal sarearen mantentzerako 2012an ordaindu beharreko tasa 18,30 euro da eta kopuru hori telebista sarea erabiltzeagatik ordaintzen zaio Udalari; hau da, eskuragarri dauden telebista kanalen seinalea kable bidez ikusteagatik (ETB1, ETB2, Antena3, Tele5, Telesko...). Ez da Telesko kanala bakarrik ikusteagatik ordaintzen. Hauxe esan digu Arantxa Untzuetak, Kultura teknikariak: "Herritar asko nahastu egiten dira sarearekin eta telebistarekin izen bera dutelako. Etxe askotan operadore pribatua jarri zutenean, baja eman zuten Teleskon, eta pentsatzen zuten Telesko telebista bakarrik zela, eta orain arte Udalak ez du ezer berezirik egin, nahiz eta pertsona horiek jarraitu duten

erabiltzen Udalaren banaketa sistema hori".

Orain, Udalak jakin nahi du zeini interesatzen zaion Telesko telebanaketa sarea izatea. "Izan ere, kontziente gara eta orain ikusten ari gara jende askok eta askok sarea erabiltzen duela, baina ez duela kuotarik ordaintzen, baja eman duelako. Guk telebistako seinalea ez dugunez moztu, jarraitu egiten dute sarea erabiltzen", azaldu du.

Sareak hobekuntza beharra

Udal telebanaketa sare horrek hobekuntzak behar ditu: "Zahartuta dago, leku batzuetan kablea ez dago ondo eta seinalea ez da egoki iristen etxe batzuetara", dio Untzuetak. Horregatik, hobekuntzak lortzeko inbertsio garrantzitsuak egin beharko dira. Hobekuntza horiek eginez gero, zerbitzu hobea eskaini ahal izango da eta telebista kanal gehiago ikusi ahal izango dira. Baina inbertsioek zenbaterainokoak izan behar duten erabakitze

eta banaketa sarea zenbateraino den beharrezkoa jakiteko, neurketa bat egingo dute Eskoriatzako Udaletik.

Beharrak aztertzen

Erabakiren bat hartu aurretik, beraz, Udalak jakin nahi du gaur egun udal telebanaketa sarea zenbat etxetan erabiltzen den edo zenbateraino erabiltzeko interesa.

Datu horiek hilaren 20ra arte jaso nahi dituzte. Horretarako, etxeetako atarietan paper bat jarri dute eta bertan honakoa

adierazi beharko du bizilagun bakoitzak: Teleskon alta emanda dagoen, hau da, kuota ordaintzen duen eta jarraitzeko asmorik duen; alta emanda ez badago, alta emateko eta sarea erabiltzeko asmorik duen; edo ez duen sarea erabiltzeko interesik beste telebista zerbitzu bat kontratatuta duelako edo ez duelako zerbitzu hori behar.

Gogoratu behar da Teleskoren banaketa sarean alta emanez gero ordaindu beharreko kuota 73,46 euro dela 2012an eta hori alta ematerakoan bakarrik ordaindu beharko dela. Urteko mantentze-kuota, berriz, 18,30 euro da 2012an, eta hori urtero ordaindu beharreko kantitatea da.

Hortik aurrera, Eskoriatzako Udalak telebanaketaren sarearen behin betiko errolda osatuko du, eta ondoren, errolda horretan alta ez diren etxe guztietan telebista seinalea moztuko du. Ordaintzen ez dutenek, beraz, telebista ikusteko zerbitzu pribatua kontratatu beharko dute.

Telesko telebista

Bestalde, legealdi honetan Teleskoren inguruko hausnarketa egiteko beharra ikusi zuten Udalean. Horren harira, urri amaieran bilera egin zuten herritarrekin.

Udalaren proposamena izan zen bi komunikazio zerbitzu eduki beharrean, bakarrik integratuta izatea eta hortik bideratzea komunikazio guztiak. Hauxe adierazi zuten Beñat Herce alkateak: "Telesko fundazio bezala alde batera utzi eta udaletxean bertan komunikazio departamentu bat sortzea aztertzen gabilta. Handik bideratuko lirake komunikazio denak eta telebanaketa zerbitzua ere bertatik eskainiko litzateke". Komunikazio zerbitzua webgunean integratua egotea ere proposatu zuten Udaletik, bertan zuzeneko emanaldiak, berriak eta artxibo bideografiko historikoa txertatzeko eta analizatzen ari dira, baita eskaini ahal diren beste zerbitzu gehigarri batzuk ere; esaterako, Internet horniketaren zerbitzua.

ESANAK

"Ordaintzen ez duten pertsonen seinalea moztuko zaie"

ARANTXA UNZUETA
KULTURA TEKNIKARIA

ARRASATE

Santamas gogoa dutela erakutsi dute arrasatearrek aste bukaeran

- ▶ Jendetsuak izan dira jai aurreko ekitaldiak; besteak beste, dantzari txikien erakustaldia
- ▶ Goikobaluren eta Arrasate Musikalen Gabon kontzertuak bete egin zuen San Frantzisko eliza



Goikobalu Abesbatza eta Arrasate Musikaleko txistulari banda nagusia, kontzertuan. | IMANOL SORIANO



Lorenzo Altube, semearekin. | L.K.

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Santamasetarako ederki berotu dute giroa arrasatearrek aste bukaeran. Jendetsuak izan ziren ekin-tzak.

Lorenzo Altuberi eskerrak
Zapatuan inauguratu zuten Harresi aretoan euskal musika-tresna tradizionalen erakusketa. 30 urtean Lorenzo Altubek denetariko tresnak egin zituen, eta ondarea berreskuratzeko lan horrengatik omenalditxoak egin zioten Udalak, Santamas Komisiñuak eta seme-alabek zein ilobek. Bi momentu bereziki hunkigarriak izan ziren: bat, iloba guztiek bertsoa abestu ziotenean, eta bestea, Kepa semeak txalaparta jo zuenean.

Zapatuan ere, Arrasate Musikaleko Txistulari bandek eta Goikobaluko abesbatza gazte eta helduek Gabonetako abesti herrikoiak eta euskal musikarrienak eskaini zituzten. San Frantzisko eliza lepo bete zuten herritarrek.

Ehun ume dantzan

Domekan, Txikitxu taldeko 60 ume eta Lore Gazteak taldeko 40k ikusleak txaloka eta animuak ematen ipini zituzten Biteri plazan 12 txistularik lagunduta egin zuten emanaldian. Gorulari mistoa, txakarrankua, esku-dantza, jorrai dantza, makil txikiakikoa, banakoa, arku dantza, txantxoak, soso dantza, txulalai eta arin-arin eta fandangoa dantzatu zituzten.



Mutikoak, jorrai dantza egiten domekan. | L.K.



Egape dantza taldea hasi zen zapatuan kaleak girotzen. | SERGIO AZKARATE



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



ROOMBA 620
350 € **iRobot**



A++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA F-6012
340 € **FAGOR**



A++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA F-7212
385 € **FAGOR**



A+++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA F-7212X
450 € **FAGOR**




A+++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA F-8212
430 € **FAGOR**



A++ Saikapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13
399 € **FAGOR**




8 Kg
KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA SF 820CE
399 € **FAGOR**



INDUKZIO PLAKA IF-33BS
430 € **FAGOR**




LABE PIROLITIKOIA 6H-760AX
450 € **FAGOR**



INDUKZIO PLAKA HK-633220XB
450 € **AEG**



LABE PIROLITIKOIA BP-3313091M
475 € **AEG**



INDUKZIO PLAKA EH651TK11E
465 € **SIEMENS**



LABE PIROLITIKOIA HB7415AS551E
490 € **SIEMENS**

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabera energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >> 45%
B >> 25%

Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

ARETXABAETA

Murrukixoren 25. urteurrenean, 60 lagun batu ziren afaritara

Afalostean, elkartearen historia batzen duen CDa ikusi zuten

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABAETA
Aretxabaleako Murrukixoko mendi elkarteko bazkideak eta lagunak Taberna Berrin elkartu ziren joan den zapatuan, afaritara, Murrukixok abenduan 25 urte betetzen dituela ospatzera. Bilera polita egin zuten 60 lagunek, izan ere, elkartea sortu zutenak, betiko lagunak eta kanpoan bizi diren aretxabaletar batzuk propio etorri ziren. Afalostean, argazki zaharrek eta berriek osatzen zuten bideoa ikusi zuten, Murrukixoren historia erreparatzeko. Argazki horiekin CDa egin dute, eta aurrerago salgai ipintzeko asmoa dute.

Afaldu bakarrik ez, elizateetako irteera ere egin zuten egun horretan: 20 bat lagun batu ziren eta lau ordu pasako ibilaldia egin zuten. "Irteera polita egin genuen; tartean, berreskuratu diren bide zahar batzuk ikusi genituen", dio Murrukixoko elkarteko kide eta sortzaileetako batek, Iñaki San Miguelek.

Hiru hitzaldi

Abenduko aste bukaera guztietarako antolatuta dute ospakizun



Kontu kontari ibili ziren Taberna Berrin Murrukixoko kideak. | IMANOL SORIANO

nen bat Murrukixoko lagunek. Aste barrurako ere bai: Mendi Asteko hitzaldiak egingo dituzte martitzenean (Txile da gaia), eguaztenean (Kanada) eta egubakoitzean (Dolomitak), Arkupe (19:00); eta datorren zapa-

tuan, Leixargaratera joango dira. Bitxikeria gisa, afaria ez dute Murrukixoren urtebetetze egunean egin, astebete lehenago baizik, Murrukixoko elkartearen 1987ko abenduaren 22an sortu zuten-eta.

BERGARA

Bergarako bi bikote sailkatu dira lurraldeko mus kanporaketarako

L.K. | BERGARA

Zapatuan jokatu zen Euskal Herriko IV. Mus Txapelketako Bergarako kanporaketa, eta bi bikote sailkatu ziren Gipuzkoako kanporaketak jokatzeko, otsailaren 23an, Seguran.

Hamahiru bikotek hartu zuten kanporaketan parte, eta hauek izan ziren emaitzak: txapeldunak, Ibai Elortza eta Unai Etxeberria (200 euro eta bi botila ardo); txapeldunordeak, Karmelo San Torcuato eta Ignacio Aristi (100 euro eta bi botila ardo); hirugarrenak, Xabi eta Karlos (sari gisa, bi txuleta eta botila bat xanpan eman zieten); eta laugarrenak, Edu eta Teo (untxia eta botila bat xanpan jaso zuten).

Parte-hartzaile guztiei botila bat ardo eman zieten.

3.000 euro jokoan

Herrialdeko kanporaketara sailkatzen direnak Euskal Herriko finalera pasatuko dira, eta martxoaren 9an jokatu dute txapela Agurainen. Sari ederrak izango dira jokoan: txapeldunendako, garaikurra, 3.000 euro eta Karibera lau lagunendako bidaia, gastu guztiak ordainduta; txapeldunordeendako, garaikurra, 1.500 euro eta bi lagunendako Kanariar Uhartetara bidaia; hirugarrenendako, 750 euro eta lau lagunendako asteburuko egonaldia; eta laugarrenendako, 500 euro eta euskara ikasteko bi matrikula.



Sari banaketako une bat. | GOIENA

Ez dago ezer indarkeria matxistak adina emakume hiltzen duenik. Eskubidea dugu beldurrik gabe bizitzeko, indarkeriatik libre bizitzeko.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna**
egiteko asko

www.berdintasuna.tv



Hiruatzek jarritako mahaia, Aretxabaletan. | OIHANA ELORTZA



Aranzadiren jostailu bilketa, Bergaran | IMANOL SORIANO



Elkar Heziren Elkartasun Taupadak izeneko azoka, Oñatin | IMANOL SORIANO

**JOSEAN LARRAÑAGA**
CARITAS - OÑATI

"Hezkuntzarekin lotutako proiektuak ditugu Malin; eskolaratzeko laguntzak lortzen saiatzen gara baliabiderik gabeko ikasleendako".

**AMAIA GOITIA**
BUBULUM - OÑATI

"Nikaraguan ditugu proiektuak. Batzen dugun diruaren %80 urritasunak dituzten ikasleendako izaten da, eta beste %20a, sexu erasoak jasan dituztenendako".

**ANA URDANGARIN
ETA LARRAITZ IZAGIRRE**
ETIOPIA - USURBIL

"Etiopiako Wukro herriari laguntzeko da gehienbat. Hiru hortz-klinika zabaldu ditugu han. Bestalde, kainaberak ere landatu behar ditugu, luiziak ekiditeko".

**AIORA PADILLA
ETA OIER SARASUA**
HIRUATX - ARETXABALETA

"Batutako ditua Harremaneko dendarako izango da. Momentu honetan, Brasilgo enpresa batekin batera ari gara lanean, euren kooperatiben lana optimizatzen".

DEBAGOIENA

Elkartasunak erantzun ona izan du zapatuan egindako hiru azoketan

Elkartasunari lotutako azoka bana egin dute Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Elkartasun mezua zabaltzeko helburua izan dute Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran zapatuan egindako azokek, herri bakoitzak bere erara. Oñatin, esaterako,

justizia sozialarekiko elkartasuna zabaldu gura izan du Elkar Hezi ikastetxeak eta zapatuko azokak amaiera eman dio gai horri buruz abenduko lehen hamabostaldirako antolatutako dituzten

ekitaldiei. Zentzu horretan, Euskal Herri osotik etorritako 18 gobernu kanpoko erakunde bete zuten Oñatiko plaza. Euren proiektuen inguruko informazioa eta hainbat produktu ekarri ziu-

ten, saldu eta batutako dirua elkartasun ekimenetara bideratzeko: karterak, kamisetak, gailetak, mailotak, txokolatea...

Aretxabaletan, bidezko merkartzako produktuak ezaguta-

razi gura izan du Hiruatzek, eta mahai bat jarri zuen produktu horiekin, Gabon bezperan urtero egin ohi duen moduan.

Bergaran, berriz, jostailu bilketa egin zuten, Aranzadik antolatuta, Gabonetarako egin duten elkartasun kanpianan.

OÑATI

Laguntzaileak izan dituzte Hipo eta Tomaxek Oñatin



Escolako ikasleek egindako eskularen azoka jarri zuten. | AITZIBER ARANBURUZABALA

O.E./A.A. | OÑATI

Hipo eta Tomax pailazoak Oñatiko Institutuan egon ziren zapatu arratsaldean, hango Errekalde herri eskolako guraso elkarteak gonbidatuta. Hipok, min hartu zuen bizikletan, eta medikuarengana joan zen; medikurik ez, ordea, eta Tomax aguazilak hartu zuen mediku papera. Aretoa bete egin zen, eta arretaz eta barrez jarraitu zuten istorioa han zeudenean. Umeak, bide batez, semaforoaren erabilerak bere garrantzia duela jabetu ziren.

Aurretik, 4. mailako ikasleek egindako eskularen azoka jarri zuten Institutuko arkupetan. Hilaren 21ean berriro jarriko dute, eskolaren Gabon festan. Pailazoak bukatu zirenean, 60 kilo gaztina erre zituzten, sagardoarekin eta freskagarriekin batera eskaintzeko.



Hipo, bizikletan min hartuta, eta Tomax, mediku lanetan. | AITZIBER ARANBURUZABALA

Iñaki Arriaga | Udaltzainburua

"Arrasaten delinkuentzia ondoko herrien antzeko proportzioetan mugitzen da"

Baina segurtasuna bermatzeko, arma zorrotzen kontrako dozena bat txaleko jasoko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ekaina ezkerro da Arrasateko udaltzainburu Iñaki Arriaga (Soraluze, 1960). 35 udaltzainen ardura du egun, baina badu eskarmentua; besteak beste, udaltzainburuen elkartean dago. Oraindik Arrasate eta arrasatearrak ezagutzeko fasean dago murgilduta.

Kanpotarra izatea eragozpen handia izan al da zuretzako?

Beti da eragozpen txiki bat. Herria eta herritarrak ez dituzu behar den moduan ezagutzen baina, era berean, nire lana kudeaketa lana da gehienbat. Ni ez naiz kalean ibiltzen beste udaltzainen antzera; udaletxean bileretan ez banago gehienetan bulegotik egiten dut lan. Hori bai, epe motzerako helburua izango da niretzat Arrasate eta arrasatearrak ezagutzeta.

Heldu nintzenezan ez zen erraza izan: herria berria, Udala berria eta Udaltzaingoaren antolamendua ere berria. Hau da, jende berria leku guztietan. Nire lehen lana izan zen Udalaren zein Udaltzaingoaren antolamendua ezagutzeta. Izan ere, herri bakoitzak bere berezitasunak dauzka. Oraindik ere ezagutze eta murgiltze prozesuan ari gara.

Lapurretak azkenaldian baretu egin direla dirudi. Zer esan zenezake?

Gabonetan gorakada txiki bat egoten dela herri gehienetan. Azken asteetan etxebizitzetako eta komertzioetako lapurretak ez dira izan apenas, baina bai autoetan. Hainbat kotxetako kristalak apurtu dituzte barruko zerbait lapurtzeko. Baina hori ere ez da hemen bakarrik gertatu, beste udaltzainburu batzuk



Iñaki Arriaga udaltzainburua bere bulegoan, Udaltzaingoak Nafarroa etorbidean duen egoitzan. | JOKIN BEREZIARTUA

hala berretsi didate. Hala ere, lapurretak normaltasun baten barruan kokatuko nituzke.

Zer aholkatuko zeniguke?

Etxebizitzetan gertatzen diren lapurreta gehienak sarrailari buelta bat eman ez izanagatik gertatzen dira. Atea beti itxi behar da sarrailari buelta bat emanda. Eta adinekoendako beste aholku bat: bankura diru bila joaterakoan dirua unean bertan gorde. Hau da, diru kopuru altuak denon aurrean ez erakutsi. Baina ez dago asaldatzeko motiborik, Arrasateko delinkuentzia maila ez da beste herrie-

"Gabonetan gora egiten dute lapurretek, herri gehienetan"

takoa baino kezkarriagoa.

Lapurretak ekiditeko zer egiten duzue?

Gurea prebentzio lana da batez ere, baina askotan ez da nahikoa izaten. Beraz, herritarrei deitzen diegu edozer berezia ikusten badute lasai asko deitzeko, horretarako gaude-eta. Ez izan kezkarik ezer ez dela uste baduzue ere, kalean dauden udaltzainei ez zaie ezer kostatzen bertaratzea.

Zeintzuk dira udaltzain baten betebeharrak eguneroko lanean?

Hiru arlo bereizten dira: administratiboa, trafiko-arloa eta arlo penala. Polizia administratiboaren betebeharrak dira, besteak beste, ordenantzak kontrolatzea, huts urbanistikoak jaso eta bideratzea, obren lizentzietan jarraipena egitea eta bide okupazioarako baimenak ikustea. Trafiko-arloan, berriz, aparkalekuen, trafiko oztipoen eta utzitako zein seguru gabeko

ibilgailuen kontrola egiten da, besteak beste. Ez hori bakarrik: egoera berezietan zirkulazioa bideratu behar izaten dugu. Azkenik, arlo penalean askotariko salaketak bideratzen ditugu.

Arlo penalean izan al duzue gertakari aipagarriak azkenaldian?

Azken hilabeteetan lau atxilotu izan ditugu trafiko segurtasunaren aurkako delituagatik. Autoa gidatzeko alkoholaren eraginpean zeuden gidatzen; azken hiruek gehienezko tasa hirukoiztu zuten. Hori ikustean Granadako kasua etortzen zait burura: 27 urteko

"Isunak ez ditugu dirua biltzeko jartzen, zerbitzu on bat emateko baizik"

gidari batek aurrez auto bat jo, eta gurasoak zauritu eta bi haur hil zituen. Lan horretan udaltzainen papera goraiatu egin behar da, ez da-eta batere erraza izaten.

Bestalde, beste bi atxilotu izan dira urrutze agindua ez dutelako bete. Bat atxilotzeko, gainera, Gasteizeraino iraun zuen jazarpenak. Hor lan izugarria egin zuten udaltzainek.

Nola aparkatzen dugu Arrasaten?

Beste herrietan moduan. Gaizki aparkatutako autoak oztipoa edo arriskua suposatzen badu zorrotzak izango gara. Zebra bideak, espaloiak... kontuan hartu behar da gune horiek oinezkoendako direla eta eurak direla babes gutxien dutenak. Hori ez bada errespetatzen garabi zerbitzuarekin auto horiek kendu egin behar dira.

Gidariei dei egin gura diet batez ere oztipoa edo arrisku izan daitezkeen lekuetan ez aparkatzeko. Era berean, argi geratu dadila ez dugula dirua biltzeko asmoz egiten, zerbitzu on bat emateko baizik.

Garai baten entzun zen kalean udaltzainek pistolak eramango zituztela, baina hori gezurtatu zen. Zer esan zenezake?

Sartu naizenetik ez dut pistolen gainean ezer entzun. Baina txaleko berriak bai jasoko ditugu. Arma zorrotzen kontrakoak izango dira, interbentzio batzuetan agertu izan dira-eta labanak. Espero dugu urtarrilerako dozena bat jasotzea.

Hori bai, ez da asmoa alarma piztea, Arrasaten delinkuentzia ondoko herrien antzeko proportzioetan mugitzen delako.

Zapatua ezkerro erabilgarri dago sauna lehor berria

Urte asko zituelako eta jende askok erabiltzen duelako aldatu dute; lanek astebete iraun dute

J.B. | ARRASATE

Musakolako kiroldegiko sauna lehorra zapatua ezkerro dago erabilgarri. Aukeak 2012ko plangintzaren helburuen artean kokatu zuen sauna berria irekitzearena eta asteen eremu guztia "beharezko lanak" zirela-eta itxita egon ostean, zapatuan ireki zuten sauna lehor berria.

Beraz, astebete iraun dute zaharberitze-lanek: "Zaharrak urte asko zituen eta bazegoen beharra aldatzeko. Gainera, jende askok erabiltzen du eta ere-

mura heldu bezain pronto igarriko dute aldean", adierazi dute Aukeako arduradunek.

2013rako hiru ikastaro berri

Bestalde, ohiko eskaintzaz gain, 2013rako Aukeak hiru ikastaro berri eskainiko ditu. Ikastaro horiek asteen bi egunetakoak izango dira, saio bakoitzak ordubeteko iraungo du eta abontuendako prezioa 37'60 eurokoa izango da hileko -ez abonatuak hamar euro gehiago-. Lehena,



Sauna lehor berria zapatua ezkerro erabil daiteke. | J.B.

gimnasia terapeutiko ikastaroa 50 urtetik gorakoei eta bizkar-hezurreko min eta patologia ezberdinak dituztenei dago zuzenduta. Bestalde, gimnasia abdominal hipopresiboaren hastapen ikastaroa bi hilekoa izango da.

Fitness gelako hastapen ikastaroan, azkenik, egoera fisikoa mantendu edo hobetu nahi duten pertsonen autonomia osoz *fitness*-eko gela erabiltzeko irizpideak ikasteko saioak ere antolatu dituzte.

"Etxean" aurkeztuko du Never Surrender-ek diskoa, hilaren 21ean

Durangoko Azokako Ahotse-nea gunea bete eta azokan bertan espero baino disko gehiago saldu ostean -360 bat kopia-, laukote arrasatearrak egubakoitz honetan, hilak 21, aurkeztuko du ofizialki *Bide zuzenetik oker* disko berria. Arrasateko gaztetxean izango da, Andoni Inurritegik Arrasate Irratian esan duenez, "etxean". Santamasetako egitarauaren barruan sartu dute kontzertua eta beraz, sarrera ez da ordaindu beharko. Ez da beste gonbidaturik izango, Never Surrenderren gaua izango da. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta taldekideen arabera, ordu eta erdi inguruko zuzenekoa izango da.

Gazteen euskara joerak landuko ditu Amonarrizek

'Lau begiratu euskararen norabideari' berbaldi saioaren azken hitzordua

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eguaztenean emango diote amaiera AEDk antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* berbaldi zikloari. Lorea Agirre, Pako Aristi eta Jon Sarasuaren ostean, Kike Amonarriz izango da protagonista kasu honetan, eta *XXI. mendeko euskaldunak. Nola ari diren aldatzen gauzak, kamarada* izeneko berbaldia eskainiko du.

"Adin talde guztiei begirako gogoetak izango dira, baina behar bada aldatetarik nabarmenenak

haur eta gazteen artean sumatzen dira. Azken urteetan adin tarte horien hizkuntza produkzioak, diskurtsoak eta beste jarraitu ditut". Amonarrizek gidatzen duen Mihiluze saioak edota ikastetxeetan emaniko hitzaldiek lagundu diote jarraipen hori egiten. "Ikuspegi panoramiko horretatik jasotako datuen inguruko hausnarketa landu bat eskainiko dut berbaldian".

Etorrizunari begira

Amonarrizek jarraitu ditu hitzal-

di zikloaren baitako aurreko hitzorduek. "Hausnarketa garai batetan sartuta gaudela Iruditzen zait, fase politiko-sozial berri baten atarian gaudela eta Jon Sarasuak bere hitzaldian esan zuen bezala ez gaude osasuntsu, baina herri honek egin duena ikaragarri da. Bi sentsazio horiek baditugu, gero bakoitzaren posizio, ikuspegi zein aldarreen arabera botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusiko dugu.

Atzera begirako horretan irizti ezberdinak egon arren, nazioarteko ikuspegi batetik gurea bezalako herrien artean gu gara gehientsuen aurreratu dugunak, baina zer nolako hutsuneak ditugu ere ikusten dugu."

Norabide horretatik jorratu du gaia, baina biziraupenaren paradigmatik: "Nola lortu dugu lortu duguna, horren herri txikia, menperatua eta mespretxatua izanda".

Amonarrizek azken hamar kadak hartuko ditu oinarri eguazteneko berbaldian eta gogoetara bultzatuko du entzulea: "Zertan aldatu da gure historia soziolinguistikoa azken urteetan? Egoera anitzak topatzen ditugu eta nahikoa da Arrasateko plazara gerturatzea tipologia soziolinguistikoa asko ugaltu zaizkigula ikusteko".

Guzti hori erakusten saiatuko da Kike Amonarriz, etzi, Kulturateko areto nagusian, 19:00etaitik aurrera.



Kike Amonarriz. | GORKA PALAZIO

Gai zerrenda luzea aurretik, gaur, Tokiko Gobernu Batzarrak

Gaur elkartuko da Tokiko Gobernu Batzarra, 16:00etan. Gai zerrenda luzea izango du lantzeko, besteen artean, Zerrajera kalean horma berregiteko plana onartzea, Kutxabankek Kurtzetxiki mendian egin behar diren lanei buruzko proposamena edota udalaren mezularitza zerbitzu esleipena kontratu bidez ixtea.

'Twist' eleberria protagonista, biharko literatur solasaldietan

Harkaitz Canok idatzitako nobela izango da biharko Kulturaren egungo den literatur solasaldiaren protagonista. Mikel Ayerbek zuzenduko du ohi bezala saio berria, 18:30etik 20:30era. Torturan oinarritutako liburua da Canok idatzitakoa, eta Euskadi Literatur Saria eman diote idazle lasartearrari 2012an eleberriarengatik.

Gorantz Erori taldearen emanaldia egunean

Lor taldetik sortuta, Koolturen egitarauaren baitan joko dute elorriarrek egunean 22:00etan

Z.V.D.M. | ARRASATE

Mursegoren doinuek hartu zuten pasa den egunean Arrasateko Gaztetxea. Berrogeita hamar lagun inguru bertaratu ziren Maite Arroitiajauregi eibartarraren esperimazioaz gozatzen. "Adin guztietako jendea egon zen, batez ere emakumeak".

Mursegok ez ditu bi kontzertu berdin eskaintzen. Koolturen ere hala izan zen, Chavela Vargas handiaren zein DUT taldearen bertsoak eskaini zituen.

Gorantz Erori

Gorantz Erori Elorrioko taldea izango da Kooltur Ostegunetako hurrengo gonbidatua. Antolatzaileek taldeari buruzko xehetasun gehiago eman dizkigute: "Proiektu hau orain dela gutxi arte Antton moduan zen ezaguna, baina

gero eta talde izaera handiagoa hartu duenez Gorantz Erori moduan hasi dira ezagutzera ematen".

Elorrioko Lor taldeko Lande-rrek eta Anttonek sortutako bikote proiektua zen hasiera batetan eta azkenean, talde bihurtu da. "Eta antzematen bada ere bakar-lari trazako proiektua zela, kantuek instrumentazio eta garapen handia dute".

Antton izenarekin, "*Gorantz Erori* izeneko disko dotorea" kale-ratu zuten iaz. "Pop-rock *gitarroa* eta *new wave*-eroa aurki dezakegu". Diskoa entzun dutenek, oso melodia landua egiten dutela esaten dute, "eta asko transmititzen duten euskarazko kantuek aurki daitezke bertan".

Hori bera eskaintzera etorriko da Gorantz Erori egunean.



90 urte baino gehiagokoek iaz jasotako omenaldia. | JOKIN BEREZIARTUA

Abaroako nagusienak omenduko dituzte bihar

Bestalde, Iturbideko egoileek musika hitzordua ugariz gozatuko dute datozen egunotan

Z.V.D.M. | ARRASATE

Gabonak gertuago daudela eta, Iturbide egoitzakoek ere edukiko dute zer egin. Egitarau zabala prestatu dute egunotarako: kontzertuak, txokolate zein gaztaina erre jana, karta eta bolo txapelketak... Baina batez ere musikaz blaituko da zaharren egoitza.

Musika hitzorduek nagusi

Ez da kanturik faltako egunotan Iturbiden. Gaur Gabon kantak abestuko dituzte 17:30ean; bihar eta etzi berriz, haurren bisita jasoko dute egoileek: umezaintzako neska-mutilak joango dira aurrena kantatzera, eta etzi, Olarte ikastolako txanda izango da. Bi hitzorduek 10:00etan izango dira.

Bihar arratsaldean, Oñatiko abesbatzakoek emanaldia eskai-

niko dute, 17:30ean. Hilaren 20an berriz, Al-Andaluseko koroaren emaldi alaiatzatuzteko parada izango dute, 17:00etatik aurrera.

Abenduaren 23an, Big Band taldearen kontzertua antolatuko dute, 17:00etan eta abenduaren 24an Goikobaluk bisitatuko du Iturbide, 17:00etan hasita.

Abaroako nagusiei omenaldia

Bestalde, 90 urte baino gehiagoko Abaroako bazkideek omenaldia jasoko dute urtero bezala "47 emakume eta 23 gizonen jasoko dute omenaldia aurten. Guztientzako oparia egongo da". Hala esan digu Abaroako Jose Rivierek.

Bihar egingo diete, Iturbide egoitzan izango da 10:00etan eta 12:00etan berriz, Etxaluzeko 1. go solairuko E aretoan.

Ttunttuna, alboka edota txalaparta ezagutuz

Euskal musika tresnetan aditua da Altube eta etzira arte Harresi aretoan erakusketa egingo du

Z.V.D.M. | ARRASATE

Aurtengo Santamasetan euskal musika tresnek toki berezia edukiko dute. Izan ere, artisauferian lanbide honetan diharduten beharginak zuzenean lanean ikusteko aukera egongo da. Baina abenduaren 22a baino lehen, gaiarekin zerikusia duen erakusketa ikusgai dago ikusgai, Harresi aretoan.

Erakusketa Harresi aretoan

Arrasaten ezaguna da Lorentxo Altube, bere bizitzaren zati handi bat euskal musika instrumentuei eskaini dion gizona. Horien gaineko jakintza partekatatu izan du herritarrekin, eta askok Altuberi esker ttunttuna zer den jakin dute, edo txalaparta zein dultzaina xehetasunez ezagutu dugu...

Harresi Aretoan erakusketa ireki zuten zapatuan, eta etzira bitartean ikusgai egongo dira Altuberen tresna kuttunenak. Arratsalde bisitatu daiteke erakusketa, 17:30etik 20:30era, hain zuzen.

Oreka Tx-en ikastaroa

Gainera, modu berezi batetan emango diote amaiera erakusketari. Azken egunean, hilaren 19an, Oreka Tx taldeko musikari ezagunak bertan izango dira eta hoberen ezagutzen duten tresna, txalaparta, herritarrei gerturatuko diete. Hala, ikastaroa eskainiko dute. Antolatuzaileek, guztiei irekita dagoen hitzordua dela eman dute jakitera, eta gonbitea luzatu diete herritarrei erakusketa eta ikastaroan parte hartu dezaten.

Apaingarriak merke-merke eta iraunkor, gainera

- ▶ Bergaran eta Oñatin modu alternatibo batetan, hau da, herritarrek egindako apaingarriekin girotuko dute herria Gabonetan
- ▶ Besteen artean, edalontziekin, CDekin eta botilekin gauza ikusgarriak eta politak egin daitezkeela erakutsi dute bi herrietan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Krisi ekonomiko garaietan irudimena areagotu eta zorrotzen dela esaten da askotan. Bada, Bergarako eta Oñatiko udalak dira horren adibideetako bat.

Bergarako Udalak bizi duen egoera ekonomiko delikatu kon-tuan hartuta, Gabonetako apaingarri alternatiboak eta merke-merkeak ipiniko dituzte aurten. Hain justu ere, herritarrek eurek egindakoak. CD eta DVDe-kin, plastikozko botilekin eta kafemakinetakoa edalontziekin gauza politak egin daitezkeela erakutsi du Udalak.

Edalontziekin bola erraldoi batzuk egin dituzte; CD eta DVDe-kin metalezko izarrak eta botilekin, berriz, koloretako izarrak. Herritarrek badirudi ondo hartu dutela Udalaren ekimena, edo horixe kontatu digu, behintzat, herriko plazan udaletxeko bal-

koiari begira zegoen andre batek: "Atzo lagun artean komentatu genuen oso efektu polita lortu dutela edalontziekin egindako bola handiekin. Gustatzen zait emaitza, eta merkea bada, are hobeto".

Parte-hartze ikaragarria

Udala ere oso pozik dago deialdiak izan duen erantzunarekin. Gabonetako apaingarriak egiteko bi tailer antolatu zituzten eta biek ere sekulako arrakasta izan zuten.

Ingurumen zinegotzi Leire Iruinek adierazi du harritu egin direla: "Ikaragarria izan da herritarrek eman diguten laguntza. Haiek gabe ezinezkoa izango litzateke. Horrez gain, jabetxeek ere botila mordoa bidali dizkigute eta enpresa asko izan dira kafe-makinako edalontziak gorde dituztenak.

Guztiek eskerrak eman nahi dizkiegu".

Oñatin ere bai

Oñatiko Udalak ere, joan den urtean bezalaxe, birziklatutako materialekin egingo ditu Gabonetako apaingarriak. "Zero zabor-erako bidea hartu dugula kontuan izanda, apaingarriak materialak berrerabili edo birziklatuz egitera animatzen ditugu herritarrek.

Etxean ditugun material desberdinak erabiliz eta imajinazio pixka batekin herria polito apain daiteke", adierazi dute Udaletik. Apaingarriok Kale Zaharrean dagoen atez atekoaren informazio bulegora eramateko eskatu dute.

Herritarren irudimenari esker Gabon girorik ez da falta izango ez Bergaran ezta Oñatin ere.



Ingurumen zinegotzi Leire Iruin, Gabonetako apaingarriekin. | ARRITXU BARRUSO

Kalitatea hezkuntzan izeneko ziurtagiria jaso du San Martinek

Jaurlaritzak eman dio Kalitatea Kudeatzeko Sistemari dagokion ziurtagiri hori

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Kalitatea Hezkuntzan izeneko Kalitatea Kudeatzeko Sistemari dagokion ziurtagiria eman dio Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak San Martin Agirre ikastetxeari.

Hezkuntza Ikuskaritzak dagokion auditoretza egin eta gero jaso du ziurtagiria. Ziurtagiri horrekin San Martinek eskola-kudeaketa eta eskola-antolaketa arloan egin duen lana aitortu dio Jaurlaritzak. Hori horrela, aurrerantzean San

Martin ikastetxeak logotipoetan zein kanpoko eta barruko dokumentazioetan Kalitatea Hezkuntzan zigorria erabili ahal izango du. Ziurtagiria ematearekin batera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak animatu egiten

ditu San Martin Agirreko zuzendaritza, irakasleak zein eskola osatzen duen gainerako hezkuntza-komunitatea etengabeko hobekuntzaren bidetik jarrai dezan.

"Lan handia egin dugu"

Begoña Otsoa-Aizpurua zuzendariaren arabera "oso pozik" daude errekonozimendua jaso dutelako: "Albiste oso pozgarria da, balorazio ezin hobea egiten dugu. Hori bai, lan handia egin dugu. Orain erronka ildo honi jarraitzea eta hobekuntzaren bidetik jarraitzea izango da".

Kobrezko piezak lapurtzeagatik, hiru atxilotu San Juanen

San Juan auzoko enpresa baten kobrezko piezak lapurtzen harrapatu zituen Ertzaintzak. Atxilotuak 23, 30 eta 37 urteko gizonezkoak dira. Dirudie-nez, ibilgailu baimendu baten sarrera aprobetxatu zuten gaizkileek sartzeko. 25 pieza kargatzea lortu zuten.

Gaztettoendako jaia Errege bezpera egunean, Muniben

Udalak 12 eta 17 urte artekoendako afaria eta DJ emanaldia –Amaia Txintxurreta arduratuko da musikaz-antolatu du Errege bezpera egunerako, Munibe plazako karpan. Urtarrilaren 2a baino lehen eman behar da izena.

'Morir de día' filma ikusi ahalko da etzi, Zabalotegi aretoan

Laila Manresa eta Sergi Dies zuzendarien film dokumentala da. Trantsizio garaian kokatuta, heroinarekiko menpekotasuna du abiapuntu filmak. 97 minutuko iraupena du eta adin guztietako ikusleei dago zuzenduta. Sarreraren prezioa 3 euro da.

Harrera Elkartea, preso ohi eta iheslariak gizarteratzeko

Hilaren 12an aurkeztu zuten Irizar jauregian; preso ohiez gain, herritarrak ere izan ziren ekitaldian

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Euskal preso eta iheslari ohiei etxera itzultzen direnean bizimodu duina bermatzea helburu, hilaren 12an aurkeztu zuten Bergarako Harrera Elkartea, Irizar jauregian. 25 bat lagun hurbildu ziren; preso eta iheslari ohiez gain, herritarrak ere izan ziren. Bertan azaldu zituzten taldearen helburuak, bideo batekin osatuz eta bertaratutakoen galderei erantzunez.

Elkarteko kide Aitziber Plazaolak argi utzi du orain bertan elkartean preso ohiak nagusi badira ere, taldea bera jendarte-



Hilaren 12an aurkeztu zuten Harrera taldea, Irizar jauregian. | MONIKA BELASTEGI

ratu nahi dela: "Harrera elkar-tearen inizatiba preso eta iheslari ohiek hartzen dugu gehienguan, egoera horretatik pasa izanagatik beste sentsibilitate eta gertutasun bat dugulako. Baina asmoa da herritar guztiengana zabaltzea".

Sare bat osatzeko asmoa

Plazaolaren arabera, sare bat osatu gura dute: "Bakoitzak bere ekarpenak bideratu ahal izango ditu bere eremutik. Hau da, ez dugu kide kopuru jakin batekin osatutako elkartea izatea nahi, askoz zabalagoa izan dadila".



Joan den astean apaindu zuten udaletxea birziklatutako CDeakin. | O.E.

Eguenean apainduko dituzte plaza eta kaleak

Plastikozko botilez egindako zuhaitza jarriko dute Foruen plazan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Datorren egunean, hilak 20, jarriko ditu Udalak Gabon apaingarriak herriko plazan eta bi kale nagusietan: kale barrian eta kale zaharrean. Udaletxean dagoeneko jarri dituzte apaingarri batzuk, baina apainketa nagusia egunean egingo dute.

Ikastetxeen lankidetzak

Herriko ikastetxeen lankidetzak izango du aurten Udalak Gabonetako apainketa egiteko. Joan den urtean bezala, birziklatutako material erabiliz egindako eskulanak ari dira egiten herriko ikasleak, herriko plaza eta ondoko bi kaleak apaintzeko erabiliko dituztenak.

Joan den urtean ez zuten Gabon zuhaitzik jarri plazan, eta herritar askok faltan bota

zuten. Horrela, aurten zuhaitza jarriko dute, baina ez da orain arte jarri izan duten modukoa izango, berezia, baizik. Kaleetan jarriko dituzten gainerako apaingarrien antzera, zuhaitz hori ere birziklatutako materialarekin egindakoa izango da. Zehazki, plastikozko botilekin egindako zuhaitza izango da, eta hori ere, egunean jarriko dute herriko plazan.

Atez ateko bulegoa ere bai

Kale zaharrean dagoen atez ateko bulegoa ere apaindu gura dute, eta horretarako, deialdia egin dute herritarrek apaingarriak eraman ditzaten bulegora, birziklatutako materialarekin egindakoak. Material berrera-bili edo birziklatuz egindako edozein apaingarri, artelan,

eskulan, bitxi eta antzerakoak eraman daitezke bulegora, eta horretara animatu gura dituzte herritarrek. "Oraindik ez dugu apaingarririk jaso baina bada-kigu, adibidez, papin bat egiten ari direla eta bukatzean ekarriko dutela. Kartoiarekin altzariak eta bestelakoak egiten dituztenak eta birziklatutako bitxiak egiten dituzten zenbait herritar ere jakinaren gaineran daudela bada-kigu, eta datozen egunetan hasiko gara jasotzen apaingarriak", dio atez ateko bulegoko langileak. "Gainera, horrelako apaingarriak edozein momentutan ekar ditzakete bulegora, ez bakarrik Gabon sasoiaren. Materiala berrera-bilita edo birziklatuta zer egin daitekeen erakutsi gura dugu", gaineratu du.

Toberarako abokatua onartuko du ez ohiko osokoak eguaztenean

Herri eragile eta herritar guztiak daude gonbidatuta 18:30ean hasiko den osokora

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Debagoieneko gainerako herriek Oñatiren aurka dituzten akusazioen aurrean, Oñati defendatuko duen abokatua izendatuko du ez ohiko osoko bilerak datorren eguaztenean, etzi, 18:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Jakinekora da Debagoiena eta Oñatiren arteko epaiketa abenduaren 28an izango dela, inuxente egunean, eta epaiketa horretan Oñatiren defentsa egingo duen abokatua onartuko du eguaztenean ez ohikoak.

Ez ohiko berezia

Eguaztenean ez ohiko osoko bilkura berezia izango da, udal ordezkarien eserleketan herri-

ko hainbat eragileetako kideak egongo direlako.

Ez ohiko horretan, pregoilariak epaiketaren arrazoia azalduko du. Horren segidan, Egoitz Aizpuru *Pikategik*, bere burua eskainiko du Oñati defendatzeko. Akusazioak zeintzuk diren aipatuko ditu gainetik, eta horien larritasunaren aurrean, bere prestutasuna agertuko du Oñati defendatzeko. Ez ohiko alkateak bozketari emango dio paso, eta ez ohiko zinegotziek euren iritzia emango dute.

Ez ohiko osoko bilkura eguaztenean da, etzi, 18:30ean, irekia izango da, eta herri eragile eta norbanako guztiak daude gonbidatuta.



ETEO zaharrean egiten dituzte Toberako entseguak. | JOSETXO ARANTZABAL

Oñatin sortu den krisiaren aurkako plataformak aurkezpena egingo du eguaztenean

Krisiaren aurkako plataforma sortu dute hainbat eragilek Oñatin eta horren aurkezpena egingo dute eguaztenean kultura etxean. Debagoieneko Kaleratzeak STOP plataformako kide batek etxegabetez buruzko hitzaldia egingo du 19:00etan, eta hitzaldiaren aurretik egingo du jendeaurreko aurkezpena herriko plataformak. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

'Siempre feliz' filma eskainiko dute aste honetako zineklubean, egunean 20:00etan

Norvegiako *Siempre feliz* izeneko filma botako dute aste honetako zineklubean. Betiko moduan, egunean izango da, 20:00tan, kultura etxeko zinema aretoan. Aurtengo azken aurreko filma izango da hori. Azkena, hilaren 27an izango da, betiko toki eta orduan; *Take shelter* filma estatubatuarra eskainiko dute egun horretan. Urtarrileko film egitaraua ere prest dute zineklubeko kideek. Kultura etxeko sarreran dago eskura.

Gabonetako kanten emanaldia egingo dute musika eskolako ikasleek San Martin egoitzan, bihar

Bihar, martitzena, Gabonetako kanten emanaldia egingo dute Jose de Azpiaz musika eskolako ikasleek eta Pake Lekuko Aloña abesbatzak San Martin egoitzan. Urteroko hitzordua izaten da hori zaharren egoitzan, eta aurten ere izango dute horretaz gozatzeko aukera. Iluntzean, 17:30ean, joango dira musika eskolako ikasleak eta Pake Lekuko abeslariak, eta guztiek elkarrekin abestuko dituzte hainbat Gabon kanta ezagun.

Harritura utzi ditu herriko ikasleak kultura etxeko txantxiku txotxongiloen erakusketak

O.E. | OÑATI

Kolore eta tamaina askotako 50 txantxiku txotxongilo daude ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan. Corrado Massacik ekarri ditu, umeeekin pentsatuz, "baina badakit helduei ere asko gustatzen zaizkiela", dio egileak.

Erakusketako txotxongilo guztiak berak egin ditu, eskuz. "Papera, egurra eta poliuretanoa erabili ditut egiteko, eta kolore biziak", azaldu du.

Duela 15 urteko proiektua

Duela 15 urteko ideia da urtarri-laren 7ra arte zabalik dagoen

erakusketa. "Behin, zirkoari buruzko erakusketa ekarri nuen Oñatira eta eskatu nien umeei marrazkiak egiteko zirkoari buruz. Hurrengo erakusketan ere marrazkiak egiteko eskatu nien, eta konturatu nintzen txantxikua marrazki gehienetan agertzen zela. Horrela, txantxiku txotxongiloak egitea pentsatu nuen. Eta uste dut asmatu dudala. Izan ere orain arte pasa diren herriko ikasleei asko gustatu zaie, harritura gelditu dira. Hala ere, erakusketa ez da bakarrik umeendakoa, herritar guztiendakoa da", azaldu du Corrado Massacik.



Txotxongilo erakusketa. | C.MASSACI

ARETXABALETAKO

Herritarrak pozik daude aurrekontuen batzarrekin

Eguenean ekarpenak aurkeztu zituzten; orain, Udal Gobernuak ezagutuko ditu

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETAKO

Aurrekontuak herrigintza bidez lantzea. Horixe izan da Aretxabaletako Udalaren nahia, eta Bagararen laguntzarekin eraman dute aurrera. Azaroaren 15ean egin zuten aurreneko bilera, eta han, Udalaren funtzionamenduz edo egoera ekonomikoaz egin zuten berba. Bigarren hitzordua azaroaren 24an izan zen, eta lantaldetan banatuta, askotariko gaiak jorratu zituzten. Hain zuzen, arlokako ekarpenak egin zituzten; horietariko bakoitza udal teknikari, politikari eta herritarrez osatuta zegoen. Denera, bost talde egin ziren: Gizarte Zerbitzuak, Kultura, Gazteria, Hirigintza, Euskara eta Hezkuntza. Eguenean eman zituzten aditzera bakoitzean irtendako ondorioak.

Egoera ekonomikoa eta Udalaren zorra kezka nagusiak izan dira prozesuan zehar, eta, gainera, orokorrean herritarrek Udaleko batzordeetan duten parte hartzea eskasa izanik, hitza bermatzeko bideak aztertu beharra nabarmendu zen.

Gizarte Zerbitzuei dagokienez, irtendako ondorio nagusia gaierikiko dagoen informazio falta da. Gainera, etorkinen gaian eta diru laguntzetan ere hutsune nabarmenak ikusten dituzte herritarrek. Kulturen, Udalaren eta Huheziren arteko elkarlana indartu beharra dagoela iritzi diote aretxabaletarrek, eta Errege kabalgata zein Bizar Zuri Udalak antolatu beharko lituzkeen zalan-tzan ipini zuten.

Gaztetxeko eraikina aztergai

Gazteria arloan, ostera, gaztetxeko eraikinaren (kuartela) egoeraz eta irtenbide posibleen azterketarako mahai iraunkorra sortu beharra azpimarratu zen; erai-



Eguenean egindako batzarra. | ZURIÑE V.D.M.

kinaren hezetan arazoak hobekuntzarako partida sortzea... Horren harira, Ana Bolinaga alkateak jakinarazi zuenez, eraikinaren gaineko azterketa egin da dagoeneko, baina konponketa lanek eta eskatzen duen diru kopurua handiegia dela ikusi dute. Horren harira, honakoa gehitu zuen: "Horrek ez du esan gura kezkatzen ez gaituenik".

Hirigintza taldean irtendako ondorioen artean, etxebizitza, bidetegi eta zirkulazioa, industrialdeak eta Deba erreka dira herritarren kezketariko batzuk. Plan orokorra egiteko prozesuari behar duen denbora eskaintzeko beharra ere azaldu zen.

Euskararen transmisioa

Euskara eta Hezkuntza gaiak talde berean landu dira prozesu honetan. Euskararen transmisio, motibazio, erabilera sustatzeko inizatiba eta politikekin jarraitu beharra azaldu zen. Udalak egiten dituen ekitaldi publikoetan euskarari lehentasunik ez ematea kritikatu zuten, eta Kirol

arloan, kirol etxe zein elkarteetara jarraipena egitea euskarari dago-kionez.

Hezkuntzaren arloan, Udalak Hezkuntza Batzordea edukitzekeo premia azpimarratu zuten, eta Huhezik herrian duen eraikinean ikasten duten gazte herrian bertan geratzeko estrategiak pentsatu beharra nabarmendu zen bileretan.

56 parte-hartzaile

Egueneko batzarrean, Bagarako Arkaitz Biainek parte-hartze zifren gainean egin zuen berba. Lehenengo saioan 31 herritarrek (17 emakumezko eta 14 gizonezko) hartu zuten parte, eta 13 eragilek. Bigarrenean, 25 herritarrek (6 emakumezko eta 19 gizonezko) eta 8 eragilek. Gainera, parte hartzaileek zer nolako balorazioa egin duten eman zuen jakitera. Hala, positiboki baloratu da ekimena bera eta parte hartzea.

Orain, Aretxabaletako Udal Gobernuari aurkeztuko dizkiote esandako bilerotan irtendako ondorioak.

OHARRAK

GABONETAKO KONZERTUA

Leizarra musika eskolako kideek Gabonetako kontzertua eskainiko dute bihar, martitzena, herriko parrokiaren (17:00). Instrumentu guztiakoko ikasleek hartuko dute parte taldeka: gitarra-joleek, trikitilariak, txistulariak, bandak...

JOSTAILU BILKETA

Pilarik gabeko jostailuak jasotzen dabilta egunotan ludotekan. Azken eguna eguaztena da, abenduaren 19a (17:00-19:30). Kanpaina horren helburua da etxean atzera utzitako jostailuak jasotzea, herrian jostailu barik geratuko diren neska-mutikoen artean banatzeko.

ESKORIATZA

Atez atekoaren aurkako sinadurak

Eskoriatza Garbiakoek 1.240 sinaduren notario-akta alkateari eman zioten eguenean

A.T. | ESKORIATZA

Atez atekoaren kontra dagoen Eskoriatza Garbia plataformak alkateari eman zion herrian jaso duten 1.240 sinaduren notario-akta. "Beste 255 sinadura bidean gelditu dira arrazoi bategatik edo beste batengatik, baina guretzako ez dute garrantzi txikiagoa", esan zuen Rafa Salido plataformako bozeramaileak. Gaineratu zuen notarioak "banan-banan" gainbegiratu dituela sinadura guztiak eta azken hauteskundeetan bozkatzeo aukera izan zuten pertsonen %63 adierazten dutela 1.240 sinadurek.

Eskoriatzako alkateak gai horretan jendeak duen inplikazioa ikusi zuen, eta hauxe esan zuen: "Jaso ditugu sinadurak. Atsegin dut jendea inplikatzen dela ikustea, ados ez

egon arren. Hondakinak bezalako arazo larri baten aurrean erantzun bat egoteak esan nahi du kezka bat dagoela, eta guztiok daukagu asmoa kezka horri irtenbidea emateko".

Alde batak zein besteak atez atekoaren inguruko aldeko eta kontrako argudioak eman zituen, eta alkateak, sinaduren notario-akta jaso ostean, beste dokumentu bat entregatu zien plataformakoei: urte honetako maiatzaren 31ko osoko bilkuran onartutako hondakin kudeaketaren mozioa.

Plataformakoei alkateari eskatu zioten herriari erantzun bat ematea "zentsuzko" epe baten barruan eta adierazi zioten 2013an plataformak aktibo jarraituko duela. Horretarako, 13 ekintza atez ateko sistema gelditzeko leloa erabiliko dute.



Eskoriatza Garbiako ordezkariak alkatearekin berbetan. | AMAIA TXINTXURRETA

Atxorrotzen aurkitutakoak ikusgai daude Ibarraundin

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Atxorrotzen aurten egindako indusketen emaitzak gertutik ezagutzeko aukera dago gaurtik egubakoitzera Ibarraundin, 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Besteak beste, zeramika, arma aztarnak eta txanponak egongo dira ikusgai. Horretaz gainera, garai bereko gazteluetan aurkitutako beste pieza batzuk ere izango dira

erakusketan; horien artean, dama-joko taula bat.

Bisita gidatua

Bestalde, egubakoitzean, 18:00etan, orain arte aurkitutako materiala ezagutaraziko da proiektio txikiaren bidez; jarraian, erakusketan ikusgai dauden elementuak azalduko ditu indusketetan buru-belarri dabilen Iñaki Sagredok.

OHARRAK

ESKOHITZA 2013

Hiru batzar daude deituta 2013ko aurrekontuak osatzeko: gaur, kirol arlokoa egingo dute, 18:30ean; bihar, 19:00etan, ingurumenaz eta turismoaz jardungo dute; eta etzi, gizarte ongizateaz, 17:00etan. Batzarrak Ibarraundin izango dira. Horrez gainera, erakusketak ere badago egunotan han.

SASKIBALOA

Etzi, saskibaloia partidua dago kiroldegian. Eskoriatzako seniorrak Bera Bera Donostiren kontra lehiatuko dira, 20:15ean.

TXISTORRA OLAZARREN

Eguenean, hilak 20, Olazar erretiratuen etxean txistor-jana izango dute, 18:30ean.

Arizmendikoek jatorrizko herrien gaineko bideoklipa egin dute

M.B. | ARETXABALETAKO

Arizmendi Ikastolako Basabeazpiko haurrek *Jatorrizko herriak eta munduko loreak* izeneko bideoklipa grabatu dute, eta bihar, martitzena, horren aurkezpena egingo dute. Ekitaldia 17:00etan hasiko da, eta antolatzaileek iragarri dute sorpresaz beterik egongo dela.

Munduko jatorrizko hizkuntza eta herrien existentzia sustatzeko asmoz egin dute lan hori 2 eta 5 urte bitarteko neska-mutikoei. Ikus-entzunezkoaren grabazioa gurasoek egin dute eta audioa Arrasateko Shot! Estudioan grabatu da. Proiektuak izaera unibertsala du eta Mexi-

koko, Guatemalako, Katalunian eta Galiziako haurrek parte hartu dute. Guztira, 126 neska-mutiko aritu dira lanean.

'Jatorrizko Herriak' proiektua

Jatorrizko Herriak proiektuaren harira egin dute bideoklipa; hain justu, horri amaiera borobila emateko egin dute Arizmendiko Basabeazpi gunekoek ikus-entzunezkoa.

Egitasmoaren helburua izan da ezagutzera ematea badirela munduan jatorrizko hizkuntza, identitate eta kulturak, eta hedapen lan horretan Arizmendik Garabide elkartearen laguntza izan du.



Olentzero, iaz, ume artean Salvador kalean behera. | LZ

ELGETA

Olentzero eta Mari Domingi izango dira aurten Elgetan

Olentzero abenduaren 23an izango da herrian; Mari Domingi, berriz, hilaren 21ean Herri Eskolan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aste bukaeran murgilduko gara Gabon jaietan, eta nabari izango da hori; izan ere, ekitaldi ugari daude iragarrita barikutik —abenduak 21— aurrera.

San Tomas eguna, barikuan

Barikua egun berezia izango da, bereziki eskolako umeendako. Goizean, Mari Domingiren bisita izango dute. Olentzeroren prestaketa lanen berri emango die neska-mutikoei. Egun berean, txistorra goxoa dastatzeko aukera izango dute ikastetxean.

Herri mailako ekintzei dago kienez, arratsaldean hasiko dira. Urtero moduan, herritarrek gonbidatuta daude Bergarako Mizpirualde egoitzan dauden elgetarrei bisita egitera. Taldea 15:00etan abiatuko da Bergararantz plaza barrenetik.

17:30etik aurrera, berriz, pilotak hartuko du protagonismoa Elgetan. Umeen txapelketako partiduak izango dira lehenengo, eta 19:00etan Beteranoen Txapelketako finalaurrekoak.

Gabon bezpera, domekan

Olentzero 18:00etan jaitsiko da Intxortatik Elgetako neska-mutikoei elkartzeko. Aurretik, guraso elkartearen eskutik txokolate-jana egongo da plazan. Goizean, jostailu truke azoka egingo du Udalak. Interesatuak abenduaren 21era arteko epea dute elkartrukatu gura dituzten jostailuak ludotekara edo liburutegira eramateko. Txartel bana jasoko dute, gero azokan jostailu berri baten truke aldatzeko. *Elgetan kantuan* ekimenaren bigarren saioa ere Gabon bezperan egingo dute.

ANTZUOLA

San Josepe auzoko errepidea zabalik dago zapatua ezkerro

Lehen faseko lanak bukatuta, orain, bigarren faseko behin betiko lanak egin nahi dituzte

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Lur-jausiaren inguruko azterketa geologikoak egin dituzte eta balorazioak ere atera dituztela azaldu digute Hirigintza Saitetik. Ondorioz, Udalak erabaki du San Josepeko mendi magala egonkor-tzeko obrak egitea.

"Lehenengo fase batean alde ezegonkorreneko desbrozea buru-

tu eta hormigoia —gunita— proiektatu da; hala, zapatuan, zirkulazioa berririo irekitzea posible izan da", kontatu digute Hirigintza Saitetik.

Ondoren, baina, bigarren faseari ekingo zaio. Fase horretan obra askoz sakonagoa egin behar dela azpimarratu digute. Eta lan horiek, gainera, behin betikoak

GABONETAKO EGITARUA

ABENDUAK 21

15:00 Bisita Bergarako Mizpirualde egoitzara.

17:30 Umeen Gabonetako pilota txapelketa.

19:00 Beteranoen pilota txapelketako finalaurrekoak.

ABENDUAK 23

12:00 Jostailu truke azoka, herriko plazan.

13:00 *Elgeta kantuan*, tabernaz taberna.

17:00 Txokolate-jana, herriko plazan.

18:00 Olentzeroren etorrera, herriko plazan.

ABENDUAK 24

10:00 Gabon kantuak eskolatik abiatuta.

12:00 Salda eta txorizoa, herriko plazan.

ARAMAIO

Otxandio, Legutio eta Arrasateko lagunekin batera Gabon kantaldia

Gabon kanten emanaldia Aramaion izango da bigarren; domekan, San Martin elizan (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gabonak ate joka ditugu dagoeneko eta Udalak, urtero moduan, egitarau oparoa antolatu du. Hala, abenduaren 23tik urtarri-laren 4ra arte denetarikoko ekitaldiak izango dira, adin eta gustu guztiak asetzeko.

Lehen ekitaldia oso berezia izango da, domeka honetan bertan. Izan ere, Aramaio Bizen-te Goikoetxea abesbatzak eta korotik aparte Gabon kantekin gozaten duten aramaioarrek, Otxandio, Legutio eta Arrasateko —Portaloi taldea— lagunekin batera egingo dute kantuan San Martin elizan. Arrasateko Portaloi taldekoak hasi ziren ekimenarekin eta dagoeneko urtero errepikatzen den kantaldia

izaten da. Bizente Goikoetxea abesbatzako Bittor Kortabarriak azaldu duenez "egun ederra" izaten da: "Aurten bigarren egingo da Aramaion eta abestera etorriko den jendearekin bakarrik eliza bete egingo dugu". Izan ere, urtean zehar koroetan parte hartzen ez duen jende askotxo animatzen da egun horretan Gabon kantekin gozatzera.

Gabon kopa: pilota txapelketa

Aurtengo Gabonetako nobedadeen artean dago pilota taldeak antolatu duen Gabon kopa. Arrasate, Bergara, Oñati Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola eta Aramaio pilotariak izango dira Aramaion abenduaren 31n jokatu diren finalatan.



Bizente Goikoetxeak ez du hutsik egingo hilaren 23ko kantaldian. | J.B.

LEINTZ GATZAGA

Udaberrian jarriko dituzte konpostagailuak

Gatzagan bertan kudeatu gura dute herritarrek sortutako hondakin organiko guztia

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Udalak zero zaborren bidean egin gura du lan, eta herrian sortutako hondakin organiko guztia bertan kudeatzeko asmoa dauka. Halaxe iragarri zuten orain hilabete batzuk, eta orain berretsi Eugenio Otsoa alkateak.

Bi konpostagailu handi jarriko dituzte herrian, eta hasiera batean aurten jartzeak baziren ere, azkenean 2013ko udaberrian iritsiko dira. Hala, herriko bi lekutan jarriko dituzten konpostagailu handi horietara bideratuko dute herritarrek hondakin organikoak. Joan den ekain inguruan, horren gaineko argibideak emateko batzar-rrerako deiak egin zizkien Udalak herritarrei, ostalaritza zerbitzuetako kidei eta baserri-tarrei, eta jakinaren gainean

daude horiek. Hala ere, baserri-tarrek harremanetan jartzeko asmoa agertu du Otsoa alkateak, "egin beharrekoari buruz berba egiteko".

Hala, 2013ko lehenengo hila-beteetan orain arte legez jasoko dute zaborra herrian —martitzen, eguen eta domeketan—, baina gero, konpostagailuetara eraman behar dute organikoak herritarrek. Gainerako edukiontziek oraingo lekuan jarraituko dute gero ere, Dorleta santutegirako bidean.

Osoko bilkura egunean

Bestalde, urtea bukatu aurretik, egunean hain zuzen, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak. Hainbat gai izango dituzte eztabaidatzeko; besteak beste, udal langileen Gabonetako aparteko ordainsaria.

ABENDUKO IRABAZLEAK

XBOX

- Elixabete Uriarte Markaide (Arrasate)



Liburuak

- Luis Malbadi Olano (Oñati)
- Felix Arrese Alberdi (Aretxabaleta)



CD-a

- Jose Mari Zabaleta Inza (Oñati)



Gospel kontzerturako sarrerak

- Pilar Uranga (Arrasate)



Goenkale ikusteko sarrerak

- Jose Antonio Mentxaka Agirreurreta (Bergara)



Txikilandiarako 4 bono

- Edurne Iñarra Bastardo (Bergara)
- Iñaxio Buquete Ugarte (Oñati)
- Mertxe Kalparsoro Esteibar (Aramaio)
- Karmele Korta Mendiguren (Arrasate)



Maika Makovskiren kontzerturako sarrerak

- Jabier Urebetxebarria Bolinaga (Arrasate)



ZORIONAK!

Atera etekina txartelari

goienakluba 2012

AQUARIUM

Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

ARGIA

euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA MECA

gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGONDO

optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

GAHIR

fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

ESKO SPORT

kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAES

Centros Auditivos
Entzumen zentroak
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER

edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER

SUKALDEAK
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

LASTAI

haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA

EDERTZE INSTITUTUA
LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

JAIXAK

denda
Bergara, 943 76 31 45

MULTIOPTICAS

lehenaz zerbitzu optikoetan
MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN

fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

TXURI-URDIN

izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

EUREKA!

zientzia museoa
EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

IZENADUBA BASOA

parke tematikoa
IZENADUBA BASOA
Mungia, 94 674 00 61



KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Ederto jokatu baina aukerak huts egin ostean, galdu

- ▶ Gutxienez berdinketa merezi izan zuen Bergarak zapatuan
- ▶ Banakoa baliogabetu zuen epaileak jokoz kanpikorik ez zegoenean

EMAITZA

BERGARA

0-2

REAL UNION

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Mardaras, Apellaniz, Elorriaga, Urrutia, Iñurrieta (Alonso, 77. min), Aranburu, Linazisoro (Cabanillas, 53. min), Beitia (Oregi, 53. min), Valerio, Baltzategi, Crespo (Navas, 66. min).

Real Union: Iker, Sagredo, Gorria, Vizcaino, Arizmendi, Sanchez, Merlon, Telletxe (Etxeberria, 87. min), Azpiroz (Arrospide, 75. min), Balerdi (Urtzelai, 58. min), Urbieta (Granado, 82. min).

Bestelakoak: Ohi baino giro beroagoa Agorrosingo harmailetan. Irungo hainbat jarraitzaile etorri ziren.

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Partidu gutxi galduko ditu Bergarak zapatuan Real Union aurka jokatuak moduan jokatzeko badu. Saillkapeneko bigarren etorri zen Agorrisonean, Real Union. Baloia ukitzea gustatzen zaion taldea eta horretarako gai diren jokalariek dituen. Hori jakinda, mahoneroak aurkaria estutzea irten ziren hasieratik, irundarrei euren jokoa egitea ekiditeko asmoz.

Hasierako minutuetan joko nahasia izan zen nagusi. Baina pixkanaka Irungo taldea baloia-

ren jabe egin zen eta mahoneroen areara hurbiltzen hasi zen. Orduan heldu zen lehen gola, 26. minutuan: Bergarako erdilariek baloia galdu, gero defentsak huts egin eta Real Unioneko aurrelariaren jaurtiketa atezainak ederto geratu arren, errebotean baloia sarrera (0-1); zorigaitzoko jokaldia. Kolpearen aurrean erantzuten jakin izan zuten etxeok eta, Jokin Baltzategiren gidaritzapean, arrisku jokaldiak heldu ziren irundarren areara. Hala ere, aukera garbik ez. Hala joan zen norgehiagoka atsedenaldira.

Atezainaren aurrean birritan

Atsedenaldira ostean ere oso ondo irten zen Bergara. Kanpokoen aukera garbi bat izan ezik, etxe-koendako izan ziren aukera garbienak. Baltzategi eta Cabanillasek aukera eder bana izan zuten. Lehenak Valerioren pase eder bat aprobetxatu zuen atezainaren aurrean geratzeko baina motelegi ibili zen. Cabanillas ere bakarrik geratu zen atezainaren aurrean baina larregi gurutzatu zuen baloia. Bergara estutzen ari zen eta bazirudien berdinketa iritsiko zela. Heldu, heldu zen, baina epaileak baliogabetu egin zuen marrazainak jokoz kanpoko adierazi zuelako. Inork ez zuen erabaki hori ulertu eta zale zein jokalarien protesta ugari entzun ziren. Oregi erdilariek zerbait esan zion epaileari, txartel gorria atera zion-eta zuzenean.

Deskontuan irundarren falta jaurtiketa eder baten heldu zen 0-2koa. Bergarak gehiago merezi izan zuen.



Jokin Baltzategi baloiarekin. Zapatuan ere erasoko jokoa pisua hartu zuten bere gain; ederto aritu zen. | IMANOL SORIANO

IMANOL CABANILLAS | BERGARAKO JOKALARIA

"Partidu zaila eta gogorra izan da, gehienak moduan"

Atsekabetuta zegoen Bergarako kapitaina partidu amaieran. Banako berdinketa lortzeko aukera eder bat huts egitea zaila da asimilatzen aurrelari batendako eta hori aurpegi gartzen zitzaion amaieran.

Aulkian hasi duzu partidua. Nola ikusi duzu zure taldea?

Lehen zatian ondo hasi gara, ondo egin dugu presioa eta partiduaren bila joan gara. Hala ere, atzealdean egindako akats baten ondorioz gola egin digute.

Bigarren zatian ere gogotsu irten zarete.

Bai. Eurak baino hobeto hasi gara baina ezin izan dugu ezer egin.



Ikusi duzunaren arabera, nolako taldea du Real Unionek aurrean?

Talde handi baten filiala dela igartzeko da. Gazteak dira eta futbole

jokatzeko ondo baino hobeto dakite. Atzetik baloia ukitzen irtetea gus-tatzen zaion taldea da; saiatu gara joko hori ekiditen eta neurri baten lortu dugu. Baina oso partidu zaila eta gogorra izan da; dena dela, maila honetan halakoak izaten dira lehia gehienak.

Norgehiagokaren azken txanpan polemika izan da marrazainaren erabaki bategatik. Iritzirik eman nahi duzu?

Nire ustez ez zegoen jokoz kanpikorik. Zuek hartu dituzuen irudietan ikusiko da jokoz kanpo izan den edo ez. Ez dut beste balorazirik egin nahi.

Azken jardunaldietan hartutako dinamika ona apurtu dizue porrot honek.

Bai, baina oso postu onean gaude oraindik. 25 puntu ditugu dagoneko eta 12 puntu nahikoak zaizkigu maila mantentzeko. Ea hurrengo partidua irabazten dugun.

OHOREZKO ERREGIONALA

UDAK eta Aloñak ondo bete zituzten etxeko lanak; Mondrarena, ahazteko partidua

- ▶ 4-2 irabazi ostean, Aretxabaleta hirugarren dago
- ▶ Aloñak, lasaitasuna (10.); Mondra, beherantz (12.)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

UDAK eta Aloñak garaipen garrantzitsuak lortu zituzten atzo. Aretxabaletarrak hirugarren posturaino igo dira atzo Zarautzen aurka lortutako garaipenari esker (4-2). Oñatiarrek lasaitasunerako hiru puntu lortu zituzten Urolaren aurka. Mondrak, berriz, ahazteko partidua jokatu zuen eta galdu egin zuten Hondarribiaren aurka (0-2).

UDAK garaipen justua

Aretxabaletak ederto hasi zuen partidua eta berehala jarri zen aurretik markagailuan. Hiru goleko aldea lortu zuen, baina zarautzarren erreakzioak lehia estutu zuen (3-2). Eskerrak Alberto Albistegiren mutilek berehala lortu zutelara 4 eta 2koa: "Lau gol sartu ditugun arren, ez gara oso fin ibili, orokorrean. Hala ere, eurak baino gehiago izan gara, eta merezimendu osoz irabazi dugu".

Aloña Mendi, ate aurrean fin

Andoni Azkargortaren mutilek garaipen garrantzitsua erdietsi zuten atzo Azkoagainen Urolaren aurrean. Joko nahasia eta lehia borrokatua izan ziren nagusi: "Jabetza argirik gabeko partidua izan da. Gakoa izan da gu eurak baino finago ibili garela ate aurrean, eta gero, defentsan ondo ibili garela", uste du entrenatzaileak. Unai Uribetxeberriak bi gol egin zituen, eta bestea, berriz, Iker Olalde, penalti jaurtiketa bati esker.

Urola lehen zatiko 30. minututik jokalaria bat gutxiagorekin ibili zen, inork ulertu ez zuen erabaki baten ostean. Area barruan Urolako atzelari bat baloiak eskuan jo, eta epaileak penaltia adierazi zuen. Penalti argia izan zen, baina, denen harri-durarako, epaileak jokalaria egotzi zuen. Urolak talde sendoa duela erakutsi zuen: "Joko zuzenean gustatzen zaie, aurrean dituzten jokalarien altuera aprobetxatzeko", esan zuen Azkargortak.

na gustatzen zaie, aurrean dituzten jokalarien altuera aprobetxatzeko", esan zuen Azkargortak.

Mondrak, lehia eskasenetakoa

Lehen zatian Hondarribia baino gehiago izan arren, bigarren zatian nabarmen egin zuten behera Lutxo Iturrinoren mutilek: "Atsedendia ostean oso urduri irten gara, eta ez gara batere fin ibili. Bigarren gola egin digutenean ez dugu erreakziorik izan. Benetan gaizki aritu gara, batez ere bigarren zatian; denboraldiko partidurik eskasenetakoa izan da", adierazi zuen Mondrako entrenatzaileak.

Kanpoko taldeak larregi egin gabe eraman zituen hiru puntuak: "Ez dute gauza handirik egin. Lehen gola gure akats bati esker sartu dute eta gero ondo heldu diote. Talde hobekia pasa izan dira Mojategitik", esan zigen Iturrinok.



UDAKo Oxel Apraitz baloiarekin. Atzo ere gola egin zuen. | JOSETXO ARANTZABAL



Aloñaren eta Urolaren arteko partidua. | JOSETXO ARANTZABAL



Andoni Aizpurua baloia eraman nahian, aurkaria atzean duela. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAKUMEZKOAK

Mondrak ezin izan zuen liderra menderatu (0-1)

A.M. | ARRASATE

Nahiz eta liderraren aurka partidua serioa egin, Mondrak ezin izan zuen Añorga menderatu. Andoni Ezkurraren neskek partidua serioa jokatu zuten, defentsa lan ona egin zuten eta golak sartzeko aukerak ere izan zituzten. Gauzak horrela, atsedendira huts eta hutsekoarekin iritsi ziren.

Bigarren zatia lehenengoa bezala hasi zuten, baina partiduko aukerarik onenean baloia langara joan zen eta hurrengo jokaldian talde donostiarrak gola egin zuen. Mondrari berdinketa egiteko 20 minutu geratzen zitzaizkion, baina nahiz eta gol aukerak egin, ezin izan zuten Añorgaren atea zulatu.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Gol zaparrada Eztalan: sei sartu zizkion Antzuolak Lazkaori

GOIENA | ANTZUOLA

Lazkao ez da nolanhiko taldea, bosgarren zegoela etorri zen Eztalara, baina ez zuen ezustea eman, eta Antzuolaren goleadarekin (6-1) bukatu zen partidua.

Horrenbestez, Antzuolak indartu egin du taldeko lidergoa. 27 puntu ditu. Gainera, bere

taldean kontrako gol gutxien egin dizkioten taldea da: 10 tanto bakarrik ditu kontra.

Zestoaren zain

Datorren astean, Juanina Garairen mutilek Zestoa hartuko dute etxean. Ekipo hori 13. postuan dago taldeko sailkapenean.



Bi aurkari, baloiaren bila. | IMANOL SORIANO



ARETO FUTBOLA

IMANOL SORIANO

Buelta eman eta, ia, irabazi

Aretxabaletako taldeak Bilkoin zuen aurrez aurre, eta bi golengatik galtzen joan bazen ere, partiduari buelta eman zioten aretxabaletarrek eta garaipena gertu izan zuten. Lehenengo zatia 0-1 emaitzarekin bukatu eta bigarrenaren hasieran sartu zieten bigarren gola, baina, joko onari esker, berdindu egin zuten Del Tesoren mutilek. Azken bost minutuetan gol aukera gehiago izan zituzten. Azkenean, pozik egoteko moduko emaitza.



Gaztetxo koadrila helmugaratzeko gertu. | JOSETXO ARANTZABAL



Korrikalariak Olarte kalean. | JOSETXO ARANTZABAL



Krosaren irteera unea. Argazkian ikusten denez, Gaizka Romero irabazlea hasieratik jarri zen lasterketa buruan. | JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA

Aurreikuspen guztiak gainditu ditu Santamasetako krosak

- ▶ Inoizko parte-hartzerik altuena: 205 heldu eta 185 haur eta gaztetxo
- ▶ Arrasate Atletiko taldea, "gaindituta baina oso pozik" 35. edizioarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Erabat gainditu dira gure aurreikuspenak. Inperdible [kateorraz] eta dortsal barik geratu gara amaierarako. Itzela izan da parte-hartzea bai haurretan zein helduetan; gaindituta ikusi gara, baina oso pozik gaude". Fernando Zufiria Arrasate Atletiko taldeko ardura-dunaren hitzak dira, Santamasetako krosaren gainean. Krosak bete dituen 35 urteetan ez da hal-

ko parte-hartzerik izan: 205 korrikalari helduen proban eta 185 haur zein gaztetxoenetan -5 eta 14 urte artekoak-. Arrakasta ikusita, datorren urterako neurriak aurreikusi dituzte antolatzaileek: "Adibidez, izen-ematea Internet bidez egiteko aukera zabaltzea aukera ona izan daiteke, parte-hartzearen erreferentziak izateko", dio Zufiriak. Horrez gain, 2013an giroa are gehiago bero-

tzeko trikitalariak eta aurreko edizioetako argazkiez osatutako bideo bat jartzea pentsatzen dabilta, pantaila baten: "Ikusiko da, ea posible den".

Eguraldi onak ere izugarri lagundu zuen ohi baino korrikalari zein ikusle gehiago erakartzeko. Krosa amaitu ostean elkarrizketatu genituen korrikalari guztiek izan zituzten esker on hitzak: "Itzela da. Seber Altu-

betik pasa eta horrenbeste jende ikusteak ez du preziorik. Indar handia ematen du", zioen Endika Donay bigarren sailkatuak.

Azkarrenak lehenengoz

Gaizka Romero eta Nerea Arregi arrasatearrak izan ziren azkarrenak. Romero beteranoa da dagoeneko proba honetan eta aurtengoan lortu du azkarrena izatea: "Oñatiko San Silbestrea

prestatzen ari naiz, entrenamendu azkarrak egiten. Hori igarri dut eta ohi baino azkarrago joan naizela esango nuke". Nerea Arregi, ordea, aurten estreinatuta da proba herrikoian; estreinaldi ederra izan zuen, beraz.

Koadrilak, krosaren esentzia

Proba herrikoia izanik, Santamasetako krosan antolatzaileek koadrilei eman gura izan diete protagonismoa. Parte-hartzearen gorakada ez da koadrila kopuruan igarri; hor doa deia koadrilendako. Aurtengoan, gizonezkoetan Lekeitioko Garraitz koadrila izan zen lehena, Arrasate Runners eta Korrikalari koadrilen aurretik. Emakumezkoetan, berriz, Zigagym izan zen lehena Oinazkarrak koadrilaren aurretik. Beteranoetan, azkenik, Jesus Mari Balentziaga eta Ane Zabala izan ziren azkarrenak.

Kanpoko jendearen parte-hartzea ere oso altua izan da aurten. Bailarako parte-hartzaileez gain, Lekeitioko korrikalariak ere ikusi genituen, esaterako.



GAIZKA ROMERO
LEHEN GIZONEZKOA

"Sentsazio onak izan ditut, batez ere azken kilometroetan. Arrasaten bertan, sekulako giroa, lagun ondoan eta nire taldearekin... Oso polita izan da, egun borobila. Ea Oñatiko San Silbestrean ere gaur [atzo] bezain ondo aritzen naizen".



NEREA ARREGI
LEHEN EMAKUMEZKOA

"Amaieran lehia ederra izan dut irabazteko. Katarroarekin nabilen eta espero baino askoz hobeto aritu naiz. Nire lehen aldian zen, eta ez nuen horrenbeste jende espero. Forma ona aprobetxatzeko, akaso San Silbestrean hartuko dut parte".



JOSU ZUBIZARRETA
KORRIKALARIA

"Motza da baina oso gogorra. Galtzada-harriak eta aldapatxoek min egiten dute azken txanpan. Lehen aldian izan da aurtengoa, eta oso gustura geratu naiz. Polita da, jende asko animatzen. Jaietara begira bota dugu izerdia [barre]".



MARI FRAN ALONSO ETA RAKEL ALONSO
KORRIKALARIAK

"Ahizpak gara eta azken urteetan ohitura izan dugu Santamasetako krosaren parte hartzeko. Rakel hirugarren geratu da eta ni [Mari Fran], berriz, laugarren; 52 urterekin, gainera. Oso pozik geratu gara egindako lanarekin, oso ondo joan da lasterketa. Oso giro polita egoten da, aurten bereziki. Jende asko zegoen ia lasterketa osoan zehar, animoak asko eskertzen dira. Datorren urtean, dena ondo badoa, errepikatu egingo dugu; baina hori ikusiko da".



Izen-ematea: bost euro. | JOKIN BEREZIARTUA



Mutikoa dena ematen. | J.A.

SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

1. Gaizka Romero 22:02
2. Endika Donay 22:10
3. Ander Okabika 22:23
4. Joseba Iturraspe 23:10
5. Marcos Bernaola 23:11
6. Iker Prieto 23:11
7. Koldo Iturraspe 23:12
8. J. M. Balentziaga 23:12
9. Javier Irazabal 23:34
10. Eneko Urrizalki 23:34

EMAKUMEZKOAK

1. Nerea Arregi 26:41
1. Ane Zabala 26:54
1. Rakel Alonso 28:32
1. Mari Fran Alonso 30:01
1. Marije Velasco 30:01
1. Leire Ezpeleta 30:05
1. Yolanda Ezkurra 30:26
1. Edurne Baltzategi 30:49
1. Ane Arexolaleiba 32:39
1. Onintza Langaran 33:14

KOADRILAK

1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00
1. IzenaxxAbizxx 0:00:00



Helduetan eta beterranoetan azkarrenak izan zirenak. | ANDER MONEDERO

Malen Ruiz de Azua eta Iñigo Urribarren, izen propioak Donostiako galan

Egubakoitzean Donostiako Amara hotelean egin zen Gipuzkoako atletismoaren galan Malen Ruiz de Azua eta Iñigo Urribarren atleta arrasatearrak izan ziren protagonistetako batzuk. Zilarrezko plaka oroigarri bana jaso zuten urteko atleta onenen modalitatean; Jonathan Perez atleta arrasatearrak eman zien saria. Bestalde, azken 25 urteetan Gipuzkoako atletismoaren alde lanean aritu diren hainbat epaile ere saritu zituzten. Horien artean, Arrasateko Julian Gallo eta Jesus Soto eta Bergarako Jaime Gartzia.



Iñigo Urribarren eta Malen Ruiz de Azua Donostian, oroigarriekin. | JONATHAN PEREZ



Parte hartu zuten pilotari guztiak talde argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

PILOTA

Santamasetako finalek erakutsi dute Arrasate Pilota taldeak baduela harrobia

Arrasateko pilotaren urteroko festa egin zuten zapatuan Uarkapen; 13 lehia jokatu ziren

J.B. | ARRASATE

Santamasetako txapelketako finalak jokatu ziren zapatuan Uarkape pilotalekuan. Goizetik hasita eta ia 20:30ak arte 13 partidu jokatu ziren eta batez ere arratsaldeko azken orduetan giro ederra izan zen harmailetan. Txapelketa amaitu ostean sari banaketa egin zuten eta ostean, talde argazkia. Eguna borobiltzeko pilotariendako zein zaleendako lunch ederra izan zuten, pilotalekuan bertan. Bi hitzetan esateko, Arrasateko pilotaren festa ederra izan zen zapatukoa.

Arrasateko 26 pilotari

13 partidu jokatu ziren, denetarikoa mailetan. 26 pilotari guztira, beraz.

Hona emaitzak: txikietan, Bergaretxe-Azkoaga (4-16) eta Sarabia-Errasti (16-7); umeen mailan, Apaolaza-Lezeta (7-16), Irasuegi-Irazabalbeitia (16-5) eta Bengoa-Narbaez (14-16); kimuetan, Garitano-Perez de Albeniz (16-5), Errasti-Gonzalez (16-9) eta Etxezarreta-Murgiondo (16-7); haurren mailan, Llodio-Murua (7-16); kadete mailan, Moron-Garate (18-13); gazte mailan, Etxezarreta-Moron (18-16); 22 urte azpikoetan, Arregi-Arabaolaza (18-17) eta azkenik, nagusietan, Bolinaga-Zuazua (18-11). Harrobirik ez zaio falta Arrasate Pilota taldeari.

ALBERTO GARATE
PRESIDENTEA

"Ilusioa eta emozioa izan dituzte finalek; partidu politik ikusi dira"

Arrasate Pilota taldeko presidentea pozik zegoen zapatukoa "pilotaren festa" izan zelako.

Nola joan da eguna?
Ederto. Sekulako giroa egon da Uarkapen, batez ere arratsaldeko azken partean. Horrenbeste, neska-mutil, guraso, aiton-amona, lagun eta pilotari ikustea oso polita da. Guretzako oso egun seinalatua da. Pilotaren festa bat da, azken finean. Urtean bi egiten ditugu; bat San Juan jaietan eta bestea Santamasetan.

Partiduen maila nolakoak izan da orokorrean?

Oso ona. Ilusioa eta emozioa izan dituzte finalek, barra-barra; batez ere gaztetxoan artean. Oso partidu politik ikusi dira.



J.B.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Ereintza Aguaplast taldearen gainetik pasa zen (33-18)

Arrasatearrek intentsitate handiarekin jokatu zuten eta Errenteriako taldeak ezin izan zion aurre egin

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Ford Mugarri jipoi ederra eman zion zapatuan Errenteriako Ereintza Aguaplast taldeari. Ane Herroren mutilek intentsitate handiz jokatu zuten partidu osoan zehar eta kanpokoek ezin izan zuten ezer egin. Herroren mutilek partiduaren hasieratik duten nagusitasuna erakutsi zuten: ia zulatuz ezinezko defentsa eta eraso eraginkorra. Talde moreak hasieratik abantaila hartu zuen markagailuan eta baloi jabetza luzeak kontraeraso azkarrekin uztartu zituzten.

Bigarren zatiaren hasierarako, Herroren mutilek Errenteriako taldeari zazpi goleko aldea ateratzen zioten eta emaitzarekin jokatzeko hasi ziren. Aldeak gora egin ahala, jokoaren intentsitatea galtzeko arriskua izaten da, baina ez zen zapatuko partiduan hori gertatu. Zenbat eta gol gehiago sartu, aldea handitzeko gogo handiagoa zuten Ford Mugarriko jokalariek. Gauzak horrela, Herroren mutilek partiduaren 15 goleko aldearekin bukatu zuten (33-18).

Partiduaren bukaeran, taldeko entrenatzailea, Ane Herrero, taldeak egindako lanarekin pozik agertu zen, izan ere, defentsa eta eraso arteko oreka mantentzen jakin zuten eta nahiz eta aban-



Ford Mugarriko Zuloaga gola sartzeko ahaleginetan. | IMANOL SORIANO

tailea handia izan, intentsitate handia mantentzen jakin zuten. Sartutako gol kopurua ere aipatu zuen Herroren mutilek, liga orekatu batean igoera fasean sartzeko erabakigarria baita taldeak egin duen gol kopurua.

Herroren agurra

Urtarriletik aurrera, ikasketa kontuak direla eta Ane Herroren

Arrasate Eskubaloi taldeko entrenatzaile izateari utziko dio eta zapatuko Herroren mutilek jokatu duen azkeneko partiduaren izan zuten. Eguaztenez, Donostiako Egiaren aurka Ford Mugarri taldea Herroren mutilek entrenatzen duen azken partiduaren izango da. Urtarriletik aurrera bigarren entrenatzaileak, Pablo Garciak, hartuko du taldea.



Jokalariek eta zaleak pozik, partidua irabazi eta gero. | ARATZ LOSADA

SASKIBALOIA

Jarraiko zazpigarren garaipena oñatiarrendako

62-81 irabazi zion Universidad de Valladolid ekipoari, eta A taldeko lider segitzen dute

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Ezin hobeto bukatu du urtea Natra Oñatik, zapatuan Valladoliden etxean oso indartsua den aurkariari, Universidad de Valladolidi eraso irabazita (62-81). Gabonetako oporrak bolada onean hartuko dituzte oñatiarrek: jokatu dituzten azken zortzi partiduetatik, zazpi irabazi dituzte eta bakarra galdu, eta taldeko liderrak dira, 15 punturekin.

Aratz Losadak esaten duenez, "hasieratik nahiko indartsu jokatu zuen taldeak, eta aldea ateratzen hasi zen". Hala, lehenengo laurdena 18-27 partzialarekin bukatu zen. Bigarren laurdena ere "oso ondo" jokatu zuen Natra Oñatik, eta 30-48 zebiltzala bukatu zen tarte hori. Universidad de Valladolidek hirugarren laurdenean lortu zuen distantziak txikitzea: "Lehenengo bost minutuetan apalago jokatu zuten eta etxeok gerturatu egin ziren, baina bigarren bost minutuetan berriz 20-25 ipini ziren", kontatzen du Losadak. Hala, hirugarren laurdena 14-21 partzialarekin bukatu zen. Dagoeneko norgehiagoka poltsikoan zuten Natra Oñatik, eta laugarren laurdenean

lasaiago jokatu zuten, 18-12 partzialarekin. Ander Gartziak egin zituen partiduko puntu gehien, 19.

Aratz Losadak esaten duenez, Natra Oñati "talde hobea" zen Universidad de Valladolid baino, baina ez zuten irabaztea espero: "Eurak gazteak dira, oso modu intentsuan jokatzeko dute denbora guztian, eta etxean oso deserosoa da talde hori: iaz, 14 hilabetearen partidu bat ere ez zuten etxean galdu. Beraz, bagenekien partidu arriskutsua eta zaila izango zela".

Urtarril erdialdera arte atsedean hartuko dute EBA ligakoek. Eta orduan ere, kantxa faktorea alde dutela eutsiko diote ligari Natra Oñatik, izan ere, bi partidu jarraian etxean jokatu dute. Hirugarrena kanpoan jokatu da amaituko da ligako lehenengo itzulia.

Beti taldearekin

Saskibaloi taldeak eskerririk beroenak eman gura dizkie zaleei, etxean zein kanpoan babesten dutelako taldea. Zapatuan, 25 bat zale izan ziren Valladoliden animatzen.

FUTBOLA

Bergara, Real, Aretxabaleta eta Eibar taldeek jokatu dute Gabonetako Bergarako futbol torneo

Bergarako Ipintza eta Agorrosin futbol zelaiek gazte mailako Gabonetako Futbol Torneo hartuko dute. Kanporaketa partiduak Ipintzan jokatu dituzte, eta hilaren 31ko finala, Agorrosin. Aurten, txapelketan egongo diren taldeak dira Bergara, Real, Aretxabaleta eta Eibar. Hala, hilaren 29an, 16:15ean Bergarako eta Realak jokatu dute. Domekan, Eibarrek eta Aretxabaletak jokatu dute, 17:00etan. Finaleko partiduaren abenduaren 31n izango da, 16:00etan.

TXIRRINDULARITZA

Eliteko ziklistak izango dira domekan Oñatiko ziklo-kros txapelketan, Aloña Mendiren eskutik

Aloña Mendiko ziklismo sailak antolatuta, eliteko ziklo-kros txapelketa izango da domekan Oñatin. Hauek dira txapelketen orduak: kadeteena, 10:00etan; gazteena eta eliteko emakumezkoena, 11:00etan; master 30, 40, 50 eta 60 kategorietakoena, 12:00etan; eta eliteko eta 23 urtetik azpikoena, 13:15ean. "Nahiago dugu pausoa poliki-poliki eman, eliteak ekartzeko antolaketa lan handiagoa behar delako", zioen iaz Pedro Irurtzunek. Bada, eman dute pausoa, Euskal Herriko egutegian dagoen hitzordua hartuko dutelako.

ESKUBALOIA, OHOREZK.

Donostiarrak nagusi Oñatiko lagunartekoan

Aloña Mendiren eskutik, lagunartekoa jokatu zuten Bera Berak eta Zuazo Barakaldok Zubikoan zapatuan, eta 34-20 irabazi zuten gipuzkoarrek, defentsari eta kontraerasoari esker eta partidu osoan zehar maila handiagoa erakutsita. Urtarrilaren 9an, ligan neurtuko dituzte indarrak berriz bi taldeok.



IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

SQUASH

Harriet Arenatza | Arrasate AKE Squash taldeko kide

"Squashean jokatzeko ez dudanean izaten dut gerriko mina; jokatzeko dudanean, osterara, ez"

- ▶ Eskoriatzako EAeko zortzi onenen artean lehiatu da asteburuan, Euskadiko Masterrean
- ▶ AKE Squash taldeko kide, squasha nabarmendu du beste kirol jarduera askoren gainetik

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Harriet Arenatza (Eskoriatza, 1980) berandu hasi zen squashean jokatzeko. Serio jokatzeko lau urte egin ditu, baina nahikoa izan dira Euskal Herri mailan urte osoan maila onena erakutsi duten zortzi jokalarien artean egoteko. Hala, asteburuan Euskadiko Masterra jokatu du Hondarribian: "Parte hartzea jada nahikoa sari izan da", diosku. Horrek esan nahi du AKE Squash taldeko kide batek lehenengo jokatu duela halako txapelketa bat: "Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiet taldeko lagun Iñaki Uribeetxeberriari eta Silverio Alvarezzi, taldea bultzatzeko egiten duten lanagatik".

Hasteko, zelan joan zen zapatuko Euskadiko Masterra?

Seigarren postuan amaitu nuen, espero baino hobeto. Hiru partidu jokatu nituen: lehena Javier Villanuevaren aurka 3-0 galdu nuen; gero bera izan zen txapel-dun. Bigarren lehia irabazi egin nuen. Iruñean bizi den Liam Kane ingelesaren aurka (3-1). Azken partiduan, bosgarren edo seigarren postua erabakitzean, 3-2 galdu nuen Sestaoko Aitor Yanguasen aurrean. Faborito argia zen Yanguas, baina oso ondo jokatu nuen eta izugarri luzatu zen.

Zer dela-eta hasi zinen squashean jokatzeko?

Nahiko berandu hasi nintzen, hemen badira squashean jokatzeko 23 urte daramatzatenak. Nik azken lau urteak egin ditut seriotasun apur batekin. Eskoriatzan hasi nintzen jokatzeko, kiroldegian dagoen pilotaleku txikian; hura ez da squasheko kantxa, pilotaleku txiki bat da, baina jendea gustura ibiltzen da han squashean, baita esku pilotan ere. Gero Arrasatera etortzea erabaki nuen, eta gaur arte.

Eta zer dauka kirol horrek?

Oso azkarra dela, esku hartzekoan berehala *engantxatzen* zaitu. Denbora tarte txikian kirol mordo egiten da, partidu bat jokatzeko ari bazara, eta momentu batean kontzentrazioa galdu kontrarioak lau tanto egingo dizkizu jarraian. Horrek esan nahi du ezin dela partiduen haria galdu, kontzentrazioa etengabekoa izan behar da; ezin zaitezke lasaitu. Askok betetzen nauen kirol jarduera da.

Erraketa erabiltzen den beste edozein kirol modalitateak baino gehiago?

Bai. Frontenisean jokatu izan dut, padelean ere ibili izan naiz, baina nik squasha nahiago dut. Beste horiek lasaiagoak dira,



Harriet Arenatza, joan den egunean, Musakolako kantxan. | X.U.

arnasa har dezakezu, pilotaren botea handiagoa izaten da, txapa altuago dago... Horiek ere gustatzen zaizkit, baina nahiago dut squasha.

Astean zenbat denbora eskaintzen diozu squashari?

Aste batzuetan hirutan entrentzen naiz, pare bat orduz, beste batzuetan bost alditan... Beti iruditzen zait gutxi dela [Barre].

Gaur egun zenbat lagun ari zarete AKE Squash Taldean?

Txapelketetara maiztasunez joaten garenok hiruzpalau gara, baina

"Master Txapelketan egote hutsa saria izan da niretako"

"Squasha kirol zorrotza da, bai; norberaren mailan jokatzeko da kontua"

guztira zortzi lagun inguru ibiltzen gara squashean maiztasunez jokatzeko. Taldean, berriz, hogeitun lagunetik gora gara, baina batzuk tarteka etortzen dira jokatzera.

Zaila da jendea kirol honetara erakartzea?

Bai, zaila da, publicitate gutxi duelako. Adibide garbi bat emango dut, aste honetan gertatu den kontu bat: Borja Golan Granadako squash jokalaria bat da, eta 15 urte zituenean Ingalaterrara joan zen squashean jokatzera, profesionala da. Bada, Munduko Txa-

pelketa jokatu berri du, eta bosgarren sailkatu da; hain zuzen, txapelketa irabazi duenak kanporatu zuen. Pentsa, Munduko Txapelketan bosgarren sailkatu, eta inon ez da azaldu. *Marca* kirol egunkariak lau lerro eskaini zizkion; uste dut horrek dena esaten duela.

Munduan zenbat lagun ibiliko dira squasheetik bizi izaten?

Munduko rankingean lehenengo 20ak seguru profesionalak direla. Espainian ere badago bateren bat. Baina, normalena da eskolak emanaz soldata irabaztea.

Eta, Euskal Herrian ze egoeratan dago squasha, ze, behera etorrita dagoen kirol jarduera da.

Bai, ezin da esan jende asko ibiltzen denik. 90eko hamarkadan oso jarduera popularra zen, kiroldegi ia guztietan zeuden squash kantxak, baina gero behera egin zuen. Orain hemengo txapelketetan 40 lagun inguru ibiliko gara, baina ikustekoa dago, esaterako, Iruñean zelako zaletasuna dagoen. Han 80-100 lagun inguru batzen dira squashean jokatzeko. Tarteka neu ere Iruñera joaten naiz, giro polita egoten da.

Zer behar da squashean jokatzeko? Izan ere, kirol jarduera gogorraren fama du.

Gogoia, ez da gehiago behar. Egia da squashean jokatzeko hastekoan giharretako mina denean izaten dugula [Barre] baina beste kirol jardueratan moduan, poliki hastea da gakoa, eta norberak neurtzea ze mailatan edo ze intentsitatean jokatu behar duen. Gurean bada jende oso garaia, motelak direnak jokatzeko, baina oso teknikoak. Eta badira teknikoak ez direnak, baina oso azkarak. Eta adinean ere antzera. Nire lagun baten aita izan zen Espainiako lehenengo squash monitorea, eta 71 urterekin beterranoen Espainiako Txapelketa jokatu berri du.

Horrek erakusten du, zainduz gero, posible dela squashean luzaroan jokatzeko.

Duda barik. Kirol zorrotza da, baina norberak jakin behar du ze mailatan jokatu behar duen. Aspaldian kirolik egin ez duenak eta korrika neurri gabe hasten denak sekulako giharretako mina izango du hurrengo egunean. Hemen berdin, gertatzen dena da squashean imajina ezin dezakegun lekuetan izaten dugula giharretako mina [Barre]. Egia da, baina, squashean jokatzeko dudanean ez dudala gerriko minik izaten, eta jokatzeko ez dudanean, osterara, bai.



Elgetako neska-mutikoak sokasaltoan | L.Z.

Materialismotik at jolastea berreskuratu behar dugu

Koldo Gilsanz psikologoak dio ondo aukeratu behar ditugula jostailuak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Jolasak berebiziko garrantzia du haurren gizarteratzean. Horrela dio *Guraso.com* atarirako idatzitako azken artikuluan Koldo Gilsanz psikologoak. "Giza talde edo kultura guztietan agertzen den aktibitatea da jolasa", dio. Uste du gizarte postmodernista honetan egiten dugun guztiak zerbaiterako balio behar duela, eta horregatik kendu diogula garrantzia jolasari. Gogorarazten

digu jolasak haurrengan nerbio sistemaren bilakaera indartzen duela, gorputzaren eta zentzumeneren garapena sustatzen duela, pentsatzeko gaitasuna eta sormena bultzatzen dituela, eta era guztietako bizipenak eragiten dituela. "Jolasaren bidez, umeak inguruko errealtatera egokitu daitezke, hobeto integratu daitezke (...), eta era berean autoestimua handitzeko aukera eskaintzen die".

Jolasa, gauza serioa

Groucho Marxek esan zuen jolastea oso gauza serioa dela. Eta beste aditu batek, hezkuntzaren helburu gorena zoriontasuna izango balitz jolasaren zeregina lehentasuneko izango litzatekeela. Iritzi berekoa da Gilsanz. "Kontuan izan nola duela ez urte asko haurrok heldurik gabe denbora asko ematen genuen, eta zer egin topatzen genuen. Asperetzea estimulu bikaina da!"

Fruta-zukuek ezin dute fruta naturalaren kontsumoa ordezkatu

L.Z. | ARRASATE

Gero eta zuku gehiago kontsumitzen dugu. Nahiz eta fruta naturalarekin egindakoak izan, adituek ohartarazten dute fruta-zukuek ezin dutela inolaz ere fruta naturalaren kontsumoa ordezkatu. *Consumer* aldizkarian irakurri dugu albistea.

Egia da fruta naturalarekin egindako zukuak propietate interesgarri asko dituela; besteak beste, osasunerako onak diren bitamina ugari. Baina ez da berdina fruta-zukua hartu edo fruta naturala jan.

Zukuak eta loditasuna

Okela gehiegi eta fruta eta barazki gutxiegi kontsumitzen ditugula esaten digute behin eta berriz. Hala, sendagileak konturatu dira askoren aukera izan dela fruta zuku eginda kontsu-

mitzea. "Ez da parekoa", esaten dute. "Helduek egunean gutxienez hiru fruta-pieza jan beharoko lituzkete", azaltzen dute. "Zuku naturala ez da txarra, baina gehiegi kontsumitzeak loditasun arazoak ekar ditzake. Eta emakumeetan diabetes arazo iturri ere izan daiteke".

Adituek azaltzen dute zukuak kontsumitzeak ez dituela fruta osoa jatearen efektu fisiologiko berak eragiten. "Zukuek ez dute mastekatzeko funtzioa eskatzen, eta, sarri, uraren kontsumoa ordezkatzeko dute".

Horregatik, garrantzitsua da helduen zein haurren dietan egunero hiru edo bost fruta-pieza sartzea. "Haurren artean, gainera, garrantzi berezia du txikitatik dieta ohitura osasungarriak bultzatzeko", gogorarazten dute adituek.



Neskatala zuku edaten. | GUILLAUME BRIALON

LOMCE hezkuntza lege berriaren aurkako sinadura bilketa kanpaina abiarazi dute

L.Z. | ARRASATE

Espainiako Hezkuntza Ministerioak aplikatu nahi duen LOMCE —Irakaskuntzaren Kalitatea Hobeitzeko Lege Organikoa— delakoaren kontrako sinadura bilketa abiarazi dute hainbat erakundek. Legea aurreproiektu fasean aurkitzen da, eta beharrezko ikusten dute ekimen horren kontrako sinadura kanpaina abiaraztea. Aurre egiteko arrazoiak zeintzuk diren ere azaldu dute. "Zentralizazioa handiagotzen du", irakurri dugu Ehige erakundearen atari digitalean. "Estatuak %10 gehitzen du hezkuntza-edukiak zehazteko duen ahalmena". Bestetik, euskara ez dela existitzen diote: "Lege proposamen berriaren ez dira existitzen ez euskara, ez katalana, ez galegoa". Salatzen dute ere familien parte-hartzea txikiagotu egiten duela: "Kendu egiten die fami-

liei erabaki-ahalmena hainbat gai garrantzitsuetan —ikastetxeko proiektua, urteko plana, ikasleen sarbidea, eraikuntzen mantentzea...".

Aldaketa nagusiak

Lege berriak ikasketa prozesuan ezarriko dituen aldaketak ere salatzen modukoak direla uste dute sinadura kanpaina abiarazi dutenek. "Ebaluaketa berriak ipintzen ditu 3. eta 6. mailan, horrek errepikapen gehiago ekarriko ditu". Bestalde, 4. mailako ikasleek kanpoko azterketa bat egin behar dute DBHko titulua lortzeko, eta Batxilergokoek amaierako azterketa egin behar dute Batxilergoko titulua lortzeko". Erabakiak lehenago hartzera derrigortuko ditu ikasleak: "DBHko 3. mailan bi motatako matematikak daude jada".

Euskararen erabilera bultzatzeko tailerrak gurasoei

L.Z. | ARRASATE

Uztailean jakin ditugun datuen arabera, egun Euskal Herrian %27 gara elebidunak, eta euskararen kale erabilera, berriz, %13,7 da. Euskaldunen artean gogoeta prozesu bat abiarazteko premia ikusirik, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak *Euskaraz, zergatik ez?* izeneko kanpaina ipini du martxan.

Proiektuak Kataluniako *Tallers per la Llengua* diseinatutako *Taller per al foment dels Usos interpersonales en Llengua Catalana* sentsibilizazio tailerren du oinarri. Topaguneak eskaintza jaso, tailerra moldatu, eta euskarara ekarri du. Tailerren helburu nagusia euskararekiko jarrera baikorrak sustatzea da, eta tailerreko parte-hartzaileak hiztun aktiboagoak bihurtu nahi ditu.

Nerabe, gazte eta gurasoei

Bi ordu eta erdiko iraupena duten tailerrak prestatu dituzte, bereziki nerabe, gazte eta gurasoei egokitutakoak. Bazkideekin elkarlanean Topaguneak 13 euskara elkartetako 40 trebatzaile ipini ditu martxan. Besteak beste, Arrasateko AED eta Txatxilipurdi, Bergarako Jardun eta Aretxabaletako Loramendi elkarrekin.

Norbanakoaren joera

Euskal hiztunak diren norbanakoen joeran eragin gura dute tailer horien bitartez, egoeraz jabetu eta gogoetaren bidez joerak aldatzeko. "Norbanakoaren joeraren eraginaren eta garrantziaren gainean hiztunak hausnartzeko jartzea dugu helburu Topagunean *Euskaraz, zergatik ez* tailerren bidez. Tailerreko

parte-hartzaileek hizkuntza jarrerak eta egiten dugun hau tuak izan dezaketean eraginaz gogoeta egingo dute. Gogoeta hori taldean egiten da: elkarren artean hausnartuz; eguneroko egoerak oinarri hartuta, eta bakoitzaren jarrera eta portarea epaitu barik". Ekimena da euskara ezagutu arren, erabilera erandako esparruak irabazteko dituzten euskaldunendako. "Etor-kizunaren ikuspegi baikorra irudikatu nahi dugu, datuok aukera gisa aurkeztuz. Ezagutza datuen arabera, erabilera aukerarik bada, aukera hori gurea da, euskaldunona, euskara daki-gunona", diote Topagunetik. Argibide gehiago <http://www.topagunea.org/zergatik> helbide elektronikoan aurki dezakezue.



KULTURA



Isidro San Migel Mainer Arregiri txapela ipintzen, gainerako finalisten begiradapean. | BERTSO ESKOLA

Mainer Arregirik irabazi du Oñatiko VI. bertso txapelketa

Isidro San Miguelek ipini zion txapela; irabazlea zela jakitean, sekulako txalo zaparrada jaso zuen Arregirik

M.A./E.A. | OÑATI

Mainer Arregirik irabazi du Oñatiko VI. Bertso Txapelketa. Zapatuan jokatu zen hori, Oñatiko gaztelekuan eta herritar mordoaren begiradapean. Epaimahaia ez zuen ez lan makala izan, oso parekatua izan baitzen bertsolariak erakutsi zuten maila.

Egun osoko egitaraua zuten gertu bertso eskolakoei Oñatiko VI. Bertso Txapelketaren finalaren egunerako. Zapatuan, 13:00etan hasi ziren ekintzekin, triki-bertso poteoarekin. Horren ondoren bazkaltzera joan ziren; gaztelekuan bertan antolatuta zuten jantokia. Tripa bete ostean, nola ez, musikari egin zioten tokia; hala, Agurtzane Mujika eta Esozi Sobak, beste musikari batzuen laguntzarekin txapelketarako bereziki sortutako abestiarekin eta beste hainbat doinurekin girotu zituzten final aurreko minutuak. Urduritasun eta emozio minutuak.

Gaztelekua beteta

Iragarri moduan, 18:00etan eman zitzaion hasiera Oñatiko VI. Bertsolari Txapelketako finalari. Gaztelekuko areto nagusia beteta, finalistek 300 entzuleren aurrean egin zuten saioa. Zozketa bidez erabaki zen zein hurrenkeratan egingo zituzten bertsoak; alegia, zein izango zen lehena eta zein azkena. Lehena Joseba Igartua

izan zen. Josu Igartua, Joseba Lasagabaster, Iñaki Olalde, Andoni Goitia eta Mainer Arregirik jarraitu zioten hari. Oholtza gainean aurkezle eta gidari lanetan aritu ziren, bestetik, Mirari Sagarzazu eta Oñeka Anduaga.

Ariketa puntuagarriak

Behin gai-jartzaileak saioko nondik norakoak azaldu ondoren, agur banarekin hasi zuten saioa sei protagonistek: ariketa horretan, finalean sartu ez ziren beste bertsolariak izan zituen gogoan Joseba Igartuak; bigarrenak, Josu Igartuak, hankarik ez sartzeko asmoarekin zetorrela esan zuen; aurreko txapelketako irabazle Lasagabasterrek, berriz, titulua berritzeko helburuarekin zetorrela. Iñaki Olalde hil berri den Joxe Agirre bertsolari azpeitiarra izan zuen gogoan. Andoni Goitiak hasi zuen saioa esanez kolpeak banatzeko asmotan eta txapelketa irabazi asmoz zetorrela. Mainer Arregirik ere bide beretik, bera ere txapel bila zetorrela esan zuen. Eta baita lortu ere!

Zortziko nagusiko ariketak izan ziren lehen bertso puntuagarrien aitzakia. Nabarmenezkoa Goitiak eta Arregirik osatu zuten ofizioa, saioko lehen umore kolpeak eta bertso ederrak kantatu baitzituzten. Zortziko txikian osatu beharreko bertsoekin saioko une

umoretsuenak bizi izan ziren. Hurrengo ariketan hitz bat eman zitzaion oinarri edo gai moduan, hamarreko txikian bertso bat osatu zezaten. Andoni Goitiaren bertsoa, *sustraiak* hitzari lotua, izan zen txalotuena, zalantza barik. Bertsolariak osatu beharreko azken ariketa zen gai bati bina bertso botatzea, bakarka. Ariketa honetan maila txukuna erakutsi zuten bertsolari guztiek, Josu Igartuaren bi bertsoek merezi duten arren aipamen berezia.

Behin lan hauek burututa, txapela eskuratu ahal izateko buruz burukorako bi puntuazio altuenen jabeak jakinarazi zituzten: Josu Igartua eta Mainer Arregirik ziren horiek. Buruz burukoan, gai bat emanda puntutan kantatu beharra izan zuten biek batera. Ariketa horretan ezin esan bietako inor nabarmendu zenik. Azken ariketa kartzelako bakarkako gaia izan zen. Maiek 2012ko abenduaren 21erako iragarri zuten munduaren bukaeraren gainean bota behar izan zituzten bina bertso. Ondoren eman zuten txapeldunaren berri. Txaloz eta oihuz hartu zuen ikusle goiak Arregiren garaipena.

Guztiak oholtza gainean

Taula parte-hartzaile eta antolatzailerik bete zen txapelketari bukaera emateko. Oñatiarrek txaloz agurtu zituzten guztiak.

MAIDER ARREGI TXAPELDUNA

"Bertsoekin disfrutatzen jarraitzea, hori da helburu nagusia"



OIHANA ELORTZA

Mainer Arregi gaztea da Oñatiko VI. Bertso Txapelketako irabazlea. Ez zuen halakorik inondik inora espero.

Txalo zaparrada ederra jaso duzu irabazle zarela esan dutenean.

Hala izan da, bai. Ez nuen inolaz ere espero txapela irabaztea; asko pozten nau, noski, baina beste batzuk ikusten nituen nire aurretik.

Zergatik diozu hori?

Gaur nahiko pareko aritu gara guztiok. Hori da nire sentsazioa; bertso eskolan aritu izan garenetan, baina, ni baino hobeto ikusi ditut beste batzuk. Eguna izaten dira eta gaur egun ona izan dut.

Bukaerako bertsoan familia, lagunak eta bertso eskola aipatu dituzu.

Jende asko etorri da ikustera eta guztiak eskertu gura izan ditut azken bertso horrekin.

Txapelketaz, zer esango zenuke?

Uste dut antolakuntzak lan handia egin duela; berdin, gai-jartzaileei dagokienean.

Eutsi beharko diozu txapelari...

Eta hala ezin bada ere, ondo. Bertsoekin disfrutatzen jarraitzea da opari handiena.

MIRARI SAGARZAZU ANTOLATZAILEA

"Inoiz ez dut gaztelekua horren beteta ikusi. Poz handia da"



OIHANA ELORTZA

Mirari Sagarzazu da antolatzailerik bat. Pozikdago txapelketak emandakoarekin.

Pozik egoteko moduan zaudete txapelketak izan duen erantzunarekin.

Bai. Egia esan, lan handia egin dugu dena antolatzen. Ekainetik aritu da zazpi laguneko lan-talde bat honetan buru-belarri eta bideraketa lan bat ere egon da. Guretako opari ederrera da ikusle goiak lan ona egin dugula esatea!

Gaztelekua horren beteta ikusteak ere poztu zaituzte.

Inoiz ez dut gaztelekua horrela ikusi. Poz handia da. Horren adin desberdinetako jendea batu da, gainera! Txikietatik hasi eta 80 urtera arteko jendea egon da.

Gaurko finalari dagokionean, zer esango zenuke?

Hartuko dut tartea gaurko saioa entzun eta ondorioak ateratzeko, baina esango nuke, azken txapelketako finalarekin alderatuta, gaur maila hobea erakutsi dutela bertsolariak.

Parekatuta, beraz, bertsolari guztiak ere.

Bai, oso. Ez ditugu puntuazioak eman, baina bataren eta bestearen arteko aldea oso txikia izan da.

Oso gospel doinu ezagunekin eta ahots izaera berezidun horiekin, zutik ipini zuten Oñati

Santa Ana antzokian eskaini zuen kontzertua egubakoitzean AEBetako hirukoteak

MIREN ARREGI | OÑATI

Joniece Jamison, Tori Robinson eta Linda Lee Hopkins dira Divine Gospel Reunion. Ameriketako Estatu Batuetako eliza afroamerikarretako doinu beltzekin oñatiarrak zutik eta dantzan ipintzea lortu zuen hirukote indartsuak. Egubakoitz gauean eskaini zuten kontzertua Santa Ana antzokian. Aurre-salmentan sarrerak buka-

tuta, larri joan ziren asko eta asko tokirik egongo ez zelakoan antzokira. Azkenean, baina, guztiondako tokia egon zen.

Doinu ezagunekin, jendea zutik

Ez da ohikoena Santa Anan jendea zutik, txaloka eta dantzan ikustea, baina horrela gertatu zen egubakoitzean. Hiru artistek, euren ahots eta talentu berezia-

rekin, berehala lortu zuten publikoarengana iristea. Doinu lasaiak eta biziak tartekatu zituzten. Biak baitira musika espiritual edo ebanjelikoaren adierazgarri. Jainkoaren hitza jendarteratzen dute, batzuetan goxo, eta gehienetan alai eta indartsu. *Holy God* batekin hasi zuten emanaldia. Sarre-ra gisa ez zen egokiena izan, kantu trunkila ahots ozenez

heldu zelako agian. Bigarrena *Let My People Go* indartsu bat izan zen. Hasierako horiek kontzertua izango zenaren aurrerapen bat izan ziren; esan bezala, tartekatu baitzituzten estilo askotariko abestiak.

Abesti gehienak abestu zituzten hirurek elkarrekin, baina bakarkakoak ere egin zituzten. Azken horiek, gainera, artista

bakoitzaren benetako talentua erakusteko balio izan zuten. Izan ere, hirurak batera, zailagoa zen ahots bakoitza bereiztea eta horiez gozatzea. Hala, plazer bat izan zen Joniece Jamison, Tori Robinson eta Linda Lee Hopkins bakar-ka entzutea.

Pianoa lagun

Musika espiritualetan edo gospelen ohikoa da instrumentuen presentzia, eta Oñatira, pianoaz lagunduta etorri ziren hiru abeslariak. Michael Marnet piano-jotzaileak izan zuen hiru handiak pianoz laguntzeko ardura ez nolana hikoia. Abesti guztiak jo zituen berak, hasierako *Holy God* ospe-tutik hasita azkenengo *Oh Happy Day* raino. Gospel musikak Jainkoaren mezu ona helarazten du; oinarrian, albiste ona da berak dakarrena. Bada, bukaera bikain baino bikainagoa eman zioten aipatutako abestiarekin, musika mota horren misioa maila gorenera eroanez.

Santa Ana lepo

Ez zen aulkirik sobratzen egubakoitz gauean Santa Ana antzokian. Eta ez zen axolagabe gelditu zen ikuslerik ere. Geldoenek ere zutik eta dantzan bukatu zuten emanaldia. Argi geratu zen, uste batzuen kontra, guk ere badakigula musikaz gozatzen, badakigula ona dena disfrutatzen.



Divine Gospel Reunion taldekoak Santa Ana antzokian, egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

Doinu dantzagarrien nahasketaz beteriko emanaldia Elkano Browning Cream-en eskutik

Franck Mantegari eta Dave Wilkinson musikariak Mikel Azpiroz musikari donostiarraren gidaritzapean, groove handiko erritmo itsaskorak jo zituzten

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Hammond organoa, bateria eta gitarra elektrikoa oinarritzat hartuta, blues eta soul doinuak munduko musika ezberdin eta

dantzagarriekin nahasten dituen taldea da Elkano Browning Cream. Egubakoitz arratsaldean Arrasateko Amaia Antzokian egindako emanaldian, *Elkano Browning*

Cream (2006), *2* (2010) eta *Bohemia* (2012) lanetan aurkitu daitezkeen abestiak jo zituzten, eta baita abesti berriak eta bertsoak ere.

Ikusleak konkistatzea lortu

EBC taldeak bere lehenengo laneko bi abestirekin hasi zuen emanaldia eta, nahiz eta emanaldi hasieran ikusleak geldirik egon, kontzertuaren bukaerarako txalo zaparrada jaso zuten. Horren erakusle izan ziren 2 diskoko *Far East Sweet* eta *Sugaar* abestiak eta baita Muddy Water bluesman zaharraren *I got my mojo working* abestia. Kantu honen ostean, kontzertua bukatutzat eman zuten, baina publikoaren oihuek taldea berriz oholtza gainera bueltatzera behartu zuen.



EBC Amaia Antzokiko hall-ean. | ANDER MONEDERO

39 artista handiren lanak ikusgai Arregi galerian, egubakoitzetik

M.A | ARRASATE

39 artista eta formatu txikiko 39 lan ikusgai. Guztiak ere Iñigo Arregi artista arrasatearraren Arregi Arte galerian. Artista bakoitzak proposamen bat egiten du: 35 pintura daude eta laueskultura. 39 artista horietatik, berriz, 14 dira bizkaitarrak, 19 gipuzkoarrak eta sei Cuencakoak;

euskaldunen artean aipatzekoak besteak beste, Jose Luis Zumeta, Vicente Amezttoy, Jorge Oteiza, Rafael Ruiz Balerdi edota Bingen de Pedro. Sona eta izen handiko artistak guztiak; Iñigo Arregiren beraren lan bat ere bai. 39 artisten lanaren lagin bat erakusten duen erakusketa hau urtarilaren 15era arte egongo da ikusgai.



Egubakoitzean, inaugurazio ekitaldian; ezkerrean Iñigo Arregi. | IMANOL SORIANO



Salmorejo Films taldeko kideak sari banaketan. | IMANOL SORIANO

Salmorejo Film taldearen 'Trans', III. 'Ti tau!' film laburren rallyaren irabazle

- ▶ Publikoaren saria Mainontziak taldeak irabazi zuen
- ▶ Taldeek 9 ordu izan zituzten laburmetraia egiteko

ANDER MONEDERO | ESKORIATZA

Einginke Eskoriatzako taldeak antolatuta, *Ti Tau!* umorezko laburmetrai rallya egin zuten zapatuan. Hirugarren edizioan, Einginke elkarteok lehiaketaren oinarriak aldatu eta laburmetraiak umorezkoak izatea derrigortu dute. Aldaketa hori egunaren bukaeran egin zuten lanen proiektzioan nabaritu zen: laburmetraiak hasi eta berehala, publikoa barrezka hasten zen.

2012ko *Ti Tau!* jaialdian, lau talde aurkeztu ziren: Hegoaixe, Mainontziak, Penedrive eta Salmorejo Films. Antolakuntza lanetan ibili zen Aitor Agirianoren esanetan, jaialdiaren data aldaketak parte-hartzea txikiago izatea ekarri zuen, baina sortutako giroarekin pozik zeudela nabarmendu zuen. Rallyan parte hartu zuten lau taldeek bederatz

ordutan umorezko laburmetraia bat egin behar zuten eta antolatutzak aukeraturako sei lekutatik hiru leku agertu behar ziren.

Horrelakoetan gertatzen den bezala, talde bakoitzak leku horien ikuspuntu erabat ezberdina erakutsi zion: batek Alberja jacuzian bihur zuen eta besteak elizan.

Bi sari, bi ikuspuntu

Zapatuko umorezko laburmetrai rallyan, bi sari banatu zituzten: epaimahaiaren saria eta publikoaren saria. Bi sari hauek banatzerako orduan irizpideak zeharo desberdinak izan ziren: epaimahaiaren sariak gidoiaren eta irudien kalitatea baloratu zituen eta publikoak gehien barrearazi zion laburmetraia aukeratu zuen. Laburmetrai rallyaren sari nagu-

sia, 300 eurokoa, Salmorejo Films taldearen *Trans* laburmetraia irabazi zuen. Filmean, Eskoriatzako herritar batek izandako transformazio edo eraldaketa kontatzen dute.

Publikoaren saria, berriz, Mainontziak taldeak egindako *Entre fogones y lapikos* laburmetraiak irabazi zuen. Bertan, Eskoriatza telebistako sukaldaritza saioan, Argiñanoren laguntzarekin, osagai naturalekin patata tortilla bat nola egin erakutsi zuten. Egindako lanarengatik Mainontziak taldeko hiru kideek urdaiazpikoa eta botila bat xanpain irabazi zuten.

ESANAK

"Egutegi aldaketak parte-hartze txikiagoa ekarri du"

AITOR AGIRIANO | EINGINKE

"Urtero parte hartzen dugu eta lagun arteko giro aparta sortzen da"

IMANOL BELOKI | HEGOAIXE TALDEA



Hegoaixe taldeko kideak film laburra editatzen. | IMANOL SORIANO



JOSETXO ARANTZABAL

Jantzi eta guzti, entsegua

Hilaren 29an eta 30ean estreinatuko dute Bergarako pilotalekuan *Peter Pan* musikala eta dagoeneko buru-belarri dihardute entseguetan. Horren adierazle, atzo, domeka, entsegua egin zutela pilotalekuan bertan, hil bukaeran ikuskizunean erabiliko dituzten jantzi eta guzti. Dekoratuak ere badituzte, baina, atzo ez zuten entsegua horiek egin.



JOSETXO ARANTZABAL

Oraindik baditu jarraitzaileak

Glu glu eta Pausoka ekoiztetxeek bultzatuta eta Jokin Oregiren zuzendaritzapean, *Goenkale*, *markesaren erretratua* antzezlanak Arrasatera heldu zen atzo. Espero moduan, Amaia Antzokia bete egin zen telesail ospetsuari omen egiten dion ikuskizuna ikusteko. Antzezlanak iraganeko eta gaurko *Goenkale*-ko sei aktore batu ditu; Felix Arkarazo, Carlos Nguema, Yannick Vergara, Xabier Perurena, Ylennia Baglietto eta, tartean, Maria Cruickshank oñatiarra dira horiek.



IMANOL SORIANO

6 orduko punk, rock eta psicho jaia

Askotariko doinuak izan ziren zapatuan Elgetako Espaloian. Jaialdia bere bigarren lana aurkezten ari den Rat-zinger taldeak ireki zuen, ondoren BC Bombs bilbotarrek punk-rock doinuekin jarraitu zuten eta, gero, jarraitzaile gehien eroan zuen Frydays Crew izan zen. Bukatzeko *Screamers & Sinners*-ek psychobilly emanaldia egin zuen.



JOSTAILUAK

2012ko azaroaren 8tik abenduaren 24ra arte



GURE MUSIKA TALDEAK

LOS
CRETINOS

Los Cretinos 'Addictus Sonitus' diskoa grabatu zuten Circo Perroti estudioan. | LOS CRETINOS

"60ko hamarkadako punk doinueta oinarritutako diskoa egin dugu"

- ▶ 'Addictus Sonitus' grabatzeko estudio analogikoarekiko apustua egin dugu
- ▶ Jorge Explosion-ek produktore lanak egin ditu disko berri horretan

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Los Cretinos taldeak, hamargarren urteurrenean, hirugarren lana kaleratu berri du. Bada, *Addictus Sonitus* diskoan, musikaren sus-traietara joan dira eta estudio analogikoan grabatu dute, Jorge Explosion kontrolatan zegoela. Hain zuzen ere, 12 kantu, 12 istorio eta 12 emozio punk eta gara-gearen irabigailutik pasatuta. Gu, horretaz guztiaz gehiago jakiteko, Jim TNT abeslari eta gitarra-jolearekin egon gara *kre-tino* hauen kobazulo ilun eta erreberberatuan.

Zer aurkituko dugu diskoan?

Agresibitatea, doinu itsaskor eta dantzagarriak, freskotasuna... Gustuko dugun musikaren koktel bat egin dugula uste dugu. Bertan, surfa, punka, garagea eta popa entzun daiteke, baina hau guzti hau gure edabe magikoan nahastu ondoren. Kantu gehienak gureak dira, Ramones taldearen bertsio bat kenduta, baina beste guztiak azken urteotan egindako kantuak dira. Horrez gain, *Mi moda soy yo* abestia berriz ere grabatu dugu, taldearen kantu onenetakoa dela uste

dugulako eta analogikoan grabatu nahi genuelako; gainera, oraingoan, saxo eta guzti grabatu dugu. Izan ere, gau luze baten aurretik entzun beharreko diskoa dela uste dugu.

Zelakoa izan da grabazioa?

Bada, berezia. Circo Perroti estudioa joan gara oraingoan, Gijonen dagoen estudio analogikora. Soinu berezia lortzeko asmoarekin joan ginen, eta merezi izan du. Hasieratik Jorge Explosioneekin harremanetan jarri ginen, eta hark gure produktore izatea proposatu zigun. Guk baiezkoa eman

genion; horrenbestez, lan honen parte garrantzitsu bat da.

Ze-nolako esperientzia izan da?

Produktore moduan, gure esentzia *garageroa* azaleratu du. Kantu askotan detaile eta melodia asko aldatu eta bideratu ditu. Nahiko bitxia eta xeblea da, baina bertan duen material analogikoari eta bere esperientziari esker, 60ko hamarkadako punk doinueta oinarritutako diskoa egin dugula uste dugu. Emaitzarekin oso pozik gaude.

Masterra Zarautzen egin duzue.

Bai; nahasketekin amaitu ondoren, Jorgek egindako masterrari agresibitate edo potentzia puntu bat falta zitzaioela uste genuen. Beraz, harekin hitz egin ondoren, Mikel Kazalis-ekin harremanetan jarri ginen. Hark bi kantu masterizatu zituen proba moduan, eta asko gustatu zitzaigun emaitza; beraz, harekin amaitu dugu *Addictus Sonitus*.

CDa kalean, noizko biniloa?

Lehenik eta behin, diru kontuak parekatzen saiatuko gara, baina hurrengo urratsa hori da.

Orain, zuzenean diskoa aurkezteko ordua heldu da.

Bai, taula gainean energia transmititzeko ordua heldu zaigu! Ostiralean Iluntz tabernan aurkezpen ofiziala egin genuen. Urtririlean 11n Bergarako Laino skate parkean izango gara; 12an Gasteizko Helldoradon izango gara Fleshtones taldearekin; 18an Antzuolako gaztetxean; eta 19an Arrasateko gaztetxean, *Noise & Distort* jaialdiaren barne.

ZERTZELADA



ADDICTUS SONITUS

Estiloa: Garagea, punka..

Egilea: Los Cretinos (Arrasate, 2012).

Argitaletxea: Mauka musikagintza.

Iraupena: 37 minutu.

Garage-rock-and-roll bizi eta itsaskorra

Uze jo du Jaimek eta Barbak zituzten ideak errealitatea bihurtzea. Aurreko diskoaren aurretik talde sendo eta egonkorra lortu zuten arrasatearrek Amaia eta Zabai esker, eta orduan buruan zituzten amets horietako batzuk gauzatu ziren. Baina lan honekin garage-rock-and-rola erabat erdietsi eta gazteleraz —hastapenetako Sex Museumen traza handiarekin— zein ingelesesez kobazulokoa deritzon eta vintage hutsa den soinua lortu dute. Aipatutako Sex Museum, Cynics, Chesterfield Kings, Fuzztones, Wau y los Arrrghs... maite badituzu, hemen ere farfisa teklatuak gidatutako garage itsaskorra aurkituko duzu. Eta baita askoz pausatua eta borobildutako 'Wine bottle' pieza ederra ere.

IKER BARANDIARAN



Lizentzia ezberdinak adierazteko erabiltzen diren ikonoak. | ALTI040.COM

Creative Commons lizentziek 10 urte bete dute

Ezagupena eta erabilpena zabaltzeko ekimenak egin dituzte egunotan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Hamar urte bete berri dira Creative Commons (CC) lizentziak zabaltzen hasi zenetik, *copyright* tradizionalaren alternatiba modura. Lehen aldiz argitaratu zirenekoa da urteurrena, sei dira gutzira gaur egun, eta, desberdintasunak desberdintasun, oro har, lana partekatze eragozpenik jarri ez baina egiletza errespetatua izateko exijentzia egiten duten egileak eta lanak batzen dira lizentzia horien babesean.

Urteurrenaren ospakizunetan murgiltzen hasteko, #cc10 traola-hitza proposatzen dute eta zenbait ekintza ere egin dituzte atzora arte, eta jarraitzeko asmoa daukate. Funtsean, erabiltzaileak CC lizentzia batekin lanen bat argitaratu edo lizentziok zabaldu eta

ezagutarazteko ekintzak abiatzera animatu gura dituzte.

Lawrence Lessing, Hal Abelson eta Eric Eldred aktibistak izan ziren sortzaileak eta lehen sustatzaileak. Hasierako bertsoak 2002an argitaratu zituzten eta helburu moduan izan zuten egileei Interneten euren lana zabaltzeko modu ezberdinak eskaintzea, *copyright* tek dakarren eskubide guztien galarazpenaren aurrean. Errealitate berri baten aurrean egileak babestea bilatzen zen, baina, edukiak partekatu eta erabiltzeko mugak moldatuta, ezagutza partekatze nahiarekin.

Garapen handia

Bi muturretan, Creative Commons lizentzia oso irekiak eta, baita ere, itxiagoak daude, sei maila

edo geruzatan banatuta. Irekienak (CC BY) lan originalaren edozein erabilpen baimentzen du eta baldintza bakarra da egiletza aitortzea, eta obra originalaren edozein erabilpen edo moldaketa onartzen da. CCren beste muturrean legoke CC BY-NC-ND delakoa, eta lizentzia horrek lagatzen duena da lanaren deskarga eta partekatzea, baina ezelan ere ezin da obra originala moldatu, eta egilea beti aipatu beharra dago. Lanaren originalaren erabilpen komertziala ere erregulatzen da lizentzia horien bitartez, erreserbatutako zenbait eskubideren bitartez. Zabalkunde handia izan dute lizentziok 10 urteotan, eta 2006a ezker euskaraz ere aurki daitezke, www.creativecommons.com webgunean.

Murdoch-en 'The Daily', iPaderako lehen egunkaria, itxi egin zuten zapatuan

Bideragarritasun ekonomikorik ez zeukan proiektuak, azaldu dutenez

J.B. | ARRASATE

Ibilbideari 2001ko otsailean ekin zion eskusiboki iPad euskarri-rako sortutako egunkariak. Eta epe luzerako bideragarritasun ekonomikorik faltak eragin du itxiera. Azken zenbakia joan den zapatuan, hilak 15, argitaratu zuten. Robert Murdoch AEBetako eskuineko komunikabideen handikia da *The Daily*-ren jabea. Egunkari digitalaren itxiera azaltzeko kaleratu duten oharrean, Murdochek dio du "esperimentua" izan dela eta ikusi dutela "oraindik ez dela momentua", nahiz eta "berrikuntzarako bide ikaragarria" izan den.

Irakurleek, hasiera baten, aurkeztu berrikan, oso harrera

ona egin zioten *The Daily*-ri, eta egun gutxian bihurtu zen Storo albiste-aplikazio salduena. Beheranzko bidea, hala ere, berehala hartu zuen eta hamar milioi dolarreko galerak izan zituela zabaldu zen urte amaieran. Ondorioz, konpainiaren 170 langileetatik 50 kaleratu egin behar izan zituzten.

Doakoa ordaindu behar

Berez sarean doan aurki daitekeenarengatik ordainaraztea eredu zalantzarria zen, eta garbi ikusi da bide itxi horrek etorkizunik ez duela, oraingo. Prentsa idatziaren etorkizuna aurreikusteko ere ez du askorik laguntzen eredu horren bideragarritasunik ezak.



The Daily-ren zenbait azal, iPad baten. | FONTSINUSE.COM

Googleren Maps aplikazioa itzuli egin da Appleren App Storen, iOS-6rekin kendu eta gero

iOS-6rekin mapekin eginiko deskalabruaren ostean, aplikazio berriaren ordezkari zuten Google Maps itzuli egin da App Storen. Doan deskarga daiteke Appleren gailuetara orain. Google Mapsen aplikazio berriak berrikuntzak dakartza, gainera, ahots bidezko bilaketak egin baitaitezke, eta askoz ere irisgarriagoa da. Diseinua ere hobetu egin dute.

Interneten lehenengo museo historikoa zabaldu dute sarean: 'The Big Internet Museum'

Interneten lehen museo ireki dute, eta, ezin bestela, sarean soilik aurki daiteke haren garapena, mugari historikoak eta bilakaera jasotzen duen aplikazio, garapen eta izenekin osatutako erakusketa. *The Great Internet Museum* dauka izena museoak eta iraganeko teknologiak, zerbitzuak, iraugitako bilatzaileak eta modan egon ziren *meme*-ak eta guzti aurki daitezke, beste hamaika bitxikeriaren artean, aipatutako museoan.

Amazon-ek bere gailuetarako airbag babes sistema bat patentatu berri du

Sistema horrekin, gailuek jasotako kolpe batek intentsitate-ata-ri zehatz bat gauditutakoan, airbag sistema abiaraziko litzateke. Gailuen barruko *giroskopioei* esker ere, kolpea jo baina lehenago irtengo litzateke babeserako poltsa puzgarria, autoetan aurki daitekeenaren oso antzerakoa izango litzatekeena. Ameriketako Estatu Batuetako patenteen bulegoan duela urtebete aurkeztu zuten ideia, baina orain arte ezin izan dute patentea eskuratu.


Facebook WhatsApp-en atzetik dabilela hasi da zabaltzen

J.B. | ARRASATE

Facebooketik berehala gezurtatzen saiatu diren arren, hedabide batek baino gehiagok eman du albistearen berri, eta ez litzateke lehen aldia izango Facebookek hilabete batzuk geroago errealitate izango zena lehenengo gezurtatu egin duena. Facebookek, gainera, badu mugikorretarako mezularitza aplikazio propioa, *Facebook Messenger* delakoa, baina, ematen duenez, WhatsAppen zabalkunde eta harrera ona bereganatu nahiko luke sare sozialak. Arriskutsua izan daiteke baita WhatsAppentzat ere, Facebookek pribatasun hutsune eta erabiltzaileen esku-bideak errespetatzeko orduan

jokatze moduan kalte egin baitiezaioke hain ezagun egin den mezularitza aplikazioari. Facebook, oso modua argian, WhatsAppen milioika erabiltzaileen telefono zenbaki eta profilen bila joango litzateke, horri ahalik eta etekin ekonomikorik handiena ateratzeko, batez ere publizitateari atek zabaldua. Espekulazio hutsa da, baina, hori, nahiz eta, Facebookekoen jarduteko modua ikusita, erraz espero daitekeen zerbait ere baden.

Esan bezala, esamesetatik etorritako espekulazio zerrenda besterik ez da hedabideetan agertu dena, oraingo.



WhatsApp. | WHATSAPP

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

'Supernanny'

Supernanny Mary-Popins moderno bat da, zure seme-alabak hezten lagunduko dizun psikologo-pedagogoa.

Egun, telebistan dagoen zabor guztiaren artean, nahiko onuragarria dela deritzot, baina hausnarketarako bidea uzten du. Hasteko, gurasoek beharko lukete super-hezitzaile hori, gehienetan ezauzgarri bera errepikatzen baita: seme-alabei nahi duten guztia egiten uzten diete, eta tamalez, gero eta gehiagotan ikusten dugun jarrera da. Haurrak agintzen du bere gurasoen gainetik, irakasleen gainetik eta, oro har, gizartearen gainetik, eta, hori gutxi balitz, beti daude euren seme-alabei arrazoa ematen dieten gurasoak ere.

Bestetik, askotan esan ohi da: "Zeinen bihurria den haur hori". Bada, saio horretan argi geratzen da ez dagoela haur txarrik, edukazio txarra baizik. Batzuk haserretu egingo dira, baina gizartearen onerako autokritika apur bat egin dezatela, faborez.

Hori bai, susmagarria den gauza bakarra da aste-beteen soilik horrenbeste onura lortzea: oso gaizki portatzen zen haurra aingerutxo formal eta xarmagarri bilakatzen baita. Telebistaren adulterazioa da.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 17



Harmailatik

Santamasetako krosa eta pilota txapelketaren finala izango dira Xabi Urtzelaik aurkeztutako saioan. | 22:03

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:13 Onein
13:39 Gipuzkoa kultura
14:09 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AsteON
15:58 Berbetan
16:40 Zorion Agurrak
16:45 Berriak
17:10 Eguraldia
17:13 Onein
17:37 Durangoko azoka
18:22 Beranduegi.tv
18:42 Ekogune
19:09 Goierri Creation Center
19:35 Ikusmira
19:56 Berriak
20:16 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Gurean gaur
22:03 Harmailatik
22:48 Berriak
23:08 Eguraldia
23:11 Magazinea
23:56 Harmailatik
00:41 Berriak
01:01 Eguraldia

MARTITZENA 18



Durangoko Azoka

Durangoko Azokan izandako aurkezpen, ekitaldi eta kontzertuen laburpena egin du Goiena telebistak. | 22:03

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein
16:21 Durangoko azoka
17:06 Berriak
17:26 Eguraldia
17:29 Esatea libre
18:44 Harmailatik
19:29 Gipuzkoa kultura
19:54 Berriak
20:16 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Gurean gaur
22:03 Durangoko azoka
22:48 Berriak
23:08 Eguraldia
23:13 Magazinea
23:58 Durangoko azoka
00:43 Berriak
01:03 Eguraldia

EGUAZTENA 19



'Ekogune'

Orexan herriko materia organikoa kudeatzeko ekimena ezagutuko dugu, *Ekogune* saioan. | 22:00

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:08 Hamaika.bit
13:40 Ikusmira
14:03 Ikusmira
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 Onein
16:13 Harmailatik
16:58 Berriak
17:18 Eguraldia
17:20 Goierri Creation Center
17:46 Zorion Agurrak
17:49 Bertso saioa
19:49 Zorion Agurrak
19:51 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:55 Magazinea
23:40 Gipuzkoa kultura
00:10 Berriak
00:15 Eguraldia

EGUENA 20



'Gipuzkoa Kultura'

Corrado Masacci titiritero italiarrak Oñatiko Kultur Etxean egin duen erakusketa ezagutuko dugu. | 22:00

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Ekogune
13:45 Hamaika.bit
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 AsteON
16:21 Ekogune
16:51 Zorion Agurrak
16:56 Berriak
17:16 Eguraldia
17:19 Lekeitioko zine eta bideo bilera
17:56 Hamaika.bit
18:29 Planik bai?
18:49 Ikusmira
19:26 Zorion Agurrak
19:31 Berriak
19:51 Eguraldia
19:53 Planik bai?
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Gipuzkoa kultura
22:30 Planik bai?
22:50 Berriak
23:10 Eguraldia
23:13 Magazinea
23:58 Ekogune
00:28 Berriak
00:48 Eguraldia

EGUBAKOITZA 21



'AsteON'

Arritxu Barrusok aurkeztutako saioan, gaurkotasanari lotutako gai eta bitxikerien berri ematen da. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Gurean gaur
13:36 Onein
14:00 Durangoko azoka
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Ikusmira
15:51 Gipuzkoa kultura
16:21 Beranduegi.tv
16:41 Zorion Agurrak
16:45 Berriak
17:05 Eguraldia
17:08 Planik bai? 17:28 Ekogune
17:58 Lekeitioko zine eta bideo bilera
18:35 Beranduegi.tv
18:59 Zorion Agurrak
19:03 Berriak
19:23 Eguraldia
19:26 Planik bai?
19:46 Goierri Creation Center
20:12 Gipuzkoa kultura
20:42 Gurean gaur
21:42 Beranduegi.tv
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Durangoko azoka
23:38 AsteON
00:08 Planik bai?
00:28 Berriak
00:48 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Kike Amonarrirek euskararen norabideari buruz jardungo du

Kike Amonarrirek AEDK antolatutako 4 begiratu euskararen norabideari hitzaldi zikloaren barruan abenduaren 13an Kulturaten emandako XXI. mendeko euskaldunak: nola ari diren gauzak aldatzen, kamarada! hitzaldiari buruz jardungo du Arrasate Irratiko Igo autobusera saioan.

Abenduaren 28ko toberaren berri emango du Iraitz Agirrek

Aurtengo toberan Debagoienak Oñati epaituko du eta epaiketaren horren nondik norakoak azalduko dizkigu Iraitz Agirrek, Bagara elkartearen kideak. Oñatiren inkomunikazioa interesatua dela da txantxikuak epaitzeko arrazoa; Agirrek orain arte egindako lana azalduko digu.

Aste honen ostean, Arrasate Irratiko autobusa garajera

Abenduaren 21ean, Arrasate Irratiko autobusa garajera sartuko dugu urtarrilaren 7ra arte. Beraz, aste honetan, urteko azken zozketak egingo ditugu, besteak beste, Santamasetako bertso jaialdirako eta Maika Makovski eta Mississipi Mass Choir kontzertuetarako sarrerak. Animatu eta parte hartu!

TELE-ALBISTEAK

Oñatiko Nazioarteko Lege Soziologia Institutua erakutsiko dugu 'Magazinea'-n

Udalak 2013-2014 ikasturtean masterra egiten duen oñatiarrari beka emango dio

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Aste honetan, aurtengo *Magazinea*-ko azken lau saioak izango ditugu. Miren Arregik eta Txomin Madinak aurkezten duten saioan, besteak beste, Oñatiko Lege Soziologia Institutuak Goiena telebistako *Magazinea*-ri atek irekiko dizkio. Bertan, 2013-2014 ikasturterako edukiak ezagutuko ditugu, eta, bide batez, Lege Soziologia Institutuaren instalazioak ikusiko ditugu.

Magazinea-n, Idoia Sarak egindako psikopedagogia ikasketen proiektuari buruz hitz egingo du. Sarak eskolan heriotza nola tratatu behar den jorratu du, eta MUK ikasleen euskarazko gradu amaierako proiekturik onena izateagatik 2.000 euroko diru sariarekin saritu du. Mon-



Lege Soziologia Institutuko 2012ko ikasleak. | GOIENA

dragon Unibertsitatean euskaraz aurtengo ikasturtean lehiaketara aurkeztu diren 42 proiektuetatik onena izan da.

Urtarrilaren 7an itzuli

Gabonak direla eta, *Magazinea*-k atseden hartuko du eta 2013ko urtarrilaren 7an bueltatuko da.

Santamasetako krosa, 2012ko azkeneko 'Harmailatik' saioan

Krosaz gain, Santamasetako pilota txapelketaren finalak, futbola eta eskubaloia izango dira ikusgai

A.M. | ARRASATE

Santamasetako krosaren jarraipenarekin eta pilota txapelketaren finalekin, 2012ari agur esango dio *Harmailatik* saioak. Hala ere, ez dira falta izango futbola, eskubaloia eta beste kirol batzuk. Gaur gaueko saioan, zapatuan Agorrosin futbol zelaian Bergarak eta Real Unionek jokatutako partiduen laburpena eta Arrasateko Ford Mugarrik eta Ereintza Aguaplast taldeek jokatutako eskubaloi partiduen aipamena.

Gabonei begiratu

Saioa bukatzeko, Gabonetan Debagoienan egongo diren kirol hitzorduen errepaso egingo du Urtzelaik. Besteak beste, Aretxabaletako Bixente Etxean-



Xabi Urtzelaik. | GOIENA

dia futbol txapelketa, Bergarako Luis Herzogen omenezko Gabonetako gazte mailako torneo, Arrasateko Gabonetako saskibaloi txapelketa eta Oñatiko San Sivestre lasterketaren berri emango du.

JAIOTAKOAK



Aiur Mtz. Lizarduikoa Jainaga

Aretxabaleta. 3,100 kilo. Abenduaren 6a. Gurasoak: Ekain eta Leire. Argazkian, aitarekin.



Imanol Iturbe Garro

Arrasate. 3,100 kilo. Abenduaren 3a. Gurasoak: Eli eta Eneko. Argazkian, Imanol sehaskan.



Elene Gabiola Igartua

Oñati. 3,210 kilo. Abenduaren 6a. Gurasoak: Xabier eta Ihanire. Argazkian, Elene lasai-lasai.



Maia Larrañaga Vazquez

Arrasate. 3,400 kilo. Abenduaren 7a. Gurasoak: Naiara eta Mikel. Argazkian, Peru bere anaiarekin dago.



Aiur Muxika Iñurritegi

Bergara. 3,890 kilo. Abenduaren 11. Gurasoak: Nagore eta Iñaki. Argazkian, Aiur amarekin.



Amaia Gomez Cot

Bergara. 2,500 Kilo. Abenduaren 10a. Gurasoak: Maite eta Ander. Argazkian, Amaia jaioberria gurasoekin.



Ibai Gallego Perez

Soraluze. 3,140 Kilo. Abenduaren 11. Gurasoak: Yoana eta Sergio. Argazkian, Ibai amarekin.



Maite Carrero Aranburu

Arrasate. 3,540 Kilo. Abenduaren 11. Gurasoak: Izpiñe Gustavo. Argazkian, Maite sehaskan lo.



Urko Muruamendiaraz Arevalillo

Bergara. 4,040 kilo. Abenduaren 10a. Gurasoak: Eva eta Iker. Argazkian, Urko amaren besoetan.



Malen Aretxaga Arabaolaza

Bergara. 2,925 kilo. Abenduaren 12a. Gurasoak: Larraitz eta Ander. Argazkian, Malen amarekin.



Aratz Aperribai Mujika

Bergara. 2,660 kilo. Abenduaren 14a. Gurasoak: Maite eta Aitor. Argazkian, Aratz amarekin.



Aisha

Arrasate. 3.400 kilo. Abenduaren 6a. Gurasoak: Sandra Patricia eta Alexander. Argazkian, Aisha amarekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



BABESLEA



Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86



Jarrai gaitzazu
Facebooken:
UME ARRASATE



GABONETAKO ESKAINTZA

**%20ko
DESKONTUA***



* Osagarrietan izan ezik

DENBORA-PASA

SUDOKUA

	1			4	5	
	2				7	9
	8			7	6	
3		4		5	2	
	8	2		6		4
		7				
			3			
7			2			
		8	6	9	3	

HIZKI SALDA

Topa itzazu Mendebaldeko Europako bost herrialde.

G	K	H	S	L	O	B	S	M
F	E	K	U	S	L	X	C	O
A	A	B	G	U	A	L	Z	N
G	R	E	Z	I	A	K	O	A
N	O	L	X	T	B	H	U	K
O	L	G	A	Z	O	U	M	O
E	M	I	L	A	K	U	L	B
Z	E	K	K	A	B	M	U	A
A	A	A	N	D	O	R	R	A

HIEROGLIFIKOA

Elurra... ari du.

...-R...
...-R...

SOLUZIOAK

V	A	R	D	N	V	A	Z
U	E	M	B	A	E	Z	
B	L	K	L	A	M	E	
O	U	O	Z	A	T	O	
K	H	B	T	X	L	O	N
A	O	K	A	I	Z	O	
N	Z	L	V	G	A	V	
O	C	X	L	S	F	E	
M	S	B	L	S	L	K	G

1	4	5	8	2	1
7	3	6	9	2	4
8	5	9	1	7	3
2	6	4	7	3	5
5	7	8	2	1	9
3	9	1	4	6	8
6	8	3	5	4	7
4	2	9	6	8	1
6	1	7	3	9	2
4	5	8			

Hieroglifikoa:
mara-mara.

AI, ENE!

Begiekin jaten dutenak engainatzeko

Gabonak gertu ditugu, eta diru asko gastatu gabe sekulako jakiak jaten ari garenen ilusioa egiteko, hona hemen adibide bat. www.facebookfails.es



AHOBERO

"Gobernatzea, batzuetan, mina banatzea da"

ALBERTO RUIZ GALLARDON | JUSTIZIA MINISTROA

Ez dirudi erraza gaur egun gobernatzeak: egoerak aginduta agintariek erabaki gogorak hartu behar dituzte eta horrek ez du gozoa izan behar. Baina banatzen den min hori beti berdinentzat izan beharrean, zergatik ez da beste batzuen artean ere banatzen? www.publico.es

EGURALDIA



Max. 15°

Min. 7°

Zerua hodeitsu egongo da eta euria egiteko probabilitatea handia da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-12-17

HAMARREKOA

Alex Ubago Castellotik Madrilerako bidean harrapatu dugu donostiarra, *Mentiras Sinceras* bere azken lanaren promozioan murgilduta. Abenduaren 26an Eibarren eskainiko du kontzertua. | TXOMIN MADINA

"Semea besazpian ogiarekin beharrean diskoarekin jaio da"

1. Milanen grabatu duzu azken lana. Zertan nabari da ukitu italiarra? Ekoizlea eta musikoak italiarrak izan arren, soinua gehiago da amerikarra. Diskoan aniztasuna dago: badira orain arteko kantu erromantikoen modukoak, baina baita *gitarroagoak* ere.

2. Askoz disko helduagoa ei da... Hori diote... Jendea denborarekin heltzen doa: niri ahotsa heldu zait, ikasi egin dut, argiago dut nahi dudana... Dena den nire diskoak beti oinarritu dira egoera oso errealetan eta lehen diskoa nahiko heldua zela uste dut.

3. Gezur egiaziak, errazago barikatzen dira? Ez dut uste. Gezur egiaziaren kontzeptua ezinezko bat da; kantu baten izena da eta bere letra ezinezkoen ingurukoa da. Diskoak zerikusit handiagoa du izenaren bigarren hitzarekin.

4. Pisu handia du abeslari erromantikoen etiketak? Ez nau molestutzen, horrela naiz -eta; nahiago hori, *ñoño* bezalakoak baino. Baina jendeak zuri buruzko irudia egiten du, nire kasuan serioa, barnerakoa naizela; eta ez da horrela inondik inora ere.

5. Zein puntura arte arduratzen zaituzte salmentek? Bat ere ez esatea gezurra da, baina ez didate loa kentzen. Denoi egiten digu ilusioa saltzeak, baina nik nahi dudana da musikan aritzea eta jendeak s entzutea.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Gaixotasunik ez eta lana denontzat"

"Gauza asko egin daitezke makila magikoarekin, baina bururatzen zaidan lehen gauza da mundu guztiari osasuna ematea, gaixotasun guztiakin amaitzea. Eta egun bizi dugun egoera zail honetan, mundu guztiari lana emango nioke, batez ere beharra duenari eta aurrera ateratzeko arazoak dituenari".

6. Zein leku du Amerikak zure karreran? Oso garrantzitsua: lehen diskoak Espainian arrakasta izan zuenean Amerikan nere musika aurkezteko aukera izan nuen eta asko eman dit. Sinesgaitza da urrun dauden herrialdeetan jarraitzaileak aurkitzea. Azken bi urteetan han hemen baino lan gehiago egin dut.

7. Non duzu 2011an irabazitako Grammya? Gurasoen etxean; han ditut eman dizkidaten ia sari guztiak. Ilusioa egiten dit sari bat irabaztean gurasoei eroteak; azkenean eurak dira-eta denaren hasiera.

8. Noiz irabazi zenuen billarreko azken partida? Duela asko, apur bat utzita dut! Musikatik aparte dudana zaletasun handiena da. Garai baten asko jolasten nuen, Las Vegasen ere izan nintzen munduko txapelketa baten parte hartzen.

9. Nola doa fardelak aldatzea? Dagoeneko esku batekin aldatzen ditut! Semearen etorrera bizitzako poztasun handiena izan da. Baina besazpian ogiarekin beharrean, diskoarekin jaio da eta promozioarekin-eta faltan botatzen dut.

10. Asko zabilta sare sozialetan. Aurkikuntza bat izan dira: dinosauro samarra nintzen kontu hauetan, baina orain engantxatuta nago. Oso polita da zaleekin hartu-eman zuzena izatea.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Eguberri=argi berri
Urteberri=ur berri

erro hauek argitaratzerako, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak Jaurlaritza osatuko duten sailburuen izenak publiko eginak izango ditu. Lehendakari berria aukeratzeko Legebiltzarren osoko bilkura osorik ikusi nuen eta bukatzen, garai berriarekin itzaropen-tsu eta baikor geratu nintzen nahiz eta krisiak bustitzen gaituen. Udazken euritsua dugu aurtengoa; eta urteberriaren atarian gaude gainera.

Ura, gure arbasoek asko estimatu eta baloratzen zuten elementua zen; haizeari ordea beldurra zioten. Urak bizitza zekarren eta egun euritsuak, gaur ez bezala, ez ziren eguraldi txarraren adierazle. Halaber, norbaiten heriotzarekin euria etor zedin otoi egiten zuten. Nafarroako Sakanan gabon zahar gaueko hamabiak jotzearekin batera, Urdiaineko gazteek pitxerrak eskuetan dituztela herriko iturrietatik ura hartu ohi dute. Urte berriari ur berriarekin egiten diote harrera, eta ur berria agintariei eskaini ondoren, etxez etxe banatzen dute ura, bertsoak edo koplak kantatuz. Ohitura zahar hau Euskal Herri osoan egon omen zen zabalduta.

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

